


ANTOLAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA

AMEZKETA

HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA



AURRERAKIN AGIRIA

2018ko maiatza



ANTOLAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA

AURRERAKIN AGIRIA

2018ko maiatza

LANTALDE IDAZLEA

IDAZLEAK:

Hektor Espin Larreta. Arkitektoa

Eñaut Muñoa Artola. Arkitektoa

Roman Egaña Salaberria. Arkitektoa eta Arkitekto Teknikoa

Xabier Macías Ganuza. Arkitektoa

Aitor Iztueta Garaikoetxea. Aholkulari juridikoa

LAGUNTZAILEAK:

Amaia Renteria Sanchez. Arkitektoa

INGURUMEN AHOLKULARITZA:

EKOLUR, S.L.

HERRITARREN PARTEHARTZEA:

Ibon Salaberria San Vicente. Arkitektoa (bESTE)

AURKIBIDEA: A DOKUMENTUA. MEMORIA	Orr
A1. INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA	7
A1.0 SARRERA ETA AURREKARIAK	7
A1.1 ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPEN ESPEDIENTEAREN XEDEA	8
A1.2 PROIEKTUAREN LURRALDE EREMUA ETA EREMU MATERIALA	8
A1.3 ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO AUKERA ETA KOMENIGARRITASUNA	10
A1.4 AURRERAKIN AGIRIAREN HELBURUA. IZAPIDETZEA ETA EDUKIA	13
A1.5 PROIEKTUA BURUTZEKO MARKO OROKORRA	15
A2. PARTE- HARTZE DIAGNOSIA	19
A2.0 SARRERA	19
A2.1 DIAGNOSI TEKNIKOAREN SINTESIA	19
A2.2 HERRITARREN PARTEHARTZEA: AMESTU AMEZKETA	35
A2.3 PLAN OROKORRAREN FORMULAZIOARI TXOSTENAK	54
A3. INDARREKO ANTOLAMENDUA. GARAPEN MAILA	55
A3.0 SARRERA	55
A3.1 AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GARAPENA	56
A3.2 JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN AURREIKUSPENEN GARAPENA	57
A3.3 EKIPAMENDU ETA ESPAZIO LIBREEN ZUZKIDURAREN GARAPENA	58
A3.4 AZPIEGITURA SAREAREN GARAPENA	59
A4. ESKU-HARTZEAREN HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK	60
A4.0 ALDERDI OROKORRAK	60
A4.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIAK	63
A4.2 NUKLEO LANDATARRAK	64
A4.3 EREMU HIRITARRA	65
A4.4 BIZITEGI LURZORUA	66
A4.5 JARDUERA EKONOMIKOAK	67
A4.6 EKIPAMENDUAK ETA EREMU PUBLIKOAK	69
A4.7 GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA	70
A4.8 AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK	71
A4.9 ONDAREA	71
A5. BIZITEGI KUANTIFIKAZIOA	72
A5.1 AURREKARIAK	72
A5.2 KUANTIFIKAZIOA	72
A5.3 ONDORIOAK	75
A6. ANTOLAMENDU PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK	77
A6.0 SARRERA	77
A6.1 PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK HIRI-LURZORUAN ETA URBANIZAGARRIAN	78
A6.2 PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN	85

A6.3	ANTOLAMENDU ALTERNATIBEN LABURPEN KONPARATIBOA	88
A6.4	ONDAREAREN KATALOGO IREKIA	89
A7.	GARAPEN ETA EXEKUZIO BALDINTZAK	93
A7.0	SARRERA	93
A7.1	HAPOAREN GARAPENERAKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN ZEHAZTAPENA	93
A7.2	HIRIGINTZA EXEKUZIOA	93
A7.3	HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN PROGRAMAZIO NEURRIAK	94
A8.	PROIEKTUA ETA INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA	95
A9.	AZKEN ONDORIOAK. AURRERAKINAREN LABURPEN OROKORRA	96

AURKIBIDEA: B DOKUMENTUA. PLANOAK		Eskala
B1.	INFORMAZIOA	
B1.1	KOKAPENA. LURRALDE TXERTAKETA	1:50.000
B1.2	TOPOGRAFIKOA. LURRALDEAREN EGITURA ORGANIKOA	1:10.000
B1.3	ERASANAK. UDALAZ GAINDIKO PLANGINTZA	1:10.000
B1.4	BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. ARRISKU NATURALAK	1:10.000
B1.5	BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. BALIABIDE ESTRATEGIKOAK 1	1:10.000
B1.6	BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. BALIABIDE ESTRATEGIKOAK 2	1:10.000
B2.	PROPUESTA	
B2.1	INGURUNE FISIKOAREN EGITURA OROKORRA. 0 ALTERNATIBA	1:10.000
B2.2	INGURUNE FISIKOAREN EGITURA OROKORRA. 1 ALTERNATIBA	1:10.000
B2.3	INGURUNE FISIKOAREN EGITURA OROKORRA. 2 ALTERNATIBA	1:10.000
B2.4	INGURUNE FISIKOAREN EGITURA OROKORRA. 3 ALTERNATIBA	1:10.000
B2.5	EREMU HIRITARRAREN EGITURA OROKORRA. 0 ETA 1 ALTERNATIBAK	1:5.000
B2.6	EREMU HIRITARRAREN EGITURA OROKORRA. 2 ETA 3 ALTERNATIBAK	1:5.000

A DOKUMENTUA. MEMORIA

A1. INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA

A1.0 SARRERA ETA AURRERAKINAK

Amezketako Udal Osoko-bilkurak, 2016ko azaroaren 25ean ohiz kanpoko saioan batzartua, udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren idazketa eta aholkularitza zerbitzuen kontratua ASTAZALDI ARK S.L.P. enpresari esleitzea erabaki zuen, hartara deitutako lehiaketa irekiaren plegu administratibo eta teknikoen arabera. Erabaki honi zegokion kontratua 2017ko martxoaren 28an formalizatu zen (GAO 65. zb, 2017ko apirilaren 3a).

Aurrerakin hau landu aurretik, 2017ko apiriletik abendura bitartean, idazketa taldeak udalerriko hirigintza, ingurugiro eta egoera sozio-ekonomikoaren diagnosi integral bat osatu du, DIAGNOSI PARTEKATUA deritzona, lehen azterketa tekniko bat hartara deituriko *Amestu Amezketa* prozesu parte-hartzailean Amezketako herritarrekin ebaluatua, eztabaidatua, zuzendua eta berretsia izan baita. Agiri honen sintesia Aurrerakin honetan txertatu da, nahiz eta bere osotasunean Udaletxean aurrez aurre edo www.amestuamezketa.eus orrialdean telematikoki kontsultatua izan daitekeen.

Beranduago, 2018ko otsailaren 1eko ohiz kanpoko bilkuran, Amezketako Udalbatzarrak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egitea eta Herritarren Partaidetza Programa onartzea adostu zuen, eta babes zibilean, kultura ondarean eta inguru naturalean eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko organoei gaur egungo arriskuen eta ingurumeneko baldintzatzaileen, zein kultura ondarearen eta ingurune naturalaren babesaren gaineko informazioa eskatzea, antolaketak errespetatu behar dituen heinean.

Ordutik igarotako denboran bi txosten eskuratu dira, dokumentu honetako A2.3 atalean irakurgai daudenak. Hauek dira:

- babes zibileko arriskuei buruzkoa, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak igorria.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ondare Naturala eta Aldaketa Klimatikoaren Zuzendaritzak igorria, bere eskumenen baitan.

A1.1 ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPEN ESPEDIENTEAREN XEDEA

Amezketako Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Testu Bategina 2006ko azaroaren 14an Gipuzkoako Foru Aldundiko (GAO 12. zb, 2007ko urtarrilaren 17koa) Diputatu Kontseiluaren akordioarekin onartu zen. Onartu zenetik dokumentu honek ezarri du indarreko hirigintza erregimen orokorra, eta beraz, Amezketako udalerrri osoko hirigintzaren jarraibide arautzaileak.

Indarrean sartu zenetik, ekonomia zein hirigintza alorretan zinez denboraldi aztoratua izan den 10 urteko denboraldia igarota, izan duen garapen eskasa ikusita, Amezketako Udalak udalerriko antolamendu orokorraren osoko berrikuspenari ekitea erabaki zuen 2016 urtean.

Bestalde, indarraldi berean, udal antolamendua aldaketa garrantzitsuak izan dituen hirigintza legedira eta sektore zein lurralde antolamendura egokitzearen beharra dago.

Berrikuspen hau, beraz, ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 LEGEaren 102-1 artikuluan jasotako balizkoen artean kokatzen da, non: *“Hirigintza- planek ezarritako antolamendua eta, nolanahi ere, plan orokorren egiturazko antolamendua erabat berraztertze, beharrezkoa izango da antolamendu hori berrikustea. Antolamendua berrikusi beharra izango da, orobat, lurralde- plangintzak hiri garapen berrietarako hala eskatzen duenean eta garapen berriek funtsezko eragina dutenean egiturazko antolamenduan.”*

Testuinguru honetan landua, arau subsidiarioen berrikuspenaren arrazoia Hiria Antolatzeko Plan Orokor (HAPO) berri bat idaztea da, indarrean dagoen legedira egokitua, aldaketa sozio-ekonomikoei erantzun eta etorkizuneko erronkei aurre egin diezaiokeena eta udalerrriaren bizirauterako garrantzitsua izango dena.

Zehazki, dokumentu hau Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerapenari dagokio.

A1.2 PROIEKTUAREN LURRALDE EREMUA ETA EREMU MATERIALA

Batetik, HAPOaren lurralde eremuak Amezketako udal barruti osoa barne hartzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokiona eta Tolosaldea eskualdeko hego muturrean kokatua dagoena (*Toloserriko Eredu Funtzionala*).

20,58 km² (2.058 Ha)-ko azalera hartzen du eta hegoaldeko erdiaren ia guztia (999 Ha) Aralar Parke Naturalari dagokio, zeinaren adierazpena apirilaren 26ko 169/1994 Dekretuan eman zen.

Udalerrriak Orendain eta Alegia herrieekin eta Tolosako Bedaio auzoarekin du muga iparraldetik, aipatu Bedaio auzoarekin ekialdetik, Enirio-Aralar mankomunitateko lurrekin hegoaldetik eta Abaltzisketa eta Orendain herrieekin mendebaldetik.

Bestetik, bere eremu materialari dagokionez, Hiria Antolatzeko Plan Orokorra Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 59-1.a) artikulua zehaztutako egiturazko antolamendu planetan kokatzen da, eta beronen edukia aipatu Legearen 61 eta 62 artikuluetan xedatutakoari egokituko zaio, hau da:

61. artikulua. Plan orokorraren eduki sustantiboa.

Antolaketa dela eta, hiria antolatzeko plan orokorrak zehaztutako hauek finkatzen ditu:

- a) Gutxienez, udalerrri osoaren egiturazko antolamendua eta plan orokorrak hiri- lurzoru finkatua sartzeko duen hiri- lurzoruaren antolamendu xehatua.*
- b) Nahi izanez gero, lurzoru urbanizagarri sektoretan eta plan orokorrean hiri- lurzoru finkatuaren kategorian sartu gabeko hiri- lurzoruaren antolamendu xehatua. Antolamendu hori, nolatan ere, antolamendu xehatuaren plangintza arautzeko utz daiteke.*

62. artikulua. Agiriak

1.- Plan orokorraren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

- a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza- ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen- elementuak dakartzan informazio guztia jasoko behar du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.*
- b) Ingurumen- kalteari buruzko aurreko txostena betetzeko memoria justifikatiboa. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arrazoitu behar da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze-gaitasuna ere kontuan izan.*
- c) Informazio-planoak.*
- d) Egiturazko antolamenduaren planoak.*
- e) Antolamendu xehatuaren planoak.*
- f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.*

A1.3 ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTE AUKERA ETA KOMENIGARRITASUNA

Arestian adierazi bezala, Amezketako Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspenaren Testu Bategina 2006ko azaroaren 14an onartu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko (GAO 12. zb, 2007ko urtarrilaren 17an) Diputatuen Kontseiluaren akordio bidez, nahiz eta Amezketako Antolaketako Arau Subsidiarioen Berrikuspen espedientea Diputatuen Kontseilu horrek 2005eko azaroaren 22an egindako saioan jada ebatzia izan zen, lehenik eta behin 2005eko azaroaren 9ko udalbatzarreko akordioan adierazitako zehaztapenen baitan lurzoru ez urbanizagarriaren eta A.I.U.9 Ola Auzoa eremuko 9.1 eta 9.2 sektore industrialen ordenazioa behin betiko onartzea adostuz, A.I.U. 7 Jauregi eremuko hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren antolaketa, aldiz, onarpenetik kanpo utziz, Udaletxeak aipatu akordioko azalpenen atalean jasotakoari erantzun egoki bat eman bitartean.

Arau Subsidiarioen indarraldian ondorengo aldaketa puntualak onartu dira edo tramitazio prozesuan daude:

- “Arauen Aldaketa 1. zb”, 2010eko uztailaren 13an behin betiko onartua, lursail baten kalifikazioa eta Ordenantzetako hainbat artikulua aldatzeko xedea zuena.
- “A.I.U. 9. Ola Auzoa Hirigintza Jarduketa Eremuaren klasifikazio eta kalifikazioaren alldaketa”, 2015eko azaroan haserako onarpena eman zitzaiona.
- “A.I.U. 2. Papelera Aralar Hirigintza Jarduketa Eremuaren aldaketa”, 2016ko irailaren 29an behin behinean onartua.

Beraz, 10 urte igaro dira indarreko antolamendu orokorra indarrean sartu zenetik eta momentu egokia dirudi bere berrikuspenari ekiteko. Nolanahi ere, Arau Subsidiarioek, bere 4. artikuluan, ezartzen dituzte berrikuste horri ekiteko baldintzak:

4. artikulua. Arauak berrikusteko baldintzak

Osoko Udalbatzak legezkotasuna, legedi aldaketak, lurralde antolaketa eta abar bezalako arrazoiengatik nahiz aukera/ beharra bezalako arrazoiengatik har ditzakeen Arau Ordezkatzaileak berrikusteko ekimenak alde batera utzita, aipatu berrikuspena egingo da ondorengo kasu hauetan:

a)Betiere Amezketako biztanleriak proiektu honetan planteatzen diren aurreikuspenak %15ean gainditzen duenean.

b)Planifikatutako etxebizitza berrien %75erako eraikuntza- lizentziak ematen direnean.

c)Proiektu honetan bertan jasotzen diren irizpideen arabera ebaluatutako etxebizitza hutsen %60 okupatzen direnean.

lido beretik, Arau Subsidiarioek populazioaren 1.111 biztanlerainoko igoera aurreikusten zuten bere indarraldian, eta egun biztanleria 942 pertsonetara jaitsi da. Gainera, aurreikusitako etxebizitza kopurua 190ekoa zen eta 10 urteren buruan 21 eraikuntza lizentzia (%11) besterik ez dira eman. Azkenik, etxebizitza hutsen kopurua txikitu beharrean arinki handitu da, egungo 135 etxebizitzetaraino. Beraz, bistakoa da ez dela berrikuspena burutzeko Arau Subsidiarioetan jasotako egoera edo hipotesirik eman ezta epeak iraungi ere.

Aurreikuspen horien betetze maila urria eta, inoluzio izan ez denean, eboluzio eskasak, baina, errealitate sozio-ekonomikoaren erabateko transformazio bat iradoki dezake eta, ondorioz, indarrean dauden Arau Subsidiarioen udalerriko gaur egungo beharrei erantzuteko gaitasun eza.

Bestetik, azken hamarkadan hirigintza legedian eta lurralde eta sektore antolamenduan eman diren aldaketak kontutan hartzekoak dira, horien artean ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 LEGEAren indarrean sartzea nabarmentzen delarik, zeinak honakoa xedatzen duen:

Bigarren Xedapen Iragankorra. Hirigintza-antolamendurako planen eta bestelako tresnen indarraldia eta egokitzapena

1.- Plan orokorrak eta arau subsidiarioak.

Lege hau indarrean sartzean behin betiko onartuta dauden plan orokor eta arau subsidiarioek, eta orobat haien aldaketek eta berrikuspenek, indarrean jarraituko dute; nolahi ere, bete beharrekoa izango da babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzaren eta zuzkidurazko bizitokien estandarrei buruz hurrengo lerroaldeetan eta aldi baterako xedapen hauetan ezarritakoa.

Dena den, egiturazko antolamenduko eta antolamendu xehatuko zehaztapenei buruz lege honetan ezarritako erregulazioa aplikatzekoa izango da, legea indarrean jartzen denetik aurrera, indarrean diren arau eta planetarako.

Behin betiko onartutako plan orokorrei eta arau subsidiarioei dagokienez, baldin eta lege honetan ezarritako gehienezko eta gutxienezko mugekin bat ez datozen hirigintza-eraikigarritasunak aurreikusten badituzte, muga horiei egokitutako geldituko dira automatikoki, betiere plan eta araudi buruz antolamendu xehaturik behin betiko onartu ez bada lege hau indarrean sartzean. Alabaina, udalak uste baldin badu neurri honen aplikazioa ezingo dela modu autonomoan egin aurretiaz bere plangintzaren egitura- antolamendua egokitu gabe, aldatu edo berrikusi- dagokiona- egingo du antolamendua.

Edozein kasutan, egokitzapen automatiko horrek eragindako hirigintza- eraikigarritasunaren handitzeak edo gutxitzeak ez du kalte- ordainik ekarriko ez ondare- erantzukizunik sorraraziko administrazioarentzat.

Bizitegirako lurzorua gorde beharra daukaten udalerriei dagokienez, baldin eta erabilera nagusia bizitegirakoa duten area eta sektoreetan, aurreko lerroaldean ezarritako erregela aplikatzeagatik, handitu egin bada hirigintza- eraikigarritasuna, lege honetan babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak egoteko lurzoru -estandarrak eta - kopuruak bete beharko ditu.

Plan orokorren eta arau subsidiarioen lehenengo berrikuspenari dagokionez, lege hau indarrean sartzean hasierako onespenerik ez baldin badu, legean aurreikusitakoari lotu beharko zaio. Aldaketa zehatz baterako eta berrikuspenerako espedienteei dagokienez, ordea, baldin eta legea indarrean sartzean hasierako baina ez behin- behineko onespenera badute, udalak hautatuko du beren edukia eta zehaztapenak lege honetan aurreikusitakoari egokituko zaizkion, edo aurreko legeriaren eduki eta zehaztapenen arabera onartuko diren. Berrikuspena gorabehera, hiri- antolamenduko tresna orokorrak guztiz egokitu ahal izango zaizkie lege honetan ezarritako zehaztapenei eta edukiari, egokitzapen- espediente baten bidez. Espediente hori plan orokorra aldatzeko prozedurarekin izapidetuko da.

Aldaketa zehatz baterako eta berrikuspenerako espedienteei dagokienez, baldin eta legea indarrean sartzean hasierako onspenera bai baina behin – behineko onspenera ez badute, behin betiko onartu ahal izango dira lege honetan aurreikusitako prozedurari lotuta.

Nolanahi ere, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira gehienez ere hamabost urteko epean.

(2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzekoa (GAO urriak 7) delakoaren artikulua bakarrak idatzitako bigarren xedapen iragankorreko 1. zenbakiko azken paragrafoa. Iraunaldia: 2014ko urriaren 8)

2/2006 Legea (EHAA 138. zb, 2006ko uztailaren 20koa) 2006ko irailaren 20an sartu zen indarrean, eta beraz, plangintza orokor orok (plan orokorrak eta arau subsidiarioak) lege honen zehaztapenetara egokitu eta 2021eko irailaren 20a baina lehen behin betiko onspenera izan beharko du. Derrigortasunaren edo indarreko Arau Subsidiarioek 2/2006 Legearekiko duten betetze mailaren inguruko eztabaidak alde batera utziz, nabaria da, behingoz, Amezketa udalerriko plangintza orokorra aipatutako Legearen zehaztapenetara egokitzearen beharra. Are gehiago behin betiko onarpenera 2021eko irailaren 20a baino lehen burutu beharra dagoela.

A1.4 AURRERAKIN AGIRIAREN XEDEA. IZAPIDEA ETA EDUKIA

Aurrerakin agiriaren xedea Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 87. artikuluan dator arautua:

87. artikulua – Hirigintzako plangintzaren aurrerakinak.

1.- Plan orokorrak egiteko eskumena duten herri administratiboek aurrerakinak izango dituzte, ezarri nahi duten antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak zehazteko eta plan orokorra lehendabizikoz egiten denean edo indarrean dagoen bat guztiz edo partzialki berrikusi behar denean orientabide izateko. Aldaketa- kasuetan, aukerakoa izango da aurrerakina egitea.

2.- Aurreko paragrafoan aipatzen den aurrerakina onartzeak administrazio- eragina izango du, kasuan kasuko hirigintza- planaren idazketari begirakoa.

3.- Aurrerakinean, ingurumen- eraginaren baterako ebaluazioa egiten duen azterketa ere jasoko da. Arauz ezarritako edukia izango du.

Azken atal honi dagokionez, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren prozedura abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legean eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan arautzen da, EAEko planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena. Ildo beretik, 21/2013 Legearen 18. artikulua honakoa xedatzen du:

18. artikulua. Ohiko ingurumen- ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera.

1. Plan edo programa abian jartzeko edo onesteko prozedura substantiboaren barruan, sustatzaileak ohiko ingurumen- ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera aurkeztuko dio organo substantiboari, arloko legediak eskatutako dokumentuekin batera. Agiri horiez gainera, plan edo programaren zirriborroa aurkeztuko du, bai eta hasierako agiri estrategikoa ere, gutxienez honako informazio hau adierazita:

a) Plangintzaren helburuak.

b) Proposatutako plan edo programaren irismena eta edukia, eta teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arrazoizko aukerak.

c) Planaren edo programaren garapen aurreikusia.

d) Ingurumen- inpaktu potentzialak, klima- aldaketa aintzat hartuta.

e) Arloko eta lurraldeko aldibereko planetan aurreikus daitezkeen eraginak.

Beraz, honako Aurrerakin agiriarekin batera Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren Hasierako Dokumentua idazten da, beronen edukia 211/2012 Dekretuko 8. artikuluekin bat etorriko delarik.

Bi dokumentuok ingurumen-organoari igorriko zaizkio, dagokigun kasuan Gipuzkoako Foru Aldundira, zeinak eragina duten Administrazio publikoen aurretiko kontsultak burututa eta lege ezarritako epean, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua, edo erreferentziako dokumentua, autonomiko araudiaren izendapenaren arabera, igorriko duen. Behin igorrita, irismeneko edo erreferentziako dokumentua Aurrerapen honi gehituko zaio.

Bere aldetik, Aurrerakinaren izapidea 2/2006 Legeko 90. artikuluan arautzen da:

90. artikulua.- Plan orokorra egin eta izapidetzea.

3.- Aurrerakina egindakoan, udalak jendaurrean jarriko du bi hilabetez gutxienez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko. Jendaurrean jarri behar denean, horren berri emango da lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan. Aurrerakina udal mugakideetara bidaliko da ezagutu dezaten; eta, Arabako kasuan, baita administrazio- batzarretara ere, ezagutu dezaten eta proposatutako antolamenduaren oinarritzko alderdiei buruz txostena egin dezaten.

4.- Jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundeen parte- hartzearen emaitzak aztertuta, udalak plan orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak zehaztuko ditu. Onartzen diren irizpide eta helburuak ingurumen- eraginaren baterako ebaluazioari buruzko txostenarekin bat ez datozenean, berariaz arrazoitu beharko da hartutako erabakia.

Bere xedea bete nahian, honako Amezketako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren Aurrerakina hurrengo agiriak osatzen dute:

A DOKUMENTUA. MEMORIA

A1. INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA

A2. PARTE-HARTZE DIAGNOSIA

A3. INDARREKO ANTOLAMENDUA. GARAPEN MAILA

A4. ESKU-HARTZEAREN HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

A5. BIZITEGI KUANTIFIKAZIOA

A6. ANTOLAMENDU PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK

A7. GARAPEN ETA EXEKUZIO BALDINTZAK

A8. PROIEKTUA ETA INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

A9. AZKEN ONDORIOAK. AURRERAKINAREN LABURPEN OROKORRA

DOCUMENTO B. PLANOS

B1. INFORMACION

- B1.01 KOKAPENA. LURRALDE TXERTAKETA
- B1.0 TOPOGRAFIKOA. LURRALDEAREN EGITURA ORGANIKOA
- B1.03 ERASANAK. UDALAZ GAINDIKO PLANGINTZA
- B1.04 BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. ARRISKU NATURALAK
- B1.05 BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. BALIABIDE ESTRATEGIKOAK 1
- B1.06 BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. BALIABIDE ESTRATEGIKOAK 2

B2. PROPUESTA

- B2.01 INGURUNE FISIKOAREN EGITURA OROKORRA. 0 ALTERNATIBA
- B2.02 INGURUNE FISIKOAREN EGITURA OROKORRA. 1 ALTERNATIBA
- B2.03 INGURUNE FISIKOAREN EGITURA OROKORRA. 2 ALTERNATIBA
- B2.04 INGURUNE FISIKOAREN EGITURA OROKORRA. 3 ALTERNATIBA
- B2.05 EREMU HIRITARRAREN EGITURA OROKORRA. 0 ETA 1 ALTERNATIBAK
- B2.06 EREMU HIRITARRAREN EGITURA OROKORRA. 2 ETA 3 ALTERNATIBAK

A1.5 PROIEKTUA BURUTZEKO MARKO OROKORRA

Amezketako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren berrikuspenerako lantze eta tramitazio lanei, Aurrerapen dokumentu hau barne, izaera, ezaugarri, arau maila... ezberdineko xedapen, dokumentu eta proiektuek osatutako marko konplexu batetan ekiten zaie.

Momentu honetan, xedapen, dokumentu eta proiektu hauen adierazle moduan, honakoak aipatu behar dira:

1.- Lurralde, hirigintza edota lurzoru antolamenduak:

- * Euskal Autonomi Erkidegoan sustatuak eta indarrean daudenak:
 - Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legea 2006ko ekainak 30ekoa (2/2006 Legea).
 - 2008ko ekainaren 3ko premiazko neurriei buruzko Dekretua (105/2008), aurreko Legearen garapenerako sustatua, eta aurrerago aipatzen den 123/2012 Dekretuak partzialki indargabetua.
 - 2008ko azaroaren 28ko Legea, non erkidegoak ekintza urbanistikoagatik sortutako gainbalioetan duen parte-hartzea aldatzen den.
 - 2012ko ekainaren 3ko Dekretua, hirigintza estandarrei buruzkoa (123/2012 D.)

* Administrazio Zentralak sustatua, eta Autonomi Erkidego honetan indarrean:

- Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana.

Esta norma incluye los contenidos de la Ley de Suelo de 2008 (R.D.L. 2/2008) y los referidos al ámbito de la rehabilitación, regeneración y renovación urbanas procedentes de la Ley 8/2013.

- Reglamento de valoraciones de la Ley del Suelo, aprobado mediante Real Decreto de 24 de octubre de 2011 (R.D. 1492/2011).

2.- Bestelako gaien inguruko indarreko xedapenak.

* Errepide gaietako indarreko xedapenak, besteren artean, 1989ko maiatzaren 30eko Legea, Euskadiko Errepideen Plan Orokorra arautzen duena, ondoren sarritan aldatu edo/eta osatu dena, eta 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Araua.

* 7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa.

* 20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta berau garatzeko sustatutako xedapenak.

* 3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra eta 211/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

Kontutan hartzekoa da, era berean, Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, delakoa.

* Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido delakoa eta 2005eko otsailaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretuak, lehenak aipatu Legea ingurumen zarataren kudeaketa eta ebaluaketari dagokionean garatzen duelarik, eta bigarrenak, zonaketa akustikoa, kalitate-helburuak eta emisio akustikoei dagokionean.

Xedapen horiei 213/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa gehitzea legoke.

* Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

* Ley para la igualdad de mujeres y hombres, de 18 de febrero de 2005.

* Ley de Aguas, de 23 de junio de 2006.

* Eraikuntza gaietan indarrean dauden xedapenak, Ley de Ordenación de la Edificación, de 5 de noviembre de 1999, eta Código Técnico de la Edificación barne.

* Ley de Política Agraria y Alimentaria, de 23 de diciembre de 2008 (Ley 17/2008).

* Etxebizitza gaitan indarrean dauden xedapenak, babestutako etxebizitzak, udal etxebizitza tasatuak... arautzen dituztenak barne.

3.- Amezketako udalerrirekiko eragina kontutan harturik, ondorengo lurralde-antolaketa tresnak aipatzea legoke:

- * Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Behin-betiko onarpena: 1997ko otsailaren 11. Edonola, kontutan hartu beharko da halaber Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikuspen izapidean daudela, 2018ko otsailaren 20eko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren AGINDU bidez haserako onarpena eman zaiolarik Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenari buruzko dokumentuari. Aurretik baina, 4/2016 DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, delakoa sartu zen indarrean, proiektu honetarako zalantzarik gabe berebiziko garrantzia duena.
- * Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreka ertzak antolatzeko LAP, Isurialde kantauriarra (behin-betiko onarpena: 1998ko abenduaren 22an, ondoren 2013ko azaroaren 19ko Dekretu bidez aldatua).
- * Euskadiko Errepideen Plan Orokorra (250/1999 Dekretu bidez onartua)
- * EAeko Trenbide-Sarearen LAP (behin-betiko onarpena: 2001eko otsailaren 27a).
- * EAE-Ko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko Eta Merkataritza-Ekipamenduak Antolatzeko LAP (behin-betiko onarpena: 2004eko abenduaren 21a).
- * Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegituretako LAP (behin-betiko onarpena: 2009eko uztailaren 21a).
- * Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAP (behin-betiko onarpena: 2013eko uztailaren 10a).
- * EAeko Nekazaritza eta Basozaintzako LAP (behin-betiko onarpena: 2014eko irailaren 16a).
- * Real Decreto 2591/1998, de 4 de diciembre, sobre la Ordenación de los Aeropuertos de Interés General y su Zona de Servicio, y el Plan Director del Aeropuerto de San Sebastián (Orden FOM/2617/2006).

Egundaino sustatutako bestelako lurralde-antolaketa tresnek ez daude indarrean ez direlako behin-betiko onartu (Tolosako (Tolosaldea) Lurraldearen Zatiko Plana; Etxebizitzen Sustapen Publikorako LAP; Kultura Ondarearen LAP; eta abar).

4.- Bestelako plangintza, agiri eta proiektuak.

Bestelako plangintza eta agirien lagin gisa eta berauen zerrenda itxi eta osatua eskaintzeko asmorik gabe, honakoak aipatzea legoke:

- * Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020, 2002ko ekainaren 4ean onartua.
- * Ingurumen Esparru Programa 2015-2018.
- * 168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onesten duena.
- * 169/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldea parke naturalizat jotzen duena.
- * 146/2004 Dekretua, uztailaren 13koa, Aralarko Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko dena.
- * 84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dena.
- * Aralarko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP).

A2. DIAGNOSI PARTEKATUA

A2.0 SARRERA

Arestian aipatu bezala, aurrerakin agiria idatzi aurretik, 2017ko apirila eta Abendua bitartean, idazketa taldeak udalerriko egungo hirigintza, ingurugiro eta egoera sozio-ekonomikoaren inguruko diagnosi integrala burutu du, eta honen hasierako analisi teknikoa Amezketako herritarrekin ebaluatu, eztabaidatu, zuzendu eta berretsia izan da, horretarako espreski iragarri den *Amestu Amezketa* izeneko parte-hartze prozesu baten bidez. Jarraian, diagnosi tekniko honen sintesia azaltzen da, bere osotasunean bai aurrez aurre udaletxean, bai telematikoki www.amestuamezketa.eus webgunean kontsultatu daitekeena.

Bestalde, aipatu diagnosi faseari dagokion herritarren parte-hartze prozesuaren inguruko azken txostena atxikitzen da, Amezketako herritarren egungo eta etorkizuneko kezka eta desirak azaldu eta proiektu honen xede den udal plangintza orokorrak izan beharreko funtsezko ildo eta lerro nagusiak jasotzen dituena. *Amestu Amezketa* parte-hartze prozesuak Hiria Antolatze Plan Orokorraren lanketa, tramitazio eta onartze prozesu osoan izango du segida, herritarren asmoetan adierazten diren udalerriak dituen benetako beharrei erantzuna emango dionaren azken berme modura.

A2.1 DIAGNOSI TEKNIKOAREN SINTEZIA

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra udalerrri batean egiten den ariketa kolektibo garrantzitsuenetakoa da, besteak beste, datorrena aurrez ikusi eta egoera berriari bere beharren arabera egokitzen lagundu behar duelako. Etorkizunari begira jarrita, ordea, gogoan izan behar da iraganak adierazten diguna: udalerrri baten ezaugarriak oso estu lotuta doazela bere inguruari eta garai bakoitzaren gorabeheri. Udalerrri oro bere inguruari eta garaian garaikoari zor zaio. Eta hala eraiki behar genuke geroko ibilbidea.

***ARALARKO MENDILERROA ETA AMEZKETAREN SORRERA**

Amezketako herriak Aralar mendilerroari zor dio bere sorrera, haren magalean du kokagune eta haren baliabide naturalek hornitu eta elikatu izan dute herriaren bizimodua historiaurretik gaurdaino: mendiko goi-larreek eta basoek, Arritzagako kobre meategiek (k.a. 1.500 urtetik gutxienez) edota egitura karstikoak sortutako iturburuek berebiziko eta etengabeko garrantzia izan dute herriaren garapen eta bilakaera historikoan, bakoitzaren eragina aldakorra eta gorabeheratsua izan den arren garaian garaiko errealitate politiko eta eredu sozio-ekonomikoaren arabera.

Horrela, 1409ko lehen aztarna idatzia baino lehenagotik egungo Amezketak *Bozue* (Olue, Zozue, Ozkue,...) elkargoa osatzen zuen, *Nagusia* edo *Amezketakoa* zehazki, Abaltzisketa, Baliarrain, Ikaztegieta, Legorreta eta Orendainekin batera ordezkari politiko eta (mendien) kudeaketa ekonomiko bateratua helburu zuena, azken hau *Bozue Txikia* delakoarekin (Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Lazkao, Ordizia eta Zaldibia) partekatzen zuelarik.

Beraz, egun *Enirio-Aralarko Mankomunitatea* izenez ezagutzen dena historiaurrean kokatu ohi den basoen eta goi-larreen ustiaketa bateratuaren aztarna izango litzateke, lurraldearen beraren egituraketa baino lehenago sortutako giza-komunitateek osatzen baitute aipatu batasuna.

Edonola, Nafarroako erregearen aginte bateratuaren menpe egonagatik ere, ohikoak izango ziren erabiltzaileen arteko liskarrak, Aralar Gaztela eta Nafarroako erresumen arteko muga bilakatzear nabarmen ugaritu ziren arren.

Ez dago jakiterik aipatu liskarrak izan ote ziren 1199an euskal lurralde hauen zatiketarako baldintzak sortzen lagundu zutenak, baina zatiketak gaurdaino iraun du eta ondorio ukaezinak ditu Aralarko mendilerroaren egungo eta etorkizuneko kudeaketan ere.

Dena den, Aralarko mendilerroak (egun Parke Natural eta Kontserbazio Bereziko Eremu izendapena duenak) gaurdaino gorde duen ingurumen-ondareak eta honen baitako ekosistemak lehen mailako garrantzia dute.

Horrela aitortzen dute udalaz gaindiko plangintza tresna guztiek ere (LAG, LZP, LAP). Hain da aipagarria ezaugarri hau, Amezketari Enirio-Aralar mendialdeko inguruaren ate edo sarbide izaera aitortzen diotela. Besterik da Amezketako herriak nola jokatzen duen honen aurrean.

*BIDEGURUTZE IZAERA ETA HIRI-MORFOLOGIA

Esan berri dugun honek ondorio sakon eta zehatzak izan ditu Amezketarentzat historian. Nafarroa eta Gaztelako erresumen arteko muga berrietan kokatzeak Amezketaren bidegurutze edo pasabide izaera indartu zuen. Diagnostiko honetarako landu dugun hipotesiaren arabera, horrek eragin zuzena izan du Amezketako herrigunearen hiri-morfologiaren garapenean.

Horrela, egungo San Bartolome elizaren kokapenak (ziur aski lehenagoko ermita, eliza txikiago edota gurtza guneren baten gainean eraikia izan zenak) herriaren haserako indarguneari erantzuten dio, hau da, Aralar mendilerroaren magalean kokatutako eta harengandik bizimodua ateratzen zuen jatorrizko giza asentamenduaren kokapenari, hain zuzen ere.

Aurrekoak ez du inolaz ere gutxietsi nahi garai hartan ere Amezketako “parajeak” bidegurutze edo pasabide bezala zuen garrantzia, bigarren mailako ardatz gisa bada ere. Izan ere, Ugarte auzoak eta bertako Errosarioko Amaren aintzinako elizak, hala nola, San Martingo ermitak argi eta garbi ematen dute aditzera bertatik igaroko zela Nafarroatik (Iruñetik) Villafrancara (Ordiziara) edo Tolosara, zihoan bidea bertan Gaztelako errege-bidea hartu asmoz, eta tartean Araitz bailara, Azkarate, Zarate lepoa, eta Bedaio igaro ondoren. Jakin badakigu, halaber, lurralde zatiketaren ondorioz mugaren eta bideen zaintzak garrantzia berezia hartuko zuela.

Eta zeregin horretan nabarmendu zen Amezketarren leinua, hain zuzen ere. Jauregi-haundi dorretxearen eraikuntzarekin herrigunearen indargunea bailaran beherago etorri zen eta ugariak dira liburuetan bilkura-guneen inguruko aipamenak, “Ibarluzea” delako tokian batzuetan, eta dorretxearen beraren inguruetan besteetan.

Hau da, aginte zibilaren eta erlijiosoaren egoitzak behin betiko banandu ziren, egun oso modu ez-ohiko eta deigarrian finkatuta ageri denez. Bi garai, bi geografia, bi morfologia.

1615. urtean eskuratu zuen Amezketak (beste “herri” askorekin batera) gaurdaino iraun duen hiribildu titulua. Tolosakoaren jurisdikziotik banandu asmoz, Amezketak Estatuaren (koroaren) aurrigo egoera medio “erosi” zuen bere titulua. Horretarako maileguak eskatu eta herri-lurrak besterendu egin behar izan zituen, Estatuko buruzagi ekonomikoek diseinatutako “finantza-operazio” handiaren baitan. Modu horretan, betidanik “herriarenak” ziren eta erabilera “komunitarioa” zuten lurrak herriko zein inguruetako jaun eta aberatsen esku geratuko ziren.

Aipatu egoera egungo krisiaren testuinguruan gertatzen ari denaren parekoa da, izan ere, estatuaren aurrigo-deklarazioa nahiko maiz gertatu izan baita historian zehar eta ia beti ondasun eta baliabide publikoek esku pribatu gutxirengan amaitu ohi dute, “merkealdi” prezioan.

*PAPELERAREN ERAIKUNTZA ETA EGUNGO EREDU SOZIO-EKONOMIKOA

Amezketako Aralar Papelera 1936. urtean inauguratu zen eta gaurdaino ez du bere ekoizpena eten, ezta gerra garaian ere. Esan daiteke papeleraren eraikuntza herriaren XX. mendeko bilakaera eta egungo egoera ulertzeko ezinbesteko aldagaia dela.

Izan ere, papeleraren kokapenak Aralar mendilerroak eskaintzen dituen baliabideei (uraren kalitate bikainari hain zuzen) erantzuten dion arren, haren eraikuntzak industrializazioaren aroan murgildu baitzuen bete betean Amezketako herria, eta horrek aldaketa sakonak eragin zituen mendeetan zehar garatu eta iraun zuen eredu sozio-ekonomikoan (bizibideetan, beharrezko formazioan, naturarekiko lotura ekonomikoan...), eta baita paisaia ere.

Ondorioz, esan liteke jarduera ekonomiko industrialen nagusitzearekin Amezketako herriak bizkar eman ziola Aralarko mendilerroari eta bere ingurune naturalari oro har, eta bailarara begira jarri zela behin betiko, herriaren indarguneak “beheranzko” azken bultzada jaso zuelarik. Fisikoki ere papeleraren kokapenak Ergoene eta Erdigunea auzoen arteko arrakala betikotu du, hiri bilbearen jarraikortasuna oztopatuz, errekaren estaltzea edota ingurumenarekiko beste hainbat eragin ahaztu gabe.

Ingurune naturalari begira, papeleraren eraikuntzak sortutako aldaketa sozio-ekonomikoen ondorioz Amezketako lurzoruaren erabileran eta, beraz, paisaian aldaketa nabarmenak gertatu dira: galzorian dagoen abeltzaintza tradizionalarekin lotutako larre eta iratzedi asko basogintzara bideratu dira, natur balio txikiagoko formazio hauek egun udalerraren azaleraren ia herena hartzen dutelarik.

Gauzak horrela, esan daiteke papelerak sendo eutsi diola bere funtzio sozioekonomikoari urteen joanean, baita krisi sakoneko garaietan ere. Horrek, era berean, Amezketako herritarren errenta mailan eta ongizatean baikorki eragin du.

Horrela, manufaktura industriak (papelerak, oro har) Amezketan sortzen dituen lanpostuak (225) bertako enplegu guztien %62,7 dira, sektoreko bertako landunak (168) baino gehiago, eta udalerriko balio erantsiaren %53,8 eragiten du.

Azpimarratzekoa da udalerriko Barne Produktu Gordina 37.075 eurotakoa dela eta errenta pertsonala. 19.539 eurotakoa, kopuru aipagarriak inondik ere eta laguntzen dute ulertzen zergatik langabezia batz bestekoaren azpitik dagoen (%11).

Datu hauek guztiak, iraupen luzeko langabetuena barne, erreferentziazko lurraldeetako datuen parekoak edo hobekak dira, eta gainera hobetu egin dira krisi garaian, inguruko herri eta eskualdeetan ez ordea. Papeleraren aktibitateak Amezketako egitura sozioekonomikoan duen erabateko nagusitasunak azken hamarkadetan Amezketan sortutako eredu sozioekonomikoaren ondoan, ordea, egiturako arazoak ere badira eta erronka bat baino gehiago jartzen digu aurrean, eta ez nolanhikoak.

Esaterako, 1960. urtean populazioak goia jo zuen arren (1.503 biztanle), herritarren kopurua etengabe murriztu da geroztik eta egun inoizko biztanle kopuru apalena du (941). Hau da, 57 urtean biztanle kopurua %37,4 apaldu da, eta %3,9 2012/16 epealdian. Gainera, udalerriko zahartze tasa orokorra (65 urte eta +) %21,7 da, Tolosaldeko landa eremuan baino 4,5 puntu handiagoa. Pentsatzekoa da, beraz, biztanle kopuruak apaltzen jarraituko duela.

Are gehiago, egoera irauli ezean, zahartzearen eraginez 2027. urterako Amezketak beste 60 biztanle gal ditzake (-%6,3) eta zahartze tasa %24aren inguruan koka daiteke. Izan ere, egungo ugalkortasun tasa (10,0 jaiotza mila biztanleko 2008/15 epealdian) Gipuzkoakoaren gainetik dagoen arren, nekez aurre egin ahal izango dio oso jendetsua den adineko pertsonen kolektiboari guraso izateko belaunaldien presentzia ez baita hari aurre hartzeko neurrikoa

Gainera, Amezketak migrazio saldo negatiboa du, eta hau aspaldiko fenomenoak dela pentsatzeko elementuak daude. Batetik, zahartze tasa altua eta 64 urtez beherakoen presentzia txikia, eta bestetik, emakumezkoen proportzio eskasa. Adibidez, oso deigarria da 65 eta 74 urte bitarteko herritarren artean emakumezkoak %39,5 soilik izatea, eta %43,9 aldiz 45 eta 64 urte bitartekoaren artean, joera naturalaren aurka guztiz.

Tolosaldeko landa eremuan esaterako datu horiek %46,8 eta %46,1 dira, hurrenez hurren. Pentsatzekoa da, belaunaldi hori, gerraondoko hazkunde demografikoarekin, gaztarora iritsi zenean neskame joan behar izan zuela hirietara, herrian emakume gazteentzat zeuden aukera ekonomiko murriztak kontuan hartuta. Beraz, biztanle kopuruaren bilakaerari eragiten dioten egiturako auziak bat baino gehiago dira.

Aipatutakoaren arrazoiak askotarikoak izan daitezkeen arren, esan bezala, aipatu ekoizpen egiturak, oso maskulinizatua izaki, azken hamarkadetan eragindako lan-merkatuak aukera eskasak eskaini dizkie emakumeei batik bat, baina baita formakuntza maila ertain-altuko gazteei ere oro har. Horrek, ondorioz, jaioterritik kanpo bultzatzen dituelarik ogibide bila. Eta azken hamarkadetan amezketarren formazio-mailak etengabeko hazkundera ezagutu duenez, fenomenoak areagotzea besterik ezin da aurreikusi.

Egoera honek, halaber, ondorio nabarmenak utzi ditu gizarte kohesioari dagokionez, ez-aktibitate tasa %57,9koa baita emakumezkoen artean, eta %44,3koa aldiz gizonezkoen artean. Esaterako, 30 eta 59 urte bitarteko herritarren artean, ez-aktibitate egoeran daudenen %75etik gora emakumeak dira.

Eta jakina, emakumezkoak ez-aktibitate egoeran egoteko arrazoiaren artean, etxeko lanen erantzukizuna da nagusi. Lana bai, enplegu ordaindurik ez.

Ondorioz, ez-aktibitate egoeraren feminizazioak islada zuzena du zalantzarik gabe Amezketako batz besteko urteko errenta pertsonalak nozitzen duen desorekan bestek beste. Amezketarako generoaren araberako datu zehatzik ez daukagun arren hori da joera Gipuzkako eskualde industrialenetan, beraz, Amezketan ere betetzen da arau hori.

Testuinguru honetan, nabarmendu behar da lehen sektoreak oraindik garrantzia erlatibo handia mantentzen duela, batik bat erreferentziazko lurraldeetako datuekin alderatzen badugu, azken urteotan Amezketan ere nabarmen murriztu den arren.

Horrela, udalerriko establezimenduen %34,3ak dihardu lehen sektorean (36 establezimendu, hauetatik 30 abeltzaintzako produktuak ekoizten), hau da, enplegu osoaren %5,4 eta Barne Produktu Gordinaren %2,4. Ez dago esan beharrik lehen sektoreak landa eremuaren iraunkortasunean duen garrantzia haren errendimendu monetarioaz harago doala.

Eraikuntza sektorearen indarra ere aintzat hartzekoa da, establezimendu guztien %21,9a (23 establezimendu) biltzen duelarik eta lanpostuen %7,0a (27 lanpostu), sektoreko bertako landunen (34) azpitik hala ere.

Aldiz, oso deigarria da zerbitzu sektoreak udalerrian izan duen garapen eskasa, batik bat erreferentziazko lurraldeetako datuekin alderatzen badugu. Esaterako, zerbitzu sektoreak balio erantsi gordinaren %20,5a soilik eragin zuen Amezketan 2012an, Tolosaldeko (%45,3) edota Gipuzkoako (%46,0) landa eremuetako datuetatik oso urrun.

Sektorean diharduten establezimenduak 33 dira (%31,4) eta 86 lanpostu sortzen dituzte (%24,9), sektoreko bertako 180 landunen oso azpitik beraz.

Tolosaldeko eta Gipuzkoako landa eremuetan sektoreak sortutako lanpostuak %35,0 eta %41,3 dira, hurrenez hurren. Gure ustez, egungo desoreka etorkizuneko aukera bilakatu daiteke, hazkunderako tarte handia baitu Amezketak zerbitzu sektoreari dagokionez.

*LURRALDE-ENKOADRAKETA ETA GARAPEN EREDUA

Amezketako plangintza orokor berriaren helburu nagusienetakoak beraz, arestian adierazitako eredu sozioekonomikoaren gabeziak emendatzea eta biztanle gainbehera etetea edo, ahal dela, norabidea iraultzea dira, beti ere hirigintzako tresna honi dagozkion eskumenen baitan. Izan ere, nabarmena baita hain egitasmo garrantzitsuak ezinbesteko duela alor anitzetako neurri eta erabakiak norabide berean jartzea.

Eta gainera, beharrezkoa da bere aplikazio eremuaz gaindiko testuinguruan, hau da, eskualde mailako garapen eredian, modu koherentean txertatzea, nekez erantzun ahal izango baitio erronkari Amezketak modu isolatuan. Honek, era berean galdera argia dakar, hots, zer egin, nola jokatu eskualdearekiko osagarritasunez eta aldi berean udalerraren geroan eragiten duten aldagaietan baikorki eraginez?

Horrela, Goierrik Aralar mendilerroarekiko antzinatik izan duen harremana, besteren artean, elikaduraren industriara bideratu duen bezala, Tolosaldeak ere harreman hori eguneratzeko beharra eta aukera duela deritzogu.

Zentzu horretan, lurraldea antolatzeoko plangintzak berak Amezketari aitortzen dion lurralderako sargune izaera garatzea, udalaz gaindiko edo lurralde/eskualde mailako ekipamenduak gauzatzea (publikoak zein pribatuak), zerbitzu sektorearen hazkundera sustatzea eta, bide batez, Amezketako ekonomia dibertsifikatzea, eskualdeko garapen ereduarekin guztiz bateragarria dela deritzogu.

Izan ere, nabarmena baita Amezketak garai bateko bidegurutze edo pasabide izaera galdu duela egun, mugikortasun ardatz eta teknologia berrien agerpenarekin (trena, motordun ibilgailuak...). Prozesu honetan, pasabidea Amezketan egotetik Oria bailaran egotera pasa zen eta Amezketa bazterrean.

Amezketan Oria ibaiaren arroko ardatz nagusien, N-I errepidearen eta Madrid-Paris trenbidearen alboan kokatzen da. Ez dago ordea muin-muinean, ardatzetik zazpi kilometrora baizik, benetako *cul de sac* edo "kalezuloa" osatzen duela esan daiteke, Larraitzera doan "aisialdi" trafikoa izan ezik, besterik ez baitu erakartzen.

Beraz, Amezketa bere berezitasunean indartzea Tolosaldearentzat osagarri eta aberasgarri da. Are gehiago, mugakide dituen eskualdeen, batik bat Donostialdearen eta Goierriren erakarpenetik babesten du. Amezketaren ezaugarri eta kokapena aintzat hartuz bada aukera bat baino gehiago.

Bestalde, arro estuko erreka ertzetan kokatutako eta azalera txikiko (< 1 Ha. bataz beste) industria lurzoru atomizatua duen eskualdeko testuinguruan, lurralde antolaketak azalera ertain-handiko industrialde trinkoen aldeko apustua berretsi du, industria "traktoreak" erakarri eta ertain-txikien arteko elkarlana eta sinergiak sustatu asmoz.

Ekarpen eskasa egin diezaioke Amezketak eredu horri, batetik, egungo plangintzak aurreikusitako eta garatu gabeko industria lurzoruak arestian aipatu gaitz guztiak biltzen dituelako, eta bestetik, proposatzen den garapen ereduarekiko guztiz bateraezina izango litzatekeelako, paisaiaren eta ingurumenaren ikuspegitik dituen eragin kaltegarriak tarteko.

Hori esanik, nabarmena da plangintza berriak indarrean diren erabilera industrialak finkatzeko xedea bere egin behar duela, egungo ingurumen baldintzak hobetzeko ahalegin berezia eginez beti ere.

Aldiz, lehen sektorearen sustapena proposatutako garapen ereduaren zutabeetako bat izango da, ez soilik ekoizpen egituraren duen garrantziagatik, edota bertako elikadura beharrak asetzeko ezinbesteko osagaia delako, baita paisaiaren eta ingurumenaren ikuspegitik egiten duen ekarpenagatik ere. Udalerriaren ezaugarriekin koherentea den jarduera ekonomikoak berebiziko onurak izango lituzke.

Azpimarratzekoa da era tradizionalen kudeatutako larre eta belardiek Europa mailako kontserbazio-interesa dutela eta, aldi berean, baserriaren kultura euskal paisaiaren nortasun ezaugarria dela, Amezketa bezalako landa-izaerako herri batean garrantzi handikoa.

Jakina da natur baliabideen inguruko ikuspegi kontrajarriak eta tira bira ugari izan ohi direla lehen sektorearen eta kontserbazionisten zein zerbitzu sektorean lanbidea dutenen artean (berriki Aralar mendilerroan azaleratu den bezalaxe), baina bi jarduerak bateragarri egitea eta elkar elikatzea izango da plangintza berriaren erronketako bat, beti ere ingurumenaren babesa eta iraunkortasuna oinarritzko irizpidea izanik.

Horregatik, lurzoruen ahalmen agrologikoa eta abeltzaintza eta basogintza jarduketa jasangarriak, zein hauekin bateragarriak diren eta landa-ekosistemen eta paisaiaren kontserbazioa bermatuko duten jarduketak mantentzea eta sustatzea izango da plangintza orokorra lantzerakoan aintzat hartu beharreko irizpideetako bat.

Edonola, Amezketako landa inguruneak, baserriak, arazo eta arrisku handiak ditu egun, ez ordea, Amezketakoak bakarrik. Esaterako, landa eremuko zahartze tasa oso handia da (%24,0), herrigunekoa baino are handiagoa (+4,5 puntu), eta 28 bizikidetzaren unitate bakarrik edo binaka bizi diren 65 urtez gorako pertsonen osatzen dituzte, hurrengo 10 urteetan joera areagotu egingo delarik. Honek baserriko lanaren erreleboa eta ezagutzaren transmisioa arriskuan jartzen ditu, eta erronka itzela dakar gizarte zerbitzuen alorreko politika publikoentzat.

Hala ere, lehen sektoreko enplegu bolumena %11,1 hazi da Amezketan 2009/16 epealdian, krisialdi bete betean beraz, erreferentziazko eremuetan ez bezala, eta balio erantsi gordinaren ekarpena nabarmen murriztu den arren, sektorearen etorkizuna itxaropenez begiratzeko zantzuak badaude. Bada, beraz, aukera on bat inkorporazio berriak eta jarduera berriak sustatuz baserri inguruak soziodemografikoki indartzeko.

Esaterako, Amezketako landa eremuaren dinamikotasunaren adierazle, lurzoru ez-urbanizagarria zatikatzeko gutxieneko azalera eta txabolak eraikitze baldintzak eztabaida iturri izan dira aspaldi honetan, eta plangintza berriaren baitan aztergai izan beharko dute.

Azkenik, energiaren alorrak arreta berezia merezi du atal honetan. Kontsumoaren aldean asko dago egiteko Amezketako energia iraunkorraren aldeko ekintza plana delakoaren baitan, baina bere indarraldia 2020. urtean amaitzen da eta orduan izango da planaren betetze maila balioztatzeko eta konpromisoak berresteko unea.

Papelerak aipamen berezia behar du hemen ere, udalerriko argindar kontsumo osoaren %97,1 hari dagokiolako. Atal hau ere Aralar Papeleraren inguruan egin beharreko hausnarketa orokorraren baitan aztertu beharko da.

Aldiz, ekoizpenari dagokionez aurrerapauso ausartak eman daitezkeela deritzogu, zailtasunak handiak diren arren, energiaren alorra etorkizuneko aberastasun iturri bilaka daitezkeela uste baitugu. Egun Zazpitarriko zentral hidroelektrikoak energia sortzeko 10 mila biztanleko 6.386 kW-ko potentzia instalazioa du, Tolosaldeako landa eremuaren (3.482 kW) eta Gipuzkoaren (444 kW) oso goitik. Apustuari eustea eta, ahal dela, areagotzea oso garrantzitsua litzateke, Aralarko iturburuen (ustezko) ahalmena aintzat hartzen badugu behintzat.

Baina bestelako energia berriztagarriak ekoizteko gaitasuna ere indartu beharko litzateke, izan ere, Amezketako udalerraren biomasa bidezko energia sorkuntza potentziala urtean 6.082 MWh ingurukoa baita, eta energia fotovoltaikoaren zein minieolikoaren alorretan dena egiteke baitago, beti ere ingurumenaren eta paisaiaren babesa funtsezko irizpidea izanik.

*EGUNGO ASENTAMENDU SISTEMA

Adierazi bezala, Amezketako herria izen bereko errekaaren ibilguan zehar garatu da. Txindoki edo Larrunarri mendiaren magaletik Alegiarekiko mugaraino Herrigunea eta Zubillaga, Ola, Ugarte eta Zakel auzoak aurki daitezke. Bertan biltzen da udalerriko populazioaren %80 inguru.

Amezketaren errekaaren ertzean garatu da, baina hari bizkar eman ez, haren "estolda" izaera nagusi delarik eta ingurumen balio naturalen zein biztanleriaren gozamenerako izan dezakeen garrantzia aintzat hartu gabe. Papelera da, berriro ere, horren adibide garbiena. Gainera (eta ondorioz, esan beharko dugu), azken uholdegarritasun orbanak 100 urteko birgertatze-aldiko eremuaren barnean kokatzen du Herrigunea ia osoa, eta horrek ondorio larriak ditu batik bat ekipamenduen kokapenari dagokionez, Eskolaren kasuan gertatzen den bezala.

Egungo asentamendu sistema aztertzeke garaian udalerrria bi eremutan bereiztea erabaki da: Herrigunea batetik, Ergoene, Errekalde, Kotxeta eta Kalea auzoek osatzen dutena; landa eremua bestetik, herriko sakabanatu zabalarekin batera arestian aipatu gainontzeko auzoek osatzen dutena. Izan ere, bi eremuek berezko ezaugarriak agertzen baidituzte asentamendu sistemari dagokionez.

Horrela, Herriguneko 287 etxebizitzetan (%58) 533 herritar (%57) bizi dira. Etxebizitza hauen %67,8 1951-2000 epealdian eraikia edo eraldatua izan da, eta %71,3ak 50 eta 99 m² bitarteko azalera dauka. Herrigunean 83 etxebizitza huts daude (%28,9), arestian aipatu ezaugarri berekoak gehienak (%52,5)(%60,7), baina datuetan ematen den aldeak iradokitzen du etxebizitza hutsen fenomenoaren antzinatasunari lotua datorrela. Zaharberritzeak aukera interesgarria eskaintzen du herrigunean bizileku gehiago eskaintzeko lur eremu berria artifizialdu beharrik izan gabe.

Landa eremuan aldiz, 204 etxebizitza (%42) daude, non 408 herritar (%43) bizi diren. Herrigunean ez bezala, etxebizitza hauen %37,4 1900. urtea baino lehenago eraikia izan zen, eta %19,3 2000. urtetik hona. Gainera, etxebizitzaren %63,6ak 100 m²-tik gorako azalera du, eta 47 etxebizitza huts daude (%23,0), ezaugarri orokorren oso antzekoak oro har, (%41,1)(%20,5) eta (%65,7).

Guztira, etxebizitza hutsen kopurua (%26,5) oso handia da Amezketan, baita erreferentziazko eremuen aldean ere. Neurri batean etxebizitzagatiko zorpetze-maila urriari egotz dakioke, izan ere, hipoteka ordaintzeke duten bizikidetzaren unitateak %16 besterik ez baitira. Etxebizitza ez da karga ekonomiko garrantzitsua amezketarrentzat eta ondorioz, hutsak merkaturatzeko beharra oso eskasa da.

Hala ere, bizikidetzaren unitateen %10,7 alokairuan bizi den arren, Tolosaldeako (%6,3) eta Gipuzkoako (%7,0) landa eremuen gaineratik, atzeraldi demografikoari lotutako merkatuaren eskari ahula ere izan daiteke egoeraren beste arrazoa. Azalpenak azalpen, gai honek berariazko arreta beharko luke, hortxe egon baidateke biztanleria galerari aurre egiteko gakoetako bat estrategiarekin asmatuz gero.

Edonola, Eusko Jaurlaritzaren 4/2016 Dekretua, LAGen Aldaketa, Egoitza Kuantifikazioari dagokiona onartzen duena, oso esanguratsua da plangintza orokorrari begira, izan ere, bizitegi beharraren aurreikuspenak oso modu nabarmenean murrizten baititu (-%14,7 Tolosaldearen kasuan).

Horrela, 2013an onartutako LZParen Aurrerapenak 70 etxebizitzatan kokatzen zuen Amezketako gehienezko bizitegi ahalmena, eta jada ohartarazten zuen Amezketan "lurzoru kalifikatuaren erreserbak handiagoak dira lehen zortzi urteetako gehienezko ahalmena baino; are gehiago, gainditu egiten dute LZParen beraren horizonte eperako ahalmena". Beraz, ez soilik indarreko plangintzak aurreikusitako bizitegi programak, baizik eta etxebizitza hutsek ere nabarmen gainditzen dute udalerraren bizitegi beharra.

Hala ere, Amezketako etxebizitza parkearen arazo nagusienetakoa irisgarritasunari lotua dator, batik bat biztanlegoaren zahartze-tasa altua aintzat hartzen badugu, izan ere, bizitegi eraikin gehienek ez baitute igogailurik, eta plangintza orokor berriaren indarraldian eskaera ugari erantzun beharra aurreikus daiteke.

Esandakoak, beraz, arrasto berean jartzen gaitu, berebiziko garrantzia izango du etxebizitzaren berrerabiltzeak. Herrian eraikuntza sektoreak duen indarra kontuan hartuz, aintzat hartzeko aukera bat izan daiteke.

*HIRIGINTZA ETA BIZI-KALITATEA

Ogibidea eta etxebizitza norberaren ongizaterako funtsezko aldagaiak dira noski, baina herritarren bizi-kalitatea “hiriak” eskainitako azpiegitura zein ekipamendu zuzkiduraren eta mugikortasun baldintzen arabera ere neurtzen da, nola ez, haren ingurumen baldintza eta ingurune sozio-kulturalarekin batera.

Eta Amezketak paregabeko abagunea eskaintzen du zentzu horretan, are gehiago enpleguaren edota ikasketen araberrako mugikortasunak arazo izateari utzi dionetik.

Amezketan bizi eta udalerritik kanpo lan egiten zuten landunak %66,8 ziren 2011. urtean (%60,1 2001ean) eta %100 16 urtez gorako ikasleak (%98,3 2001ean).

Hau da, gainontzeko landa eremuetan bezalaxe, Amezketan ere lan zein ikasketa mugikortasuna hazi egin da azken hamarkadetan, eta baldintza egokiak sortuz gero aukera erakargarria bilaka daiteke bertakoentzat zein hirietako biztanlegoaren zenbait segmenturentzat, esan bezala, ingurumen baldintza paregabeak eta euskararen zein euskal kulturaren nagusitasuna ia erabatekoak baitira.

Hala ere, hizkuntzaren egoera oso urrakorra da eremu euskaldunetan, azken hamarkadetan izandako atzerakadak frogatzen duen bezala, beraz hirigintza jarduerak eremu urbanoetatik erakarririk herriarrek eragindako fenomeno hau arretaz zaindu beharko da.

Amezketak lotura egokia du errepidez Alegiarekin, bertan komunikazio eta garraio ardatz nagusiekiko (N-I errepidea eta RENFEren geltokia) sarbidea bermatua duelarik, edota Tolosan ibilbide luzeko garraio publikoaren kasuan.

Hala ere, eskualdearen artikulazioak eta kohesioak asko eskertuko luke Alegia eta Tolosa arteko barne lotura berreskuratzea, Lurraldearen Zatik Planaren bertsio ezberdinek behin eta berriz aldarrikatu duten bezala.

Zentzu berean, aspaldikoa da Amezketako Herrigunetik Ugarteraino (eta Alegiaraino) errepide ertzeko bidegorria eraikitze beharra eta eskaera, erreka ertzeko auzoak artikulatzea, udalerraren barne kohesioa indartzea eta oinezkoen zein bizikleten mugikortasuna bermatzea helburu duena.

2006. urtean zabalduko saihesbideak herrigunetik kanporatu du ibilgailuen trafikoa, baina ia 11 urte igaro ondoren, bitxia da Herrigunean eragin duen zatiketa funtzionala: Abaltzisketako bidearen biribilgunetik behera trafikoa eta ibilgailuak ia guztiz desagertu diren bitartean, handik gora espazio publikoa ibilgailuz betea ageri da, eta aparkalekua arazo bihurtu da.

Horren arrazoia ekipamendu publikoen eta papeleraren kokapenari dago lotua zalantzarik gabe, baina dagoeneko agerikoa da herriko merkataritza guztia ere biribilgunetik gora metatzeko arriskua, Herrigunean desoreka nabarmena eraginez.

Izan ere, aipatu uholdegarritasunak kolokan ipini duen Eskola izan ezik, Amezketako ekipamendu publiko ia guztiak Abaltzisketako bidearen biribilgunea eta Papeleraren arteko eremuan kokatzen baitira: Udaletxea, Larrunarri pilotalekua, haurreskola, liburutegia-kultur etxea, kontsultategia, eguneko zentroa, adinekoen bilgunea eta gazte-lokala; baita diru-kutzazaina, supermerkatua, ileapaindegia,... eta herriko lau tabernetatik hiru ere.

Erdigune trinkoa nagusitzea ez da berez kaltegarria Amezketa bezalako udalerrietan, biziguneen arteko jerarkizazioa eta erdigunearen erreferentzialtasuna beharrezkoak baitira herriaren kohesioa eta gizartearen elkar ezagutza bermatzeko.

Hala ere, azken hamarkadan emandako metatze fenomeno azkarra gaitz larriago baten adierazle ere izan daiteke, hau da, atzeraldi demografikoaren testuinguruan ekimen pribatuak elkarrekiko gertutasuna eta babesa bilatu ohi du, eta Herrigunearen desoreka eta atal ezberdinen arteko haustura areagotu daiteke.

Ondorioz, ziurgabetasun guneak ere sor litezke hiri bilbean, atal honek lanketa eta azterketa berezitua beharko duen arren, batik bat, herriko emakumeen eskutik.

Edozein kasutan, udalerriko ekipamenduen zuzkidura maila oso egokia da Amezketan, baita erreferentziatzeko eremuen aldean ere, nahiz eta zahartze tasa altuak zenbait erroka eta aukera sor ditzakeen hurrengo urteetan adinekoen zaintzari dagokionez.

Atal honetan barreiatuko etxeetan eta baserrietan bizi diren adinekoek aipamen berezia merezi dute, izan ere, hurrengo hamarkadan kopurua ugaltu egingo dela aurreikusi bai daiteke.

Plangintza orokorraren baitan aztertzea izango da bakardade egoeran gelditzen diren adineko pertsonen herrigunean apartamentu dotazionalak edo bestelako bizileku bat eskaintzeak haien bizitza kalitatean izan dezakeen eragina.

Azkenik, azpiegituren alorrean, Amezketa ur zikinen saneamendua nabarmendu behar dugu ezinbestean. Izan ere, udalerriko ur zikinak Amezketa erreka isurtzen baitira oraindik, aipatu bezala, erreka "estolda" izaera finkatuz. Ez dago azaldu beharrik ingurumenarentzat, baina baita etorkizuneko eredu sozio-ekonomikoarentzat ere, erreka uraren kalitateak duen garrantzia.

Eusko Jaurlaritzaren URA Ur Agentziari dagokio Amezketa ur zikinen hodi-biltzaile nagusia eraikitzea eta berau Oriaren ibarreko biltzaile nagusira eta Adunako haraztegi bideratzea, edo bestela, Ugarte auzoan neurriko haraztegi berri bat eraikitzea.

Bidegorriaren proiektuarekin batera, aspaldiko aldarrikapena da hau, indarreko plangintzan ere iada jasoa datorrena. URA Ur Agentziari etengabe galdegin behar zaio Amezketa konpromisoa eta inbertsioa udalerrian uholdegarritasunaren inguruan ezartzen dituen baldintza eta debekuak bezain tinkoa izan dadin.

*AMESTU AMEZKETA

Zura eta ura gure industriaren oinarri zirenean, edo elikagaien produkzioa eta kontsumoa bertatik bertara egiten zirenean, Amezketa moduko herriek eginkizun nabarmena zuten lurraldean. Garai haiek ere, ez ziren errazak. Ekonomia hark gizasemeak behar zituen gehien bat.

Horrela, herri handiagotan (Tolosa) zein hiriburuan (Donostia) hazkunde ekonomikoaren abaroan, neskame, jostun, sukaldari zein dendari ugari behar izaten zen. Herri txikiak emakumeak beretzat behar zituen urbanitate berriak.

Azken urteotako bilakaerak, halaber, aldaketa nabarmenak ekarri ditu, horien artean, lan mugikortasun altua (batean lan egin eta bestean bizi), herri handienetan jendea kontzentratzea, enplegu gero eta espezializatuagoak eta enplegu gune espezializatuen kontzentrazioa.

Esan daiteke XX. mendearen bigarren erdian bizi izandako bilakaerak Amezketa ardatz periferikoetan kokatu dutela eta egun oraindik aldaketa prozesu horren ondorio kaltegarriak nozitzen ari dela (biztanleriaren zahartzea, gazteen galera, jarduera industrial berrien inplantaziorik eza...).

Kaltegarriak direla diogu udalerrira tentsio handien pean jartzen dutelako (tentsio demografikoa, soziokulturala, ekonomikoa...). Aldaketa hauen aurreko erantzunak, aldiz, errealitate berriak ekarriko ditu.

Berebiziko garrantzia du honetan industria manufakturerok izan dezakeen etorkizunak. Esan daiteke gurean industriak indartsu jarraituko badu ere, Europa osoan bezala masa galduko duela aurreko hamarkadekin alderatzen badugu. Galera horretan, besteak beste, eraginkortasun txikieneko enpresak joango dira desagertzen (kutsatzaileenak, energia gehien baliatzen dutenak, teknologia apala dutenak...). Halaber, industria alorrean gertatzen ari den berrantolamendu horretan langile gero eta kualifikatuagoak kontratatuko dituztela dio joerak, eta ez ezinbestean herrikoak.

Alde honetatik oso deigarria da Amezketan bizi diren amezketar gehien formazio maila apala eta enpresa bakar batek duen nagusitasuna. Nolabait esateko. Tolosa, Goierri, Urola, Donostialdea, Iruñerria eta Debagoienan zein Durangaldean ari dira kontzentratzen jarduera industrial berrienak.

Beraz, eremu horiek izango dira, hurrengo hamarkadan jendea erakarriko dutenak, talentu handikoak bilatuko dituztenak. Tolosaldean, esaterako, Lurralde Antolamenduko Gidalerroek zein lurzoru industrialaren zatikako planak Tolosa-Ibarra inguruan ikusten dute garapen industrial eta Amezketari aisialdiarekin lotutako jarduerak egozten dizkiote, Aralarko biotopoari erabat lotuta.

Irizpide hauek, beraz, indarrean dagoen joera historikoa berretsi besterik ez dute egiten. Horrela, azken hamarkadetan Amezketako herriari egonkortasuna eman dioten ezaugarriak (jarduera ekonomiko indartsua eta errenta maila altua) apaltzen ari dira eta are gehiago apalduko dira.

Agerikoa da Amezketaren etorkizun sozio-ekonomikoaren alde garrantzitsu bat Tolosaldearen eta Goierriren eraginkortasun ekonomikoari lotua joango dela, baina horrek ez ditu Amezketako herriak gainbeheran daramatzen adierazle guztiak onbidean jarriko, inguruan duenarekin osagarritasuna bilatzen ez badu.

Alde horretatik nekazaritzari edo aisialdiari zuzendutako jardueren inguruan sor daitezke udalerriri egitasmo koherente eta eraginkor bat eman diezaioketen aukera berriak. Energiaren inguruan ere badira halako aukerak, zentral hidroelektrikoaren inguruko planak gauzatzen badira.

Beraz, Amezketari begira jarrita egungo bere zenbait adierazle baikorrak badira ere, badira beste zenbait egiturako arazoak adierazten dizkigutenak (gazteen emigrazioa, 25 eta 59 urte bitarteko emakumeen aktibitate tasa apala edo gain zahartze indize altua urte gutxi barru).

Eta beste batzuk oso aintzat hartzekoak (negozio bolumenaren galera, adin nagusiko baserriarren proportzioa, manufaktura industriaren problematika ezberdinak...).

Izan ere, hurrengo hamarkadan gerta liteke gazteek herria uzten jarraitzea, demografikoki gero eta herri zaharragoa izatea, papelerak herritar gutxiago kontratatzea edo sektoreko gorabeherak medio bere ekoizpena aldatu, apaldu zein lekutzea.

Gauzak horrela, aurrean dugun garaiari begira ezinbestekoa da xede argi bat planteatzea. Amezketak plan estrategiko bat behar du ikuspegi integral batetik udalerrriaren etorkizunari iraunkortasun parametrotan sartzeko balio dioten interbentzio programa batekin hasteko.

Planifikazio horri begira, badira, egiturako ikuspegi batetik eta azterlan hau oinarri hartuta, ongi bideratuz gero, eragin estrategikoa izango luketen zenbait gai:

- Gazteen ihesa eten, bertan bizitzen nola eutsi.
- Egitura demografikoa gaztetu, Amezketarekin interesatutako herritar berriak nola erakarri.
- Zahartzeak lekarkeen baserriko jarduera profesionalaren galera, baserrian segida hartzeko gazteak nola animatu.
- Emakume gazteen laneratze tasa handitzeko jarduera ekonomikoa nola sustatu.
- Izaera endogenoa duten jarduera berriak sustatu, izan elikagaien ekoizpen eta transformazioan, edo aisialdiari lotutako jarduerekin (kirola, heziketa, gastronomia, osasuna, kultura, baserria, artzantza, natura...).
- Adineko pertsonen ongizatea, batez ere, bakarrik bizi direnak eta herrigunetik kanpoko baserrietan (oso feminizatutako sektorea).

Alde horretatik, aldeko aukerak egon litezke instituzio nagusien aldetik. Besteak beste Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Landagipuzkoa” egitasmoaren bitartez hurrengo urtetarako interbentzio ildoak finkatu ditu (ikus <http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/landa-gipuzkoa>) eta bateragarriak dira oso xede horrekin.

Azpimarratzekoa da biztanleriari eustearekin batera garapen endogenoari aitortzen dion garrantzia, herri txikiak zerbitzuz hornitzeko duen helburua eta azken batean udalerrri txikientzat estrategia baten egiturako osagaiak zaintzeko planteatzen duen helburua (metabolismo demografikoa egokia, zerbitzu azpiegitura osatua eta jarduera ekonomikoa nahikoa).

Gaur egun indarrean dauden planek Amezketak egin dezakeen bideari laguntzen diote, Aldundiaren aldetik biztanleriari eutsi eta jarduerak sustatzeko asmoek aukera eman dezakete programa egokiak garatuz gero babes instituzionala jasotzeko.

Gakoa, ordea, herrian bertan dago. Jabetzen al da bere egoerarekin? Ba al dago aski masa kritiko egoera berri baterantz behar diren indarrak mobilizatzeko eta ildo estrategikoetan egitasmo iraunkorrekin eragiteko? Masa kritiko bat artikulatzea eta konprometitzea ezinbestekoa izango da Amezketarrek bere geroa ikuspegi jantziz irudika dezaten.

Amezketak erronka handiei egin beharko die aurre gaurtik hasi eta hurrengo hamarkadetan zehar, baina aldi berean, historiaurretik lagun izan duen inguruneak, hala nola amezketarren ekimenak sortutako baldintza sozio-ekonomikoez, aukera itzelak eskaintzen dituzte gaur egun ere.

Ez gara hutsetik hasten, egungo baliabideak erabiltzea ezinbestekoa da, baina hori bezain beharrezkoa du Amezketak bere ingurunearekiko harremana berraztertu eta eguneratzea, XXI. mendeko testuinguru aldakorrek ezartzen dituen eskakizunetara egokitzea, eta bere lurralde eremuaren garapen eremuan modu koherente eta eraginkorrean txertatzea.

Nabarmena da Hirigintzak soilik ezin diola erronkari erantzun, alor ezberdinetako erabakiak behar direla, baina batik bat, ezinbestekoa da egungo Amezketarren parte-hartzea eta konpromisoa, hurrengo hamarkadetako Amezketa amestea eta eraikitzen hastea.

Herritar guztiak dira zeregin honen protagonista, guztiak dira beharrezko, baina batez ere, espazio publikoan ahotsik izan ez dutenei eta etorkizuneko Amezketa osatuko duten gazteei deliberazio eremu bereziak eskaini behar zaizkie.

Lantalde honen eginbeharra eta konpromisoa amezketarrak bide horretan laguntzea eta haien erabakiak araudi berrira eramatea izango da.

A2.2 HERRITARREN PARTE-HARTZEA: AMESTU AMEZKETA

Amestu Amezketa herritarren parte-hartze prozesua 2017ko iraila eta Abendua bitartean garatu zen, erabat euskaraz, Amezketako gizarte eta hizkuntz errealitateak eskatzen duen moduan, ia bere osotasunean euskalduna den biztanleria izaki.

Horretarako baliabide material eta giza-baliabideak aurreikusi baziren ere, ez da inolako itzulpen edo esku-hartzerik behar izan, ezta inolako euskarririk euskaraz bestelako hizkuntzan lantzea ere, ez bait du inork halakorik eskatu.

Ondorioz, aipatu parte-hartze prozesuari dagokion azken txostena jatorrizko bertsioan, hau da, erabat euskaraz, transkribatzen da ondoren.

AMESTU AMEZKETA 01 urratsa DIAGNOSI PARTEKATUA

1_AURREKARIAK


Amezketako Plan Orokorraren idazketa lanaren lehen urrats bezala abiatutako prozesua da *Amestu Amezketa*.

Plan Orokorraren Diagnostika idazteko garapen teknikoak hiru hanka ditu: Hirigintza, Sozio-ekonomia eta Ingurugiroa.

Arlo bakoitza garatzeko arduradunak Astazaldi. Arkitektura eta Hirigintza Estudioa, Gaindegia. Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako behatokia eta Ekolur. Ingurumen Aholkularitza dira hurrenez hurren.

Alor bakoitzetik osatutako lanketak Aurrediagnostika Teknikoa osatu zuen 2017ko uztailean emandako txostenean. Hori oinarri Amestu Amezketa prozesua jarri zen martxan jakintza teknikoak eta herritarren esperientziak orekan jarriz Diagnostika Partekatua lantzeko.

Ondorengo eskemak azaltzen duen moduan, dokumentu honek eginiko Deliberazio Momentu eta Guneak deskribatzen ditu, hauek izan baitira Diagnostika Partekatua oinarri eta ondorioz Plan Orokorraren idazketaren gidari. Proposatzen den parte hartzeak Demokrazia Deliberatiboa onartzen du politika publikoak garatzeko tresna gisa.



2_ METODOLOGIA

Deliberazio guneak eta momentuak diseinatzeko, beti ere, ahots ezberdinak eta, batik bat, iritzi gutxiuak hartu nahi izan dira kontuan. Aurrerago ikusiko den moduan gai espezifiko batzuen inguruko lanketa gehigarria egin da guztien ahotsa maila berean entzuteko aukera izateko.

Deliberazioaren helburua kontsensuan oinarritzen denean beti agertuko da esklusioa, beti ezkutaraziko da bestea, ezberdina edota gutxiengoa. Horregatik, akordioak lortzeaz gain, prozesuaren helburua desadostasunak publiko egitea da, batez ere.

Adostasunak Politika Publikoak erabaki eta modu eraginkorrean martxan jartzeko baliatuko dira; desadostasunak aldiz, Espazio Publikoan eztabaidatuko diren gaiak azaleratu eta, azken finean, araudi bizi (eta ez itxi) bat sortzeko.

Erantzukizun partekatuaren arduraz jabetzea izan dute deliberazio mahaietan eginiko teknika ezberdinek. Metodologiak datozen oinarriak izan ditu:

- Erabakiak aurrera eramango diren konpromezua
- Akordioak guztion artean partekatzea
- Akordioak indartsuak eta iraunkorrak izatea
- Desadostasunak azaleratzea
- Erantzukizun partekatua sustatzea

2.1 AURREDIAGNOSI TEKNIKOA

Dokumentuaren haserako eskemak agertzen duen bezala, Aurrediagnosi Teknikoa 3 arlo nagusiak uztartuz osatu da, hirigintza, sozio-ekonomia eta ingurugiroa arloak alegia.

Era berean, Aurrediagnosia garatzen joan den heinean, elkarrizketa ezberdinak egin zaizkie Amezketako eta kanpoko herritar edota eragile jakin batzuei. Elkarrizketa hauek Amezketak dituen erronken lehen zirriborroa marraztu digu.

Aurrediagnosia Aletzen:

Aurrediagnosi Teknikoak informazio trinkoa eskaintzen digu. Sarrera gisa sintesi dokumentua aurki dezakegu. Bertan, zazpi kapitulok osatutako Amezketaren irakurketa jasotzen da. Zazpigarrenean laburbiltzen dira Aurrediagnosiak mahai gainean jartzen dituen kezka eta erronka nagusiak:

_Gazteen ihesa eten, bertan bizitzen nola eutsi.

_Egitura demografikoa gaztetu, Amezketarekin interesatutako herritar berriak nola erakarri.

_Zahartzeak lekarkeen baserriko jarduera profesionalaren galera.

_Emakume gazteen laneratze tasa handitzeko jarduera ekonomikoa.

_Izaera endogenoa duten jarduera berriak: elikagaien ekoizpen eta transformazioan, edo aisialdiari lotutako jardurekin (kirola, heziketa, gastronomia, osasuna, kultura, baserria, artzantza, natura...).

_Adineko pertsonen ongizatea, batez ere, bakarrik bizi direnak eta herrigunetik kanpoko baserrietan.

Elkarrizketak Aletzen:

Aurrediagnosia garatzen joan den heinean Amezketar eta kanpo eragile ezberdinekin elkarrizketak egin dira. Elkarrizketa hauen helburua Aurrediagnosi Teknikoak azaleratzen zituen kezkak kontrastatzea eta erronka berriak detektatzea izan da. Hauek dira besteak beste azpimarratu diren gaiak:

- _Aurreko Arauek baimendu baina garatu gabeko unitateak
- _Enplegu dibersifikazio eza eta ekimen falta
- _Etxe hutsak eta baserrien errelebo falta
- _Eraikin zahar askoren irisgarritasun eza
- _Zerbitzu sektore berri baten aukera
- _Erreka
- _Bidegorria lotura berrien aukera
- _Eskola

2.2 DELIBERAZIO GUNEA

Deliberazio guneen diseinuan aurrediagosiaren datu eta sintesiak dira oinarri. Diagnosi sozioekonomikoak agerian uzten digu Amezketako (eta orohar Amezketaren egitura antzekoa duten herrietako) emakumezkoen hitza izan dela gutxituena. Zaurgarritasun egoera nabaria da emakumeena Amezketa bezalako herrietan. Hau dela eta “Emakumeak erdigunean” ekimena abiatu zen Amezketako emakume talde baten bitartez haien esperientziak eta diagnostia jasotzeko asmoz:

2.2.1 _EMAKUMEAK ERDIGUNEAN. (urriak 21)

Emagin elkarteko Naroa Argoitiak zuzendu zuen “Emakumeak erdigunean” ekimenaren lehen saioa. Lehen saio honetan jarritako helburuak bigarren saio batetarako utzi ziren lehen bilkuraren eztabaida bakoitzaren esperientzien inguruan zentratu zelarik. Emakumeen zentraltasun falta eta haien ahotsa espazio publikoan agertzearen zailtasuna agerian agertu ziren.

2.2.2 _AURKEZPENA eta SENTSIBILIZAZIO JARDUNALDIA. (urriak 27)

Urriak 27 arratsaldez prozesua aurkeztu eta talde tekniko bakoitzak eginiko diagnosiak partekatu ziren. Diagnostan agertzen diren bi gairen inguruko hausnarketa sakontzeko bi gonbidatu izan genituen: Joseba Garmendia ekonomialaria tokiko garapen endogenoetz aritu zitzaigun eta Ula Iruretagoiena arkitektoa lurraldetasuna eta turismoari buruz.

Talde teknikoen aurkezpenak:

+ Hektor Espin, Astazaldi Arkitektura eta Hirigintza estudioa:

Hektor Plan Orokor batek dituen xedeei buruz aritu zen lehenbizi. HAPOaren egitekoa herriko lurzorua antolatzea besterik ez dela onartuz.



Aldiz, abiatu den prozesuak lurzoruz hitz egin baino lehen tartea ematen dio demografiari, sozio-ekonomiari edota gizarte desorekari. Azken finean, herriaren antolaketa denon etxearen antolaketarekin alderatuz, lehenik etxea nola dagoen eta etorkizunera zer nolako eredu nahi dugun aukeratu behar baita.

“Lurralde edo territorio kontzeptuak definizio ezberdin eta anitzak ditu, baina guri dagokigunez, gizartea/komunitatea eta bere bizi den medio edo lurzoruaren arteko erlazioa/harremana da. Harreman horren baitan, bere lurraldeak eskaintzen dizkion baliabideak erabiliaz, garaiak eta inguruneak eskatzen dionari erantzun eta aurrera egiteko gizarte edo komunitate batek duen gaitasuna funtsezkoa da. Izan ere, komunitatea eta medioaren arteko harremana aldakorra eta hauskorra da, eta lurraldearekiko hartzen diren erabakiek eragin zuzena dute, berehalakoa ez bada epe ertain eta luzera, komunitatearen iraupenean, onerako edo txarrerako... Gure ustez, unea da Amezketako lurraldea/territorioa birpentsatzeko, hau da, Amezketako herriak bere medioarekin duen harremana, eta batez ere, etorkizunean izan nahi duena irudikatze eta adosteko. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra harreman horren zerbitzura dagoen tresna bat besterik ez da.”

+ Leire Paz, Ekolur Ingurumen Aholkularitza:

Leirek Amezketa eta bere inguruneak dituzten ezaugarriak azaldu zituen, altxor naturalak gehienbat. Paisaia mosaiko bezala irudikatuta garai ezberdinetan izan dituen zuhaitz masa eta larreak erakutsi zituen, eta ondorioz arriskuan dauden espezieak seinlatu ere.

Aurkezpena amaitzeko, Leirek ondorio gisa aurkeztu zituen datozen ildoak:

“Amezketako natur-ondareak lehen mailako garrantzia dauka: besteak beste, interes geologikoko 4 eremu aurkitzen dira bertan, Amezketako mendia kalitate oneko ur gordailua da, mehatxupeko hainbat fauna eta flora espezie ezberdin bizi dira, kontserbazioaren intereseko habitatek azalera handia hartzen dute eta udalerrri osoa dago EAEko Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoan sartuta bere paisai-balio altuagatik.

Altxor hauek Parke Naturelean pilatzen badira ere, honen mugetatik kanpo ere aurkitzen dira, Europa mailan intereskoak diren sega-larreak esaterako.

Eredu sozio-ekonomikoak ingurunearengan eta natur-ondarearengan eragin zuzena dauka lurzorua erabileran aldaketak eragiten dituelako: azken hamarkadetan, adibidez, industriak gora egin ahala, baserriaren abeltzaintza eta nekazaritza modu tradizionalak behera egin zuten eta ondorioz lehen larretarako edo iratzetarako erabiltzen ziren eremu asko, baso-landaketez betetzen hasi ziren, biodibertsitatean eta paisaian inpaktua eraginez.

Plan Orokorrean lurzoru ez urbanizagarria ere antolatu beharko denez, prozesu hau Amezketak bere ingurunearekin duen harremana berrikusteko aukera egokia da.”

+ Imanol Esnaola, Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behatokia:

Gaindegiak egin duen egoera sozioekonomikoaren erradiografia azaltzera, Imanolek honakoak nabarmendu zituen:

“Amezketak bizi duen egoera ezaguna da Gipuzkoan. XX. mendeari dagokionez ekonomia oso industrializatu batek enpleguen maskulinizazio handia eragin zuen eta hein batean emakume askoren exodoa hiri handiagoetan lan bila. Horrek herriak ahultzea dakar.”

Amezketak 60 urte daramatza bide horretan eta horrek erronka batzuk dakartzala azpimarratu zuen:

- Biztanleria errotzea, lehenik bertako gazteen galera eten eta itzulera lortzea.
- Jarduera ekonomiko berriak abiatzea, bertako herritarrentzat enplegua sortuko dutenak orain indar gutxi duten sektoreetan.

“Zer egin?” galdetutakoan lehentasun hauek aipatu zituen:

- Herritarrak jabetzea egoeraren joera aldatu behar dela eta horretarako beharrezkoa direla jabetzea eta ekitea.

-Hirigintza planeamendu batek lagun dezake bide horretan, baina jarduera sozioekonomikoek plan estrategiko

baten beharra ere badute

-Ekintzak aurrera eramateko beraz, beharrezkoa da herri mailan masa kritiko bat gorpuztea, aliantzak eginez sektore zein adin-taldeen artean. Lankidetzak diferentzia askoren gaintetik egon behar du.

Aurkezpena amaitzeko, honako aukeren inguruan egin zuen hausnarketa:

-Amezketan badago hainbat aukera eta premia. Horiek aztertu beharra dago zer egin eta norekin egin erabakitzeko. Esaterako:

-Gazteen artean herrian bizitzen geratzeko ilusioa eragiteko aukerak badaude. Amezketak oraintxe eskaintzen duen bizimodua oso interesgarria gertatzen delako belaunaldi berrientzat.

-Etxetik hurbil jarduera ekonomikoa behar duten emakumeen kasuan ere badago beharra eta aukera ere bai.

-Esan dezakegu, baserritar profesionalen sektoreak ere indarra baduela herrian eta hor ere badela aukera bat pauso berriak emateko.

-Ura, basoa, Aralar parkea... hainbat dira Amezketak bere bereak izan eta beste inork eskaini ezin dituenak. Beraz, hor bada elikadura, osasuna edo aisialdiarekin lotutako aukera ugari.

-Politika instituzionalek Amezketari norabide horretan joateko aldeko irizpideak ematen ari dira (bai Foru Aldundia, bai Eusko Jaurlaritzza, bai eskualdeko Garapen Agentzia). Gauzak horrela, ezinbesteko elementu bat behar da, Amezketak bere buruarengan konfiantza izan behar du eta bide berriak urratzera abiatu. Amestu

Hiru talde teknikoek aurkezpenak entzunda, lehen gonbidatuaren txanda izan zen.

+ Joseba Garmendia, ekonomialaria eta Unibertsitateko irakaslea tokiko garapenari buruz aritu zen:

Josebaren hitzaldiak lehen zatian marko teoriko bat ezarri zion gaur egun tokiko garapenak dituen eszenarioei. Hortik aurrera bi eredu aurkeztu zituen haietatik Amezketarako baliagarri izan zitezkeen irakaspenak azaltzeko. Ereduetan sartu baino lehen ohar bezala aipatu zuen Josebak ez dela nahiko parte hartzea sustatzea, parte hartze prozesuan ideia on hamaika aterata ere, haiek ereiteko "baratza"rik ez badago ez duela arrakastarik izango.

Lehen eredu bezala Lea ibarreko kasua aukeratu zuen. Inor gutxik industria proiektu arrakastatsua izango zuen tokian ekintzailetasun kooperatiboaren bitartez lortu zuten bailarako ekonomia suspertu eta enpleguaren eboluzioa hankaz gora jartzea.

Bigarren ereduak Zerain izan zuen kasu bezala. Lean bezala, oinarrian kontzientzia soziala eta bizitza kalitatea hobetzea ziren ardatzak:

- Etxebizitza kooperatiba
- Herri eskola berreskuratzea
- Kultura taldea osatzea
- Udalgintza lan ildo berezia
- Auzolana berreskuratu eta berbideratu
- Baserrietara elektrifikazioa, telefonoa, errepideak, eta abar
- Gaitasun endogenoen sustapena

Ardatz hauetaz gain, momentu batetan, 1985garren urtearen bueltan, ondare materialaren jabetze bat gertatzen da. Baserrietan gordeta ziren lanabes eta bestelako elementuak erakusgai jarri eta jendearen interesa piztu zen. Josebak zioen honek sortu zuela halako "zirkulo bertutetsua" eta honekin batera jarri ziren martxan:

- Ondarea berreskuratu eta balioan jarri
- Turismoa erakarri: Zerain Parke Kulturala
- Turismorako zerbitzuak (ostatuak, museoak, bisitak...)
- Artisautza-manufaktura ekonomia (gazta, oilaskoak, mermeladak...)

Eginiko ibilbidean ekintzailetasun komunitarioak du garrantzia eta garapena sustatzeko Herri batzarra, udaletxea eta Zerain Dezagun fundazioaren elkarlana izan da ezinbestekoa. Eta amaitzeko, Josebak honako irakaspenen zerrenda azaldu zuen aukeratutako kasuetatik ondorio gisa:

- Tokiko eragile, pertsona eta gizarteak bere gain ardura eta protagonismoa hartu. Mentalitate aldaketa.
- Gizartearen kohesioa eta inplikazioa zutoina da.
- Abantaila lehiakor eta imitaezinak eraikitzeke argamasa gizarte-kapitala da, hots, elkarlana, konfiantza eta leialtasuna sendotzen duen aktiboa.
- Gutxieneko adostasunak posibleak dira ideologia ezberdinen artean. Legitimazio prozesuak.
- Garapenak dimentsio anitzak baditu ere derrigorrez oinarri material produktiboa izan behar du denboran sostengarria izan dadin.
- Arrakastarako formula magikorik ez dago. Hala ere, lokaztu gabe, ezin asmatu.
- Zer egin baino lehen, nork eta nola egingo duen. Arkitektura operatiboaren beharra. Ideiak eta baratza.

+ Ula Iruretagoiena arkitektoa eta EHUko irakasleak, lehen eguneko saioari amaiera emateko, lurraldearen turismoari buruzko hausnarketa eskaini zигun.

Ulak lehen momentutik gogora arazi nahi izan zuen Lurralde Antolamendurako Artezpideek zehazten dutela Amezketa Aralarko parke naturalerako sarrera bezala definitzen dutela. Ulan esanetan, *“honek behartzen dio Amezketari parke naturalaren balioaz eta turismoaren ustiapenaz pentsatzea”*. Hemendik abiatuta turismoaren arriskuak aurkeztu zituen Ulak, turismoak lurraldearen ezaugarriak aintzat hartzen ez dituen kasuak eta tamainaz kanpo egiten diren bestelako kasuak erakutsi zizkigun.




Azken finean, turismoa zerbitzuen kategorian sailkatuta badago, biztanleriaren beharrei erantzuteko funtzioa du definizioz. Eta Ulak aurkeztu bezala turismoak udalerraren beste zerbitzu sareen parte izan beharra du, ezin da modu isolatuan ulertu. Gainontzeko zerbitzuekin batera sinergiak sortuz lurraldearen ekonomia eredu berri bat osatzeko gaitasuna du: *“Turismoa lurraldea eta lurraldetasunari lotua dago; turistak lurralde baten nortasunaren irudia eta esperientzia eramaten du etxera.”*

Bestalde, Ulak gogoratu zuen bezala, Turismoa emakumea emanzipatzeko bidea izan daiteke baita ere: *“Emakumeak lurraldearen zerbitzu asko burutzen ditu etxeko espazioan eta soldatarik gabe. Emakumeak etxean burutzen dituen zerbitzuak turismora bideratzen baditu (saltoa emateko erraztasunagatik), bere rol paperarekin puskatzeko aukera du: autonomia ekonomikoa eta ahalduntzea lortu dezake.”*

2.2.3_7 AMETS GIDARI. (urriak 28)

Urriak 28 goizez Amezketako plazan elkartu eta herrian zehar ibilbidea egin zen. Ibilbidean zehar ibaiaren egoera, Zubillaga gunea, Ugarte, eskola eta Ergoiena bisitatu ahal izan ziren. Ibilalditik bueltan bi taldeetan banatu ziren lan mahaiak 7 AMETS dinamika osatzeko. Teknika honen helburua lehen ideia nagusiak adostea da, prozesuari markoa ezarriko dioten ideiak.



Mahaikide bakoitzak eginiko hausnarketatik beste kideekin eztabaidatu eta 7 amets nagusiak adosteko ariketa egin zen. Partaide guztiak elkartuta mahai bakoitzeko emaitzak aurkeztu eta dokumentu honen bitartez uztartu dira haien emaitza bateratuak:

1_BIZI PROIEKTUA

Herritar guztien bizi proiektua bermatu behar duen herria bihurtu behar da Amezketa. Gazteak eta talentua eutsi, adinduek zaindu eta emakumeak erdigunean.

2_EKIPAMENDUAK

Kirolguneen gabezia eta eskolaren leku aldatzea.

3_ARALAR ONDARE

Aralar berriz ere deskubritzeke dago herritarren autoestimu berri bat sortzeko. Berau ezagutarazteko ibilbideak berreskuratu eta inguruko altxorrenaganako atentzioa jarri beharko litzake: Goiko errota, Bixentenea, Minak, Iraegi...

4_IBAIA

Amezketara ibaia biziberritu, paseo jarraia, espazio publikoak eta aisialdi guneak sortuz.

5_LOTURAK

Bidegorriaren beharra auzoak lotzeko ibilbideen bitartez (Zergatik ez Alegiraino?). Honekin batera ur-zikinen arazoa konpondu.

6_ETXEBIZITZA KULTURA BERRIA

Gazteak herrian eusteko alokairua bultzatu, etxe hutsei errekaragoa eta alokairuari erraztasunak jarritz. BASERRIAK biziberritu, lur zatiketei gutxieneko lursaila txikituz eta baserri bakoitzeko etxebizitza kopurua aztertuz.

7_EKONOMIA

Ekonomiaren dibertsifikazio beharra. Jarduera txikienezako tokiak erraztu bai herrigunean eta baita landagunean ere. Garapen endogenoa sustatu. Energia eta elikadura burujabetasunerako baliabideak ezarri.

*Lan mahai bakoitzean amets edota nahi gehigarri bat agertu zen:

_Ergoiena auzoa herri eredu bezala seinalatzea bere izaera urbanoak duen berezitasunagatik.

_Nork bultzatu behar ditu Ametsak? Gazteek. Beraz gazteak erakartzeko ahaleginean jardutea ezinbesteko.

2.2.4_EMAKUMEAK ERDIGUNEAN. 2º saioa (azaroak 12)

Emakumeak erdigunean bigarren saiorako aurrekoan aintzat hartutako baloraziotik hasita beraien ahotsa plazaratu eta partekatzeo dinamika gauzatu zuten Emagin-eko Naroa Argoitia eta Ula Iruretagoienak laguntzarekin. Gai gehienak, Amezketa pertsonen arteko harremanetarako espazioa egokiak sortu eta harremanak indartzeko ekintzen inguruan joan ziren. Horretarako lan-ildo hauek proposatu ziren:

EMAKUMEEN ESPAZIO-MUGIMENDUAK AMEZKETAN

- Udalerriko kokaleku desberdinetako pertsonak harremanean jartzeko, funtsezkoa da beste pertsonekin aurkitzeko egin beharreko oinezko ibilbideak seguruak izatea, autoengandik bereiztuak eta bide propioarekin.
- Egun existitzen diren oinezko bideak txukundu.
- Amezketa erdiguneko kalea, peatonalizatzeko aldaketak egin badira ere, oraindik ez da umeentzako leku segurutzat jotzen (kalea moztu zitekeen aldiro).
- Seguruak ez diren gunek identifikatu dira: papeleratik elizaraino luzatzen den bide zatia eta Ugarte.
- Kotxe pribatua ez den beste garraio sistemaren bat eratu.

EMAKUMEEN AKTIBITATEAK AMEZKETAN

Kirol aktibitateak

- Beste udaletan eskaintzen diren kirol aktibitate eta ekipamenduak aprobetxatu zitezkeen, interesen arabera autobus bat bete daiteke Amezketako kirol eskaintza hobetzeko.

Kultur aktibitateak

- Haur txoko baten sorrera aurreikusten da, zaintza-partekatuak sortzeko aukerak irekiko lukeena eta arazoak partekatu oro har. Haur txokoa erdigunean egon beharko luke.

AMEZKETA, ZAHAR-HERRIA

- Preokupazio handia dago, Amezketarren zahartzea dela eta. Nork zainduko du udalerraren biztanlego zaharra? Zaintza politikaren erdigunera ekarri behar da eta horrekin batera emakumea zaintza-figuraren inguruko hausnarketa egin.

EMAKUMEEN ARTEKO PROIEKTU AMANKOMUNA AMEZKETAN

- Egun aktibitate soziala tabernetan gertatzen da, gizonaren espazio identitario gisa ulertzen dena. Espazio erreferentzial bat sortu behar da non emakumeak biltzeko eta antolatzeke aukera duten, herrigintza emakumeen eskuetatik saretzen hasteko. Espazio hau Amezketako erdigunean kokatuta egon beharko luke.

BERDINTASUNEKO ESPAZIOAK AMEZKETAN

- Hezkuntza programaren bat txertatu behar da Amezketako eskolan.

LANDA EREMUA AMEZKETAN

- Baratza lanetan disfrutatzen duten emakumeak daude. Aktibitate hauek babestu behar dira.
- Kontsumo talde baten proposamena egin daiteke.
- Azoka bat sortu bertako produktuen salerosketarako.

2.2.5_GUZION MAPA. (azaroak 17)

Dinamika honetan herritar perfil anitzak bertaratu ziren. Aurreko saioetan izandako eragile, herritar eta ordezkarietz gain gazte ordezkarietza zabala eta emakumeen taldekoak ere parte hartu zuten.

7 Amets gidariak oinarri hartuta, (eta hauei egin beharreko zuzenketa edota iruzkinak eginda) Amezketako mapan kokatu ziren herritarrentzat gogoko diren espazioak eta gatazka guneak. Ametsak espazializatzeko lehen pausu bezala ulertzen da eginiko dinamika: Amezketarren GUZION MAPA osatu.

Talde mahai ezberdinetan banatuta mapetan seinalatu ziren herriko toki gogokoenak lehendabizi. Bestalde, beste kolore bate erabiliz markatu ziren gogokoen izateko ahalmena duten haiek ere.

Agertutako tokien alderdi positibo eta negatiboak eztabaidatu eta jarri zituzten mapetan. Hausnarketan, aukeratutako toki ezberdinek herriari egiten dioten aportazioa eta etorkizunera egin diezaioketenari buruz aritu ziren.

Egungo dinamika bukatzeko urriak 28-ko dinamikan osatutako 7 amets gidariei ekarpenak egin zitzaizkien:




2.2.6_GUZION MAPA BATERATUA. (azaroak 18)


Azaroak 18an goizez, aurreko egunean osatu ziren mahai bakoitzeko mapa-diagnosiak bateratu ziren. Mapa bakoitzean agertutako eremu eta tokiak banan bana partekatu ziren talde bakoitzeko proposamenak jaso eta mapa bakar batera pasatzeko. Ondorengo orrialdean jasotako mapa bateratua:



AMEZKETAKO GUZTION MAPA BATERATUA:



3_ ITZULKETA SAIOA



Abenduak 1 arratsaldean egin zen Itzulketa saioa. Prozesuan eginiko urrats eta dinamika ezberdinetan eginiko hausnarketak eta emaitzak partekatu ziren. Mapa bateratuan agertu diren eremu eta tokiak banan-banatu azaldu ziren:

01_ERROTA – APATXE ingurua

- Herritarren aisialdirako toki aproposa
- Erreka eta ingurua atontzeko beharra
- Errota martxan jarriz Proiektu Hezitzaile bilakatzeko aukera
- Bertatik pasa eta abiatzen diren ibilbideen informazio gune izateko aukera

02_ERGOIENA

- Zahartzen doan auzoa da
- Irisgarritasun arazoak ditu, plan baten beharra.
- Zerbitzu berriak jartzeko aukerak dituen auzoa (Aterpetxe bat adibidez)
- Eskola leku aldatuz gero bertan kokatzeko aukera
- Autobus geltokia arriskutsua
- Autobus ibilbidea San Martinera doan luzatzeko aukera

03_GR-20 IBILIBDEA

- Ergoienatik San Martinera doan bidea berreskuratu beharra dago GR20 ibilbide dela gogoratuz

04_SAN MARTIN INGURUA

- Parkeko Atea izan daitekeela kontsideratu
- Lehenik bertakoen toki bezala atondu
- Bigarrenik zenbat bisitari hartzeko gaitasuna duen aztertu eta ondorioz:
 - Turismo Plan baten baitan:
 - Zerbitzuak eta zaintza garatu
 - Mendizale eta bisitarien ostatu baten aukera
 - Ibilbideen abiapuntu bezala pentsatu: Informazioa eta ibilbideen ezaugarriak.

05_HERRIKO IBILBIDEAK

- Herriko ibilbide periferiko eta baserrien arteko loturen egoera eta egokitze beharrak aztertu

06_ESKOLA

1_Lekuz aldatu beharko balitz:

- Ergoiena auzo "hiltzeko" arriskua
- Eguzkitsuago den toki batetara aldatzea
- Uzten diren eremu eta eraikinak kirol ekipamendu eta "Ekimen berrien Haztegi" bihurtu

2_Bertan mantentzen bada:

- Aparkamendu eta Autobusa geltokiak aldatu

07_KALEA ETA ERGOIENA ARTEKO LOTURA

-Iluna da eta espaloia zabalera estua

-BARRERA SIKOLOGIKOA

-Oinezko ibilbide egoki bilakatzeko zer eskatu diezaiokegu Papelerari? (nork eta nola?)

-Espaloia zabaldu eta erreka agerian uzteko aukerak aztertu

08_PORTERIAKO BIDEGURUTZEA

-Kamioi eta ibilgailuek dute lehentasuna

-BARRERA SIKOLOGIKOA sortzen da hemendik hasita Eskola ingururaino

09_PLAZA

-Plazaren inguruan herriko etxe huts gehienak konzentratzen dira.

-KOTXEEKIN ARAZOA

-Tarteka ibilgailuei mozketak egiteko aukera soilik oinezkoak erabiltzeko aukera izateko

-Altzarien antolaketak ez ditu harremanak errazten

-Dauden ekipamendu eta lokalen ber-azterketa behar da:

Haur eskola izandakoa, kultur etxe 2º solairua....

Beharrezko espazioak:

-Emakumeen bilgunea

-Gazte lokala (aisialdirako eredu berria)

-Gimnasioa

-Ludoteka

10_MOTA

-Larraitzbideko abiapuntu izanik garbiketa baten beharra dauka.

-Jolas espazio bezala bilakatzeko aukera plazarekin duen gertutasunagatik

-Baratzak zesioan jartzeko aukera

11_BELTZAREN PLAZA

-Larraitzetik behera datorren errepideak arriskua sortzen du jolas plazarekin

-Babes berriak jartzeko beharra

12_BIRIBILGUNEA

-Biribilguneak Bartolome Deuna kalearen jarraitasuna eteten du

-Inguruan den aktibitateak ikusita biribilgune izatetik plaza izatera aldatzeko aukera

13_ BARTOLOME DEUNA (beheko zatia)

- Argiteria eta berde falta nabaria
- Ume gehien bizi den eremua
- Kalea norantza bakarrekoa izateko aukera
- Kalea norantza bakarra jarriz ordenazioz kanpo ziren etxeak bere bertan uzteko aukera
- Lokal komertzial zirenak garaje bihurtuta daude. Kalearen erabileran eragiten du
- Ekimen berriak kokatzeko aukera

14_ JAUREGI

- Toki eguzkitsu eta egokia, zertarako?
- Etxebizitza proiektua dago aurreikusia
- Herrian diren etxe huts kopurua ikusita, beharrak eta estrategia berriak modu integralean aztertze beharra
- Eskola jartzeko aukera

15_ LASAIGUNEA

- Erreka ondoan egoteko toki egoki eta eguzkitsua
- Lasaitasun eremua
- Gimnasia aktiboa egiteko aukera eremua

16_ ZUBILLAGA

- Aurreko arauetan lurzoru industrialak garatzeko proposamena

17_ BIDEGORRIA

- Amezketak duen ibilbide lau bakarra da kaletik Ugarteraino doana
- Bidegorriaren beharra
- Oinezkoen eta bizikleten arteko bizikidetza sustatuko duen erredua behar du izan

18_ OLALDE

- Zubillaga-Olalde-Ugarte artean erreka inguruak oinezko ibilbide paraleloak gehitzeko aukera

19_ UGARTE

- Oinezkoek arazoak dituzte espaloirik gabeko errepede eremuetan
- Bainutoki potentzial handiak ditu. Honekin batera herriko bainutoki mapa osatu daiteke

Eremu konkretuen inguruko hausnarketaz gain Landaguneko egoeraz hitz egin zen azaroak 18ko Guztion Mapa bateratua osatu zenean. Baserrien zatiketa eta lursail minimoen inguruan ordea ez zegoen adostasun nabaria. Alde batera edota bestera erabakiak hartuta kalteak eta abantailak agertu ziren.

Markoak ezarri duen Elikadura eta Energia burujabetasun estrategia batetara urratsak emateko Landagunearen ekosistema bateratasunez aztertu beharko litzake. Hau dela eta, Plan Orokorraren aurrerakina martxan jartzen den heinean antolatuko da gai honi buruzko saio monografikoa.

Azkenik, lehen saioetako markoari eginiko ekarpenek Amets Gidarien markoa utzi duten bezala azaldu zen:

AMETSEN kontaketa berriak - EKARPENAK Plan Orokorra gidatuko duen ametsen zerrendak azken marko honetan finkatu zen:

1_HERRI BIZIA Herritar guztien bizi proiektua bermatu behar duen herria bihurtu behar da Amezketa. Gazteak eta talentua eutsi, adinduak zaindu eta emakumeak erdigunean aitortuko dituen. Parte hartzea eta kooperazioa izango dira ezinbestekoak.

2_EKIPAMENDUAK Kirolguneen gabezia somatzen da. Eskolaren kokagunea Uholdegarritasun azterketa berriak kondizionatzen du. Mugitu beharko balitz eremu ezberdinak agertzen dira aukera gisa. Bestelako ekipamendu eta zerbitzu berrien kokapenak kondizionatuko du eskolaren kokapena. Emakumeen bilgunearen espazio propio baten beharra. Gazteen aisirako eredu berriak sustatuko dituen espazio baten beharra. Umeentzat gunee estali baten beharra. Herriko ekipamenduen azterketa eta aukerak...

3_ARALAR ONDARE Aralar berriz ere deskubritzeke dago herritarren autoestimu berri bat sortzeko. Berau ezagutarazteko ibilbideak berreskuratu eta inguruko altxorrenganako atentzioa jarri beharko litzake: Goiko errota, Minak, Iraegi... Ekonomia bat sor daiteke...

4_IBAIA Amezketa ibaia biziberritu, paseo jarraia, espazio publikoak eta aisialdi guneak sortuz.

5_LOTURAK Bidegorriaren beharra auzoak lotzeko ibilbideen bitartez (Zergatik ez Alegiraino?)

Bidegorriaren proiektua berrikustea ere aipatu da afekzio gutxienak sor ditzan Honekin batera ur-zikinen arazoa konpondu Herriak dituen ibilbideen sarea aztertu eta mugak edo barrera nabarmenak aztertu.

6_ETXE BIZITZA KULTURA BERRIA Gazteak herrian eusteko alokairua bultzatu. BASERRIAK biziberritu (aurrera egingo da honen inguruko hausnarketa partekatua)

7_EKONOMIA Ekonomiaren dibertsifikazio beharra. Jarduera txikientzako tokiak erraztu bai herrigunean eta baita landagunean ere. Garapen endogenoa sustatu Energia eta elikadura burujabetasunerako baliabideak ezarri. Nekazaritza eta bertako produktuen indartzea. Turismoaren zerbitzuak landu - Lan taldea sortu

8_ERGOIENA EREDU _Ergoiena auzoa herri eredu bezala seinalatzea bere izaera urbanoak duen berezitasunagatik.

9_TALDE ERAGILEA _Nork bultzatu behar ditu Ametsak? Gazteek. Beraz gazteak erakartzeko ahaleaginean jardutea ezinbesteko.

Talde eragilea osatuko da datozen urratsetan Plan Orokorraren dokumentuak osatu hala kontrasteak egin eta aurrerapausoak emateko.

A2.3 PLAN OROKORRAREN AURKEZPENERAKO INFORMEAK

Jarraian Plan Orokorra formulatzeko akordioan eskumendun administrazioei galdegindako eta orain artean jasotako txostenak atxikitzen dira. Hauek dira:

- babes zibilen arriskuei buruzkoa, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak igorritakoa.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaritzak igorria, honen eskumenen markoan.



SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Larrialdiei Aurre Egiteko eta
Meteorologiako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Atención de Emergencias y
Meteorología



IÑAKI AMUNDARAIN TOLOSA
AMEZKETAKO UDALA
Fernando Amezketarren Plaza, z/g
20268 AMEZKETA (GIPUZKOA)

**AMEZKETAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA
EGITEKO UDALERRIAREN BABES ZIBILEKO ARRISKUEI
BURUZKO TXOSTENA**

Aipatutako espedienteari lotutako eskakizunari dagokionez, gure teknikariek egindako txostena igortzen dizugu.

Adeitasunez




2018 FEB 16



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Larrialdiei Aurre Egiteko
eta Meteorologiako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dirección de Atención de
Emergencias y Meteorología

SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. 67152


Pedro Anitua Aldekoa
Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaria

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 16a





AMEZKETAKO UDALERRIAREN BABES ZIBILEKO ARRISKUEI BURUZKO TXOSTENA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Larrialdei Aurre Egiteko
eta Meteorologiako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Dirección de Atención de
Emergencias y Meteorología


Aintzane Lasanta Pegado
Planagintza Zerbitzuko Teknikaria
Larrialdei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza


José Ignacio Inoriza Aizpurua
Planagintza Zerbitzuko Burua
Larrialdei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 16a

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	3
2.-AMEZKETAKO UDALERRIAREN HIRIGUNEKO BABES ZIBILEKO ARRISKUEN AZTERKETA.....	4
2.1. - URPEAN GERATZEKO ARRISKUAK.....	4
2.2.- ARRISKU SISMIKOA.....	7
2.3.- BASOAK SU HARTZEKO ARRISKUA.....	7
2.4.- ARRISKU TEKNOLOGIKOAK.....	8
3.- OINARRI IZAN DEN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA JURIDIKOA.....	10

AMESKETAKO UDALERRIAREN BABES ZIBILEKO ARRISKUEI BURUZKO TXOSTENA

1.- SARRERA

2018ko otsailaren 16an jaso zen administrazio honetan Iñaki Amundarain Tolosa jaunak, Amezketako Udaleko alkateak, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza honi eginiko informazio-eskaera, udalaren hiriguneko babes zibileko oraingo arriskuen analisiari buruzkoa, Amezketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiketan jasotzeko helburuarekin.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza arduratzen da larrialdien kudeaketari buruzko Legearen (apirilaren 3ko 1/1996) eta haren araudi osagarriaren (larrialdien kudeaketari buruzko legea aldatzeko apirilaren 21eko 5/2016 legeak aldatua) ondoriozko Segurtasun Sailaren helburuak eta eskumenak gauzatzeaz eta betetzeaz. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hondamendi, zorigaitz eta arrisku larrietako egoerei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzaren eskumena diren babes zibileko planak lantzen ditu. Ildo horretan, plan orokorren edo berezien mende dauden babes zibilaren berezko arriskuen inbentarioa eta mapa landu ditu.

Autonomia Erkidegoko Babes Zibilaren Planean (LABI) xedatutakoarekin bat eginik, zeina 153/1997 Dekretuak onartu baitzuen eta urtarrilaren 13ko 1/2015 Dekretuak aldatu baitzuen (Euskadiko Babes Zibilaren Plana, Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea – LABIren aparteko berrikusketa onartzen du horrek), lurralde-antolaketa gaian eskumena duten organoei igorriko zaizkie arriskuen identifikazioaren emaitzak, inbentarioa eta arriskuen mapa, kontuan har dezaten arriskuei buruzko informazioa lurralde-antolamendurako baliabideak sortu, tramitatu eta onartzean. Era berean, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak beste autoritateen informazio hori igortzea aurreikusten da, hirigintzako autoritateena kasu, edozein motatako administrazioko prozeduretan gerta litezkeen arrisku edo zorigaitzen aurrean segurtasunari buruzko alderdiak hobetzen laguntzeko.

Bestalde, eta LABIrekin bat eginik, babes zibileko udal-planek honako alderdi hauek, besteak beste, hartu beharko dituzte barnean: Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan larrialdiko egoerak eragin ditzaketen arriskuen identifikazioa eta analisia; arrisku-baldintzak saihesteko edo murrizteko neurrien definizioa; arriskuen analisiaren eta hiri-plangintzaren emaitzen arteko adostasunari buruzko azterketa.

Kasu honetan, Amezketako Udalak ez dauka larrialdietako udal-plana.

Horretarako, igortzen den informazioak baliagarria izan beharko du udalerrian dauden babes zibileko arriskuei buruzko informazioa alderatzeko, osatzeko eta/edo eguneratzeko.

Azaldutakoa abiapuntu izanik, eta kontsultaren izaera kontuan izanik, eskatzen den informazioa emango da, baina aurretik bi alderdi garrantzitsu zehaztu beharko dira:

Lehenik, eskaintzen den babes zibileko arriskuei buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzak onartutako babes zibileko lurralde-planen eta plan berezien aurreikuspenetan aintzat hartutako arriskuetera mugatzen da, eta ez kultura-ondarea eta ingurune naturala babesteko ingurumen-baldintzatzaileei buruzko beste alderdi batzuetara edo hemen mugatutako esparruaz kanpokoetara.

Bigarren, ondoren gaineratzen den edukiak, informazioa emateko izaera baino ez duenak, ez ditu aurretik baloratzen Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak alegazioetan edo kontsultetan eman behar dituen iritzi, balorazio edo oharra. Idatzitako edo garatutako dokumentuetan oinarrituta, plangintza onartzeko prozeduran planteatu daitezkeen alegazioak edo kontsultak izango dira.

2.- AMESKETAKO UDALERRIAREN BABES ZIBILEKO ARRISKUEN AZTERKETA.

2.1. - URPEAN GERATZEKO ARRISKUAK.

Uren Legearen testu bategina¹ onartzen duen Errege Dekretuak (uztailaren 20ko 1/2001) 40.2 artikuluan ezartzen duen moduan, Espainiako Plan Hidrologiko Nazionalak eta Arroko Plan Hidrologikoek ezartzen dituzten zehaztapenen arabera egin beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko baliabide hidraulikoen plangintza.

Plan Hidrologikoak urpean geratzeko arriskuen ebaluazio eta kudeaketari dagokion zuzentarauaren arabera egingo dira (2007ko urriaren 23ko 2007/60/EE), gai honen azterketa nagusiak ere honetan oinarrituz egin baitira.

Arroko Plan Hidrologikoek uholdeen prebentzio koherenteari dagozkion zehaztapenak hartuko dituzte barnean, urpean geratzeko egon daitezkeen arriskuak murrizteko. Indarreko legeriaren arabera (9/2008 E.D., Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua eta urpean geratzeko arriskuaren ebaluazio eta kudeaketako 903/2010 E.D. aldatzen dituen), uholdeen aurkako babesari eta urpean geratzeko arrisku-mailaren araberako lurraren erabilerari buruzko irizpide berriak erantsiko dira.

Bestalde, **EAEko ibai eta erreka antolatzeko lurralde-plan sektorialak** (Kantaurialdeko eta Mediterraneoko isurialdeak) garatu eta xehatu egiten ditu Lurrazaleko Urei dagozkien «5.2 Ingurune fisikoaren elementu eta prozesuei buruzko gidalero orokorrak» puntuko 5.2.D epigrafea eta «6.8 Ingurune fisikoaren antolamendu kategoriak» puntuko 6.8.7 epigrafeari buruzko lurralde-antolaketako gidaleroen irizpideak; era berean, LPSko testu berria 9/2008 Dekretuaren (2007/60/CE Zuzentarauko Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua eta urpean geratzeko arriskuen ebaluazio eta kudeaketako 903/2010 Dekretua aldatzen dituen) xedapen berrietara egokitzen da.

¹ 29/1985 Legea, abuztuaren 2koa, urarena.

Uren abuztuaren 2ko 29/1985 Legea aldatzen duen abenduaren 13ko 46/1999 Legeak aldatutakoa.



EAEko ibai eta errekek antolatzeko LPSko lurralde-antolaketa irizpide orokorraren arabera, osagai hidrológico-hidraulikoa bi helburutan banatzen da: uholdeen aurkako babesari ipintzea urpean geratzeko arriskua duten inguruetan, biztanleak dauden alderdietan batez ere, eta lurraren erabilera arautzea ibaiertzetan eta urpean geratzeko arriskua duten ibaiertzetan aldeetan.

Bi helburuak neurritz eta era jasangarrian tratatzeko, ibaia igarotzen den eremua bitan banatuko da: landa-eremua eta urbanizatutako eremua.

Landa-eremuetan zentzua du, funtsean, ibilguak eta zabaldiak urpean geratzetik guztiz babesteko estrategiak aplikatzea, hala badagokio, dagokion LPPak behar bezala justifikatutako eta bermatutako lan berezietan izan ezik.

Ondorioz, landa-eremuetako ur-ibilguetan, lurralde antolaketako estrategia nagusia, ibilgu horiek naturaren eta ekologiaren arloan zaintzea izango da; eta ondorioz, urak har ditzakeen ibaiertzak morfologikoki zaintzea, betiere lehentasunezko fluxu-eremua libre uzteari lehentasuna emanez eta, urak har ditzakeen gainerako ibaiertzetan dauden hirigintza-ezarpen bakanak babesten saiatuz, halakorik denean. Gainera, ahal bada behintzat, ibai ibilguetan eta urak har ditzakeen zabaldietan ez da okupazio berririk egingo, eta ez dira hirigintza baldintzak aldatuko (LPP bidez tramitatutako ezohiko egoeretan izan ezik).

Urbanizatutako eremuetan, ordea, batez ere, hiriguneak uholdeetatik babesteko estrategiak hartzeari emango zaio lehentasuna. Horretarako, lehentasunezko fluxu-eremua libre uzteari ekingo zaio apurka-apurka, oztopoak gutxituz edo kenduz, drainatze-baldintzak hobetuz, defentsa-lanak eraikiz eta, hala badagokio, ibilgua puntu esanguratsuetan estutzea eragiten duten eraikinak eraitsiz.

Ibaia igarotzen den eremu urbanizatuaren araudi hidraulikoan, beraz, honako bi eremu hauek ezberdindu beharko dira: lehentasunezko fluxu-eremua, non estrategia, funtsean, babeslea eta murriztailea hartu beharko den, eta urpean gera daitezkeen gainerako eremuak, non, zenbait baldintzaren pean, ez den eraikitzea hasieratik baztertu behar.

LPSak erabakitako erabilera-mugak eta murrizketak «E.2. – Berriazko araudia, uholdeen aurkako babesari buruz» atalean jasotzen dira. Bertan, honako hau garatzen da:

E.2.1. – Lurzoruaren erabilera-erregimena, urak hartzeko arrisku mailaren arabera.

E.2.2. – Lurzoruaren erregimen orokorra eta jarduerak urak har ditzakeen eremuetan.

E.2.3. – Lurzoruaren berriazko erregimena eta jarduerak lehentasunezko fluxu-eremuan sartuta dauden eta urak har ditzakeen eremuetan.

E.2.4. – Lurzoruaren berriazko erregimena eta jarduerak 100 urteko errepikatze-denboran uholdeek har ditzaketen eta lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo dauden eremuetan.

E.2.5. – Lurzoruaren berriazko erregimena eta jarduerak, 100 eta 500 urte bitarteko errepikatze-denborako uholdeek har ditzaketen eremuetan.

Bai eta F «Hirigintza osagaiaren arabeko berriazko araudia» atalean erabakitakoa ere.

Horrez gain, lehentasunezko fluxu-eremuaren eta urak har dezakeen eremuaren erabilera-muga eta -baldintzatzaileei dagokienez, kontuan hartu behar da ere Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamenduaren azken aldaketa (638/2016 Errege Dekretua, abenduaren 9koa; horren bidez aldatu egiten dira Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa; Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua, uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa; eta uholde-arriskuari, ibilgu ekologikoei, erreserba hidrologikoei eta hondakin-urak jariatzeari buruzko beste araudi batzuk).

Erabilera-muga eta -baldintzatzaileak zehazteko, uholde-arriskuen ebaluazio eta kudeaketari buruzko 2007ko urriaren 23ko 2007/60/CE Zuzentaraua kontuan hartuta, honako azterketa hauek egin dira:

- Uholde arriskuaren alde aurretiko ebaluazioa (UAAE) eta uholde-arrisku potentzial esanguratsuko eremuen (UAPEE) identifikazioa. (2011ko abendua)
- Arriskugarritasun-mapak eta uholde-arriskuen mapak. (2013ko abendua)
- Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak. (2015eko abendua)

Euskal Autonomia Erkidegoko uholde-arriskugarritasunaren kartografia osoa GeoEuskadi Bisorean kontsulta daiteke; honako web helbide honetan dago:

<http://www.geo.euskadi.eus>

Geruzen zerrendan:

Osasun eta Segurtasuna >> Babes Zibilaren Arrisku-Mapak >> Uholde Arriskua

Amesketako udalerriko hirigunearen kasuan, Amezketa, Auzate eta Bedaio ibaiaren ibilguak identifikatu dira 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboran uholdeek utzitako orbanen bitartez.


Bestalde, 1996ko otsaileko Arriskuaren Oinarritzko Maparen arabera, inguruneko prezipitazioko isomaximoak eguneko 250 eta 375 mm artean dira 500 urteko errepikatze-aldi baterako. Hori dela eta, drainatzeko obra guztiak diseinatzeko, prezipitazio horiek hartuko dira kontuan, egon daitezkeen emariekin lotuta.

2.2.- ARRISKU SISMIKOA

Amesketako udalerrria VI. intentsitateko eremuan kokatuta dago, 2006ko iraileko **Arrisku Sismikoko Larrialdi Planaren²** arabera. Ondorioz, udalerrria Arrisku Sismikoko Larrialdi Plana burutzetik salbuetsita dago, nekez gertatuko baita udalerriko eraikinak suntsituko dituen sismoa. Dena dela, sismoen aurkako Eraikuntza Araua hartuko da kontuan eraikuntza berrietarako: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02) **irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak** onartua.

2.3.- BASOAK SU HARTZEKO ARRISKUA

Azterketa-eremuan basoak su hartzeko arriskua aztertzeko, honako faktore hauek hartu dira aintzat:

- 
- EAEko landarediaren kartografia. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza. 2007.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko baso-erregaien ereduak. DAE 1999. «Baso-erregaien ereduak» ezarritako sailkapena hamahiru eredutan edo multzotan antolatu da. Erregaitasuna landaredi-egitura baten barruan sua hedatzearekin dago lotuta.
 - «Basogintzaren kudeaketa eta praktikaren arriskuaren integrazioaren garapenerako sarea» Forrisk Proiektuaren modelizazioa eta ondorioak (2012 LIDAR)
 - Arrisku-mapan zuhaitzi-multzoak eta basoak xedatzen dira; arriskua sor dezaketen neurri txikiagoko baso-multzoak ez dira ikerketa hauetan aztertu.

Honako esteka honetan ikus daiteke:

<http://www.geo.euskadi.eus>

Geruzen zerrendan:

Osasun eta Segurtasuna >> Babes Zibilaren Arrisku-Mapak >> Baso Suteak

Hirigintza-planifikazioari dagokionez, kontuan hartu behar dira Baso-Suteetako Arriskuaren aurrean Larrialdietako Babes Zibileko Planaren Oinarrizko Gidalerroak (2013ko azaroaren 15ean Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartutakoa) jasotzen dituen mugak eta baldintzatzaileak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren jasotzen direnak ere.

Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotzen diren baldintzatzaileak hartu behar dira kontuan. Baldintzatzaileok baso-suterako arrisku handia duten inguruak edo hiria eta basoa batzen dituzten eremuak basogintzarako erabiltzeko Autobabeserako Plana nahitaez

2 27/2007 Ebazpena, azaroaren 8koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena; honen bitartez, Arrisku Sismikorako Larrialdi Plana onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia argitara dadila xedatzen da.



egiteari buruzkoak dira, bai eta kanpaldietarako instalazioari buruzkoak ere, hurrenez hurren.

2.4.- ARRISKU TEKNOLOGIKOAK

Arrisku teknologikoak bi multzotan bildu dira:

- A. Salgai arriskutsuen garraioaren ondoriozko arriskua.
- B. SEVESO III. araudia.

A.- Salgai arriskutsuen garraioa

Errepide bidezko salgai arriskutsuen nazioarteko garraioari buruzko Europako akordioak (ADR 2003) eta trenbide bidezko garraioaren erregelamenduak (RID 2003) ezartzen duten esparruaren barruan, 1996ko martxoaren 1ean *Errepidez eta trenbidez gai arriskutsuak garraiatzean gerta daitezkeen istripuei aurre egiteko Babes Zibileko Plangintzako Oinarritzko Gidalerroa* onartzen duen 387/1996 Errege Dekretua eman zen argitara estatu mailan. Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, eta Errege Dekretu horren testuinguruan, «Euskal Autonomia Erkidegoan salerosgai arriskutsuen garraioaren fluxu-mapak» landu ziren 1998an, eta 2005an eguneratu egin ziren.

2005eko «EAEn salgai arriskutsuen garraioaren fluxu-mapen» azterketa EAEn administrazio-mugen barruan osorik edo zati batean bideratzen diren errepideetan eta trenbideetan zehar egindako gai arriskutsuen garraio-fluxuetan oinarritzen da. Errepidez eta trenbidez salgai arriskutsu eta galkorren garraio-fluxuak abiapuntu izanik kalkulatu da biztanleriarentzat eta ingurune naturalarentzat suposatzen duten arriskua, TRANSIT ereduaren bitartez.

Amesketaren kasuan, ez dago honetako arrisku aipagarriarik. Hala ere, arrisku-mapa honako esteka honetan ikus daiteke:

<http://www.geo.euskadi.eus>

Geruzen zerrendan:


Osasun eta Segurtasuna >> Babes Zibilaren Arrisku-Mapak >> Salerosgai Arriskutsuen Garraioa

B.- SEVESO III. araudia

Gai arriskutsuak tarteko diren istripu larriak gertatzeko arriskuei buruzko erreferentzia-araudia Seveso III. Zuzentaraua (2012/18/UE Zuzentaraua) deitutakoa da. Horrek Seveso I. Zuzentaraua (96/82/CE Zuzentaraua) eta Seveso II. Zuzentaraua (2012/18/UE Zuzentaraua) aldatzen ditu, eta gure testuinguru juridikora gehitu da irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren bidez (istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena, eta uztailaren 16ko 1254/1999 ED eta otsailaren 4ko 119/2005 ED aldatzen dituena). Baita gai arriskutsuak

tarteko diren istripu larriak gertatzeko arriskua kontrolatzeko eta planifikatzeko babes zibileko Oinarrizko Gidalerroa ere.

Istripuak gertatzekotan dauden prebentzio-neurriak eta erantzuteko gaitasuna hobetzea helburu duen araudi horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak ez digu jakinarazi Amesketako udalerrian araudi honen beharreko establezimendurik dagoenik



3.- OINARRI IZAN DEN DOKUMENTAZIO TEKNIKO ETA JURIDIKOA

Babes zibilari eta larrialdien arretari buruzko araudia:

- 5/2016 LEGEA, apirilaren 21ekoa, Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzen duena
- 153/1997 Dekretua, ekainaren 24koa, Larrialdiei aurre egiteko bidea-LABI deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duena eta larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituen (1997ko uztailaren 21eko EHAA). Eta 1/2015 Dekretua, urtarrilaren 13koa, Euskadiko Babes Zibileko Plana «Larrialdiei Aurre egiteko Bidea-LABI» onartzen duena (urtarrilaren 22ko 14. EHAAn argitaratua).
- 34/2001 Dekretua, otsailaren 20koa, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten autonomia erkidegoko organoak zeintzuk diren adierazten duena. (Martxoaren 2ko EHAA, 24. zk.).
- Agindua, 2016ko otsailaren 1ekoa, Segurtasuneko sailburuarena, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzen duen Agindua hirugarren aldiz aldatzekoa.
- Agindua, 2006ko ekainaren 15ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, substantzia arriskutsuek esku hartzen duten istripu larrien prebentzioarekin zerikusia duten dokumentazioari, ebaluazioari eta ikuskatzei buruzkoa. (2006ko uztailaren 7ko EHAA).
- 10/2001 Ebazpena, abuztuaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko errepide eta trenbideetan salerosgai arriskutsuak garraiatzeak dakarren arriskua dela-eta sor daitezkeen larrialdiei aurre egiteko Plan Berezia onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia argitaratzea xedatzen duena (2001eko irailaren 28ko EHAA, 189. zk.).
- 3/2015 Ebazpena, urtarrilaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen ziozko Larrialdiko Plan Berezia onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena (urtarrilaren 21eko EHAA, 13. zk.).
- 80/2016 Ebazpena, abenduaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdiko Plan Berezia onartzeko Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2016ko abenduaren 27an hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena (2017ko urtarrilaren 11ko EHAA, 7. zk.).
- 27/2007 Ebazpena, azaroaren 8koa; honen bitartez, Arrisku Sismikorako Larrialdi Plana onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2007ko urriaren 30eko Erabakia argitara dadila xedatzen da. Abenduaren 10eko EHAA, 236/2007 zk.

Babes zibileko estatuko araudia:

- 2/1985 Legea, urtarrilaren 21ekoa, babes zibilari buruzkoa. (BOE 22. zk., 1985eko urtarrilaren 25ekoa).
- 407/1992 Errege Dekretua, apirilaren 24koa, Babes Zibileko Oinarrizko Araua onartzen duena. (BOE 105. zk., 1992ko maiatzaren 1ekoa).
- 1196/2003 Errege Dekretua, irailaren 19koa, gai arriskutsuak tarteko diren istripu larriak gertatzeko arriskuari aurre egiteko kontrol eta antolamendurako babes zibileko oinarrizko gidalerroa onartzen duena. BOE, 242 zk., urriaren 9koa.
- 840/2015 Errege Dekretua, irailaren 21ekoa, gai arriskutsuak tarteko diren istripu larriei datzekien arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena.
- 387/1996 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, errepidez eta trenbidez gai arriskutsuak garraiatzean gerta daitezkeen istripuei aurre egiteko babes zibileko plangintzako oinarrizko gidalerroa onartzen duena. 1994ko uztailaren 4ko Ebazpena (erref. 94/16738), eta apirilaren 24ko 407/1992 Errege Dekretua, Babes Zibilari buruzko urtarrilaren 21eko 2/1985 Legearen 8. artikuluan aurreikusten den Babes Zibileko Oinarrizko Araua onartzen duena (1996ko martxoaren 22ko BOE, 071. zk.).
- Agindua, 1993ko apirilaren 2koa, basoak su hartzeko arriskuari aurre egiteko Babes Zibileko Plangintzaren Oinarrizko gidalerroa onartzeko Ministro Kontseiluaren erabakia onartzen duena (1993ko apirilaren 15eko BOE, 90. zk.).



Beste arau batzuk

- 3/1994 Foru Araua, ekainaren 2koa, mendiei eta espazio natural babestuen administrazioari buruzkoa. (1994ko ekainaren 28ko BAO, 123. zk.)
- 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena. (2013ko abenduaren 12ko EHAA, 236. zk.).
- 160/2004 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana Behin Betiko onartzen duena. 2004ko azaroaren 19ko EHAA. Eta 231/2012 Dekretua, urriaren 30ekoa, dekretu hura aldatzeko dena.
- 903/2010 Errege Dekretua, uholde arriskuen ebaluazio eta kudeaketari buruzko 2007/60/CE zuzentarau europarraren transposizioa.
- 449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua¹, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.
- Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua (azken aldaketa: 638/2016 Errege Dekretua, abenduaren 9koa; horren bidez aldatu egiten dira Jabari Publiko Hidraulikoko Erregelamendua, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa; Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua, uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa; eta uholde-arriskuari, ibilgu

ekologikoei, erreserba hidrológikoei eta hondakin-urak jariatzeari buruzko beste araudi batzuk).

Bestelako dokumentazio teknikoa

- Euskal Autonomia Erkidegoko hiriguneak urpean geratzeko arriskuari buruzko azterlanak. Uren Zuzendaritza 2001-2005
- Uholde-arriskuaren alde aurretiko ebaluazioa (UAAE) eta uholde-arrisku potentzial esanguratsuko eremuen (UAPEE) identifikazioa, 2011ko abendua.
- Arriskugarritasun-mapak eta uholde-arriskuen mapak. 2013ko abendua.
- Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak. 2015. urtea
- Emergency Response Guidebook U.S. Department of Transportation.
- Gai arriskutsuak tarteko diren istripuei aurre egiteko fitxak. Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritza, 2001.
- EAEn gai arriskutsuen garraioaren fluxu-mapa eguneratzea. Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saila, 2005.

Informazio osagarria, GeoEuskadi Euskadiko Datu Espazialen Egitura (DEA) webgunean.

<http://www.geo.euskadi.eus>

Honako geruza honetan:

Osasun eta Segurtasuna >> Babes Zibilaren Arrisku-Mapak



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

2018 A.P.I.
ABR. 10

IÑAKI AMUNDARAIN TOLOSA
AMEZKETAKO ALKATEA
Fernando Amezketarren Plaza, z/g
20268 AMEZKETA (Gipuzkoa)

SARRERA	IRTEERA
Zk.	Zk. 135758



Gaia: Amezketako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra

Kodea/Código: OP-2018_019

Goian aipatutako gaiari dagokionez, honekin batera doakizu Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzari eskatutako txostena.

Adeitasunez

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 22a



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

AITOR ZULUETA TELLERIA

NATURA ONDARE ETA KLIMA ALDAKETAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PATRIMONIO NATURAL Y CAMBIO CLIMÁTICO



AMEZKETAKO HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA

KODEA: OP-2018_019

Sarrera data: 2018ko otsailaren 14a.

Kontsulta esparrua: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (90.1 artikulua).

Eskuduntza esparrua: Txosten hau Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren eginkizun eta erantzukizunen baitan igortzen da, ondorengo arauetan xehatzen direnak: 196/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena eta 2003ko ekainaren 10eko Jaurlaritzaren kontseiluaren erabakian, zeinek Biodibertsitate Zuzendaritza Euskadiko Natura 2000 sarearen behatoki iraunkorra izan dadila zehazten duen, horren arabera Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako konpromiso eta helburuak betetzearen.

Aztertutako dokumentazioa: Udalaren gutuna jasotzen da honako informazioa eskatuz "arriskuen berri izateko eta ingurumen, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren", Hiria Antolatze Plan Orokorrean eta honen Ingurumen Jasangarritasuneko txostenean kontuan hartuak izan daitezten. Ez da hirigintza-proposamena nondik norakoa izango den azaltzen duen bestelako dokumentazio gehigarririk jasotzen.

Txosten honetan Zuzendaritza honek planeamenduaren erredakziorako dituen irizpide eta helburuan jasotzen dira modu orokorrean, udalak bere hirigintza-eskuduntzen gauzatzean kontuan izan ditzan.

BIODIBERTSITATEAREN KONTSIDERAZIOA LURRALDE ETA HIRIGINTZA PLANEAMENDUAN. JARRAIBIDE OROKORRAK.

1. Biodibertsitatearengan eragina duten jasangarritasun irizpideak

Baliabide naturalen babesarekin bateragarria den planeamendu bat, honako irizpideetara egokitu beharko litzateke:

1. Planeamendu berriaren beharrezana arrazoitu izan ditzakeen Ingurumen eraginekin erlazionatuta.
2. Antzeman diren beharrezanak aseko dituen gutxieneko azalera birklasifikatzen dela arrazoitu.
3. Lurzoruaren artifizializazio eta hazkunde demografikoa bereizi. Biztanleko lurzoru artifizializatu tasa txikitu.
4. Lurzoru artifizializatuei probetxu atera, lurzoru berriak bete aurretik.
5. Lurzoru klasifikatuak agortu, lurzoru berria klasifikatu aurretik. Egokiak ez diren lurzoru klasifikatuan ordezkatzeko orduan, hauen desklasifikazioa bultzatuko da planeamendu tresna berean.

6. Biodibertsitatearen paregabeko elementuak erasatea ekidin (landaredi autoktonoa, mehatxatutako espezieen habitatak, batasunaren intereseko habitatak, ibai eta errekek, padurak, heskaiak...)
7. Aukeratutako kokapenak ingurumenaren ikuspuntutik argudiatu, beste hautabideekiko, 0 hautabidea barne.
8. Biodibertsitatearen egoera orokorra mantendu edo hobetu, hala nola honek ingurumen-zerbitzuak emateko duen gaitasuna. Ingurumen kalteen aurre hartzea lehenetsi, konpentsazioaren aitzinean.
9. Halaberharrekoak direla frogatutako ondasun naturalen galera konpentsatu. Planeamendu tresnan honakoak zehaztu beharko dira:
 - a. Non konpentsatzen den, lehentasunak definituko dira honakoetan oinarrituz :
 - i. Lehengoratztea komeni den degradatutako eremuak
 - ii. Tokiko korridore sarea
 - iii. Aukerak
 - b. Konpentsazio jarduerak aurrera eramateko lursailen lorpena klasifikatzen den lurzoruari lotzea, adibidez atxikitako sistema orokor bezala, ala baliabide publikoen lorpen jarduera baten bitartez.
 - c. Neurri konpentsatzaileen kostua sektore berriaren urbanizatzeko gastu bezala jaso behar da.
 - d. Konpentsazio neurriak eraikuntza-baimena eman aurretik gauzatu behar dira.
10. Garapen berriak eta urrutiko urbanizazioak erakartzea ekidin.

2. Ingurumen helburu eta jasangarritasun printzipioen adierazleak

Gutxienez honako adierazleak kalkulatzeko gomendatzen da, egungo balioa jasoz eta Ingurumen helburuak bete direla aintzakotzat hartzeko balioak jasoz (arrakasta irizpidea), hala nola proposaturiko planeamenduaren aplikazioz lortuko den balioa kalkulatu. Balioak ez badu arrakasta irizpidea betetzen, plana birformulatu beharko da edo berariazko argibide bat eman beharko da:


- Habitat naturalek, erdinaturelek eta naturalizatuek betetzen duten azalera %.
- Udal planeamenduak babesten duen azalera (Babes Bereziko eta Azaleko Uren Babeseko kategoriak).
- Azalera osoarekiko artifizializatutako portzentajea.
- Hiri-lurzoru hektareako biztanle kopurua.
- Biztanleko azalera artifiziala.
- Hiri berritze eta lurzoru urbanizagarrietan kokatzen diren etxebizitza kopuru osoa.
- Garraiobide azpiegituren dentsitatea.

3. Lurzoru Ez Urbanizagarriaren klasifikaziorako irizpideak

Oro har, Zuzendaritza honek Lurzoru Ez Urbanizagarriaren sailkapenerako irizpide hauek gomendatzen ditu:

1.- Planaren eremuak honako baliabideetako batekin bat eginez gero, esparru horiek LEUko Babes Bereziko kategorian sartu beharko dira, zonifikazio eta erabilera arautzea kasuan kasuko tresna arauemaile espezifikoaren esku utziz:

- Parke Naturalak eta Biotopo Babestuak(16/1994 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duena, babespean izendatuak): Aralar Parke Naturala.




Berdez Aralar Parke Naturala.

- EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialaren II. multzoko hezeguneak. 2004ko uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuaren bidez behin betiko onartu zen (2012ko urriaren 30ko 231/2012 Dekretuaren bidez aldatua). Ez dago Amezketan
- Ramsar Nazioarteko garrantziko hezeguneak; aurreko eremuekin bat datozenak. Ez dago Amezketako udalerrian.
- Izapidetzen ari diren Leku Babestuak. Ez dago Amezketako udalerrian.

2.- Planaren eremuak honako baliabideetako batekin bat eginez gero, esparru horiek LEUko Babes Bereziko kategorian sartu beharko dira edota Baldintzatzaile Gainjarri bezala jaso.Udal araudiak beti ere, leku hori kalatogatzera eraman duten balioan babestu beharko ditu. Leku hauentzako kudeaketa araudi bat onartzuz gero edota aurreko ataletan aipatutako lekuren batekin bat eginez gero, bere araudi espezifiko izango da aplikaziozkoa:

- LAAko Interes Naturalistikoa duten Eremuak. Ez dago Amezketako udalerrian.
- EAEko Babesgune Garrantzitsuen Katalogo irekia: Aralar Mendilerroa.



Urdinez Aralar Mendilerroa

- Nautra 2000 Espazioak: Aralar Konserbatsio Bereziko Eremu (KBE)



Gorriz Aralar KBE


3.- Udalerria EAeko Hezeguneen LPSko III. multzoko hezeguneren bat aurkituz gero, Udal-Plangintzak LPSak definituriko hezegune tipologiari dagokion antolamendu kategoria (LPSko Bigarren Xedapen Gehigarria) egokitu beharko dio. Ez dago Amezketan.

4.- Udalerriko baso autoktono eta batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak Babes Bereziko kategoria batean jaso beharko dira, bere babeserako kautela-neurriak ezarriz 92/43/CEE Habitaten Zuzentarauan (11. Artikulua), 42/2007 Legean, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa (45.3 artikulua), 16/1994 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko natura babesten duena (2.e. artikulua) eta LAAn (5.2.b5 arteztaraua) jasotzen denari erantzuna emanaz.

Horretarako, *EAEko Habitat, egungo landaredia eta lurzoru-erabileren kartografia* delakoa kontsultatu daiteke.

Amezketan honako batasunaren intereseko lehentasunezko habitat hauek aurki daitezke:


- 6210* Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak (Festuco-Brometalia) (orkideo garrantzitsuekin).
- 6230* Nardus-en formazio belarkarak, espezie ugariarekin, zona menditarreko (eta Europa kontinentaleko zona azpimenditarreko) substratu silizeotan.
- 91E0* *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*-en ibarbasoak (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*).
- 9180* Malda, lur-jausi edo amildegietako basoak (*Tilio-Acerion*).



Urdinez 91E0* habitata, berdez 6230* habitata, gorritz 6210* habitata eta horiz 9180* habitata

Amezketan honako baso autoktono hauek aurki daitezke:

- Haltzadi kantauriarra.
- Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa.
- Pagadi kaltzikola edo eutrofikoa.
- Pagadi azidofiloa.
- Kararrizko gailurretako eta haitzebakien oineko landaredia.



Horiz Haltzadi kantauriarra, urdinez Harizti azidofiloa eta harizti-baso misto atlantikoa, laranja Pagadi kaltzikola edo eutrofikoa, gorri Pagadi azidofiloa eta berdez Kararrizko gailurretako eta haitzebakien oineko landaredia

5.- Udalerrian flora eta fauna espezie mehatxatuak aurkituz gero, ondorengo pausuak jarraitu beharko dira:

- Eremu sentikorrenak (flora kokapen indargetze eremuak, babeslekuak, habitze eremuak, etab.) Babes Bereziko kategoria batean jaso beharko dira, bere babeserako kautela-neurriak ezarriz..
- Kudeaketa Plana duten espezieen kasuan, plan horietan definitutako babes eremuak lurralde edo hirigintza planean jaso beharko dira, beren xedapenen derrigorrezko errespetua azpimarratuz. Organo kudeatzaileak kontsultatuak izan beharko dira Kudeaketa plan horietan jasotzen den heinean.

6.- Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearekin (<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-bio/es>) bat egitekotan, korridore eta lotura eremuak Baldintzatzaile Gainjarri bezala jasoko dira, lotura ekologikoak eta iragazkortasuna handiagotzea sustatuz.



Urdinez Ernio-Gatzume – Aralar - Izarraitz korridorea

4. Garapen berrietarako eremuen proposamenerako irizpideak

Hiri-garapen berrietarako eremuak hautatzerako orduan, ingurumenarekiko ahalik eta proposamen arduratsuena ziurtatu asmoz, ondorengo jarraibideak izan beharko dira kontuan:

- Aurreko atalean aipatutako leku babestuekin bat egitea saihestuko da.
- Hiri garapen berriak baso autoktonorik eta basatuaren intereseko lehentasunezko habitatik ez dagoen eremuetan lehenetsiko dira. Egitura hauek aurkitzekotan Espazio Libreetara egotziko dira.
- Xehetasunezko Plangintzaren garapena, eremuaren Lehengoratze Planaren erredakzio eta gauzatzeari lotuta joan beharko da, honako irizpideak jarraituz idatzi beharko dena:
 - Zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak multzoka eta lerroka ezartzea bilatuko da, inguruneke landaredi naturalarekin lotuz eta ahal den heinean naturalizatutako habitat bat islatu asmoz.
 - Obra fasean intereseko landaredia ez kaltetzeko neurriak hartu beharko dira (balizatzea, etab).
 - Obrek aldi baterako kaltetutako eremuak eta esku-hartzerik izan ez diten espazio libreak ingurura egokitutako landaredi autoktonoarekin birlandatuko dira.
 - Prozesu inbaditzaileak eragin ditzaketen landare-espezie aloktonoak (Adib: *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, eta.) kontrolatzeko neurriak hartuko dira:
 - Dauden oinak errotik ateratze
 - Espezie hauen agerpena saihesteko lurren kontrol zorrotza.
- Intereseko landaredia deuseztatzekotan, konpentsazio neurriak hartuko dira, kaltetua izan den azalera edo handiago baten baliokide den eta degradatua dagoen eremu batena lehengoratze lanak gauzatuz. Natura ondasun galerak konpentsatu beharra dago.
- Garapenerako eremuak aurreko atalean azaldutako biodibertsitatearen ikuspuntutik garrantzitsuak diren eremuekin bat etortzekotan bestelako kokapena bilatuko da.

- Fauna espezie mehatxatuentzat identifikaturiko interes bereziko eremu eta puntu sentikorak kaltetzea saihestuko da, garapen berrietarako bestelako kokapenak bilatuz edota prebentzio-neurri eta neurri zuzentzaileak hartuz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko korridore ekologikoen sarearen egitura-elementuekin bat egitekotan:
 - Eremu kritikoekin bat egiten duten garapen berriak ez dira onargarritzat hartuko.
 - Garapen berriek, korridore, lotura eremu eta indargetze eremuekin bat egitekotan, kalteak ekiditeko eta lurraldearen iragazkortasuna bermatzeko neurriak hartuko dira. Neurri horiek landarediarekin lotuta azaldu diren neurriekin bat datoz (Alternatiba bilaketa eta neurri zuzentzaileak).
- Azpiegitura linealen kasuan (errepideak, trenbidea...) iragazkortasun neurriak izan beharko dituzte. Horretarako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren "*Prescripciones técnicas para el diseño de pasos de fauna y vallados perimetrales*", dokumentua kontsultatzea gomendatzen da.
- Edozein kasutan ere, garapen berrietarako proposamenek integrazioa paisajistikorako neurriak jaso beharko dituzte: landaredi-pantailen instalazioa, etab.

5. Biodibertsitate baliabide eta espazioei buruzko informazio eskuragarria

Oinarrizko kartografia

Eusko Jaurlaritzako (www.euskadi.net) eta Foru Aldundiko (www.gipuzkoa.net) webguneetan oinarrizko kartografia desberdina dago eskuragarri, plano eta mapa topografikoetatik, aireko argazki, ortoargazki eta goraguneen eredu digitaletara.

Ingurumen gaien kartografia

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra eta honen Ingurumen Jasangarritasunerako txostena egiteko ingurumen informazioaren kontsulta eta deskarga Biodibertsitate Informazio Sistemaren bidez egin daiteke:

- <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/dibertsitate-biologiko-geologikoa/>

- <http://www.geoeuskadi.net>

Gasteizen, 2018ko martxoaren 22a

OE/ Vº.Bº.



Marta Rozas Ormazabal
Natura Ingurunearen zerbitzu arduraduna
Responsable del Servicio de Medio Natural



José Ignacio Ruiz de Loizaga Lafuente
Ingurumen teknikaria
Técnico de Medio Ambiente

A3. INDARREKO PLANGINTZA. GARAPEN MAILA

A3.0 SARRERA

Azaldu den bezala, Amezketako Hiria Antolatzeko Arau Subsidiarioen Testu Bateratua 2006ko azaroan onartu zen eta egun, 2018ko maiatzean, beronen garapen maila hutsaren hurrengo dela esan daiteke.

Datuak eremuka modu xehatuan aurrerago azalduko baditugu ere, bere indarraldirako aurreikusitako etxebizitza berrietatik egun apenas %11k lizentzia emana izateak laburbildu ditzake, eta denboraldi honetan jarduera ekonomikoetarako azalera metro bakar bat bera ere garatu ez izana, paper-fabrikaren handitzea izan ezik, partzialki besterik ez zena aurreikusten eta Arauen Aldaketa Puntual baten bidez tramitatu behar izan zena. Guzti honek indarrean dagoen plangintza orokorraren aurreikuspenen betetze maila eskasaren ideia argi bat ematen digu.

Egia da Arau Subsidiario hauek inoiz ez bezalako hirigintza handitze eta hedapen garai batetan idatzi eta onartu zirela, hau da, eraikuntza burbuilaren mailarik gorenean, berehalako arriskuaz (emaitzarik gabe) ohartarazten zuten ahotsak egonda ere.

Dakigun bezala, burbuila handik gutxira lehertu zen, egundaino iraun duten ondorio suntsitzaileak utzi dituen krisi sakona eraginez eta eskusiboki garapen ekonomikoaren zerbitzura dagoen hirigintza ez jasangarriaren eredu baten hauskortasuna agerian utziz.

Preseski garapen maila aurreratuena izan duten jarduketak zuzkidurakoak izana da orain arte esandakoa erakusten duen datu esanguratsuetako bat, hau da, urbanizazioak finkatutako lurzoruan existitzen diren eraikinak ordezkatzeko baliatzen den *“hiri-lursail edo hiri-orube batean gertatzen den jarduketa da, planeamendu berriak eraikigarritasun haztatuaren hazkundera esleitzen badio, lehendik gauzatuta dagoena erreferentziatzat hartuta.”* (123/2012 D, 2. art.). Paradoxikoa suertatzen da normalean kudeaketa zailtasun handienak dituzten jarduketak direla kontutan izanda, tartean jatorrizko bizilagunei beste bizileku bat eman behar izatea.

Nolanahi ere, atal honek berebiziko garrantzi hartzen du Hiria Antolatzeko Plan Orokorra idazteko garaian, ikusiko dugun moduan, aurreikusitako baina gauzatugabeko etxebizitza kopuruak aurrez aurre egiten bait du talka Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek Amezketari esleitutako egoitza ahalmenarekin, denboran mantentzen den atzerapen demografiko garrantzitsu baten tokiko testuinguruan.

A3.1 AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GARAPENA

Lurzoruaren klasifikazioa	Garapen/egikaritze eremua	Azalera m ²	Jarduketa mota	Aprob. m ² (t)	Etxebizitza kopurua		
					egun	aurreik.	gauz.
A.I.U.1 ERGOENE KOTXETA							
HIRI-LURZORUA	U.E. 1.1	1.992	Integratua	504	0	2	2
	U.E. 1.2	949	Integratua	501	0	3	0
	U.E. 1.3	1.382	Integratua	504	0	2	0
	U.E. 1.4	202	Isolatua	471	2	2	0
	U.E. 1.5	8.009	Integratua	3.600	0	30	0
	U.E. 1.6	2.761	Integratua	792	0	4	0
	U.E. 1.7	678	Integratua	504	0	2	0
	U.E. 1.8	1.467	Zuzkidura	840	1	4	0
	U.E. 1.9	1.332	Zuzkidura	833	2	2	0
A.I.U.3 HIRIGUNEA							
HIRI-LURZORUA	U.E. 3.1	352	Zuzkidura	576	3	6	0
	U.E. 3.2	730	Zuzkidura	780	3	6	0
	U.E. 3.3	253	Zuzkidura	652	3	6	6
	U.E. 3.4	395	Zuzkidura	1.204	6	9	9
	U.E. 3.5	617	Zuzkidura	1.200	1	12	0
A.I.U.4 LARRAITZEKO BIDEA							
HIRI-LURZORUA	U.E. 4.1	13.169	Integratua	5.184	0	38	2
A.I.U.6 ALEGIKO BIDEA							
HIRI-LURZORUA	U.E. 6.1	305	Zuzkidura	512	3	4	0
	U.E. 6.2	574	Zuzkidura	468	2	4	0
	U.E. 6.3	459	Zuzkidura	624	2	4	0
	U.E. 6.4	1.688	Integratua	350	0	1	0
A.I.U.7 JAUREGI							
URBANIZAGARRIA	P.P. 7.1	21.925	Integratua	9.500	0	66	0
A.I.U.8 INSAUSTI-ZUBILLAGA							
HIRI-LURZORUA	U.E. 8.1	1.269	Integratua	420	1	1	0
	U.E. 8.2	2.400	Integratua	1.080	0	4	0
A.I.U.10 UGARTE							
HIRI-LURZORUA	U.E. 10.1	1.952	Integratua	1.065	0	10	0
	U.E. 10.2	169	Zuzkidura	357	1	3	3
EMAITZA OROKORRA		65.029		32.521	30	225	21

	Zb	Azalera m ²	Berezko ustiapena m ² (s)	Etxebizitza kopurua			
				egun	aurreik.	gauz.	%
Lurzoruaren klasifikazioaren arabera EMAITZA OROKORRA							
HIRI-LURZORUA		43.104	26.021	30	159	21	13,21
LURZORU URBANIZAGARRIA		21.925	9.500	0	66	0	0,00
Jarduketa motaren arabera EMAITZA OROKORRA							
Jarduketa isolatua	1	202	471	2	2	0	0,00
Zuzkidura jarduketa	10	6.653	8.046	27	60	18	30,00
Jarduketa integratua	13	58.174	24.004	1	163	3	1,84

Modu osagarrian, lortutako datuetatik erator daitezke etxebizitza bakoitzeko eraikigarritasun aprobetxamendua 164 m²(t) ingurukoa dela hiri-lurzoruan eta 144 m²(t) ingurukoa lurzoru urbanizagarrian. Bestalde, jarduketa isolatu bakarria alde batera utzita, datuak 134 m²(t) eta 147 m²(t) dira etxebizitza bakoitzeko, hurrenez hurren, zuzkidura jarduketa eta jarduketa integratuetan.

A3.2 JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN AURREIKUSPENEN GARAPENA

Lehen esan bezala, "A.I.U. 2. Aralarko Papelera" Hirigintza Esku-hartze Eremuari dagokion A.S.en Aldaketa Puntualen espedientea tramitazioan dago egun, 2016ko irailaren 29an Amezetako Udalak behin behinean onartu zuena. Espedientea, beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion behin betiko onarpenaren zain dago.

Lurzoruaren aurreikuspenen garapena jarduera ekonomikoetarako hurrengoa da:

Lurzoruaren klasifikazioa	Garapen/egikaritze eremua	Azalera m ²	Jarduketa mota	Berezko ustiapena m ² (s)			
				egun	aurreik.	gauz.	%
A.I.U.2 ARALARKO PAPELERA							
HIRI- LURZORUA	U.E. 2.1 (1)	42.116	Zuzkidura	20.571	7.732	7.312	94,57
	U.E. 2.1 (2)	48.950	Zuzkidura (3)	27.883	9.200	0	0
A.I.U.9 OLA AUZOA							
LURZORU URBANIZAGA RRIA	P.P. 9.1	45.143	Integratua	0	10.608	0	0
	P.P. 9.2	24.429	Integratua	0	6.240	0	0
EMAITZA OROKORRA (4)		118.522		27.883	33.780	7.312	21,65

(1) Indarreko antolamendua: 2006an onartutako A.S.ak; (2) Izapidean dagoen Arauen Aldaketa Puntuala (Behin behineko onarpena: 2016/09/29); (3) Izapidean dagoen Arauen Aldaketa Puntualaren arabera, lursaila urbanizazioarengatik finkatua egotetik urrun egonagatik eremua beraren handipena Jarduketa Integratua dela esan badaiteke ere; (4) Denboraldi osoa barne hartuz.

Bestalde, 2015eko azaroan “A.I.U. 9. Ola auzoa” Hirigintza Esku-hartze Eremuaren klasifikazio eta kalifikazioari dagokien A.S.en Aldaketa Puntualari haserako onarpena eman zitzaion, nahiz eta bere izapidea egun geldirik dagoen, honako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren lantze markoaren barruan eremuaren plangintza aztertu, eztabaidatu eta konpontzeko helburuz.

Nolanahi ere, datuek Amezketako eredu sozio-ekonomikoak paper-fabrikarekiko duen menpekotasuna adierazten dute beste behin, hala nola jarduera ekonomiko industrial berriak erakartzeko zailtasuna, horretarako ekimen pribaturik kasik ez bait dago.

Gainera, erakundeen arteko nolabaiteko adostasuna badago “A.I.U. 9. Ola auzoa” eremuan aurreikusitako industria garapenaren desegokikeriaren inguruan, batetik, lurzoru plangintzak zein eskualdearen garapen estrategiak azalera handiagoko lurzoru industrial eskualdeko hiri nagusienetan bultzatzea erabaki dutelako eta, bestetik, Amezketako Udala garapen honek ekarri ditzakeen ingurugiro eta paisaiaren gaineko eraginaren jakitun delako, bultzatu nahi duen eredu sozio-ekonomikoarekiko guztiz bateraezina.

A3.3 EKIPAMENDU ETA ESPAZIO LIBREEN ZUZKIDUREN GARAPENA

Atal honetako jarduketa nagusiek honako garapen maila dute:

Lurzoruaren klasifikazioa	Garapen/egikaritze eremua		Azalera m ²	Jarduketa mota	Ustiapena m ² (s)		
					egun	aure.	gau.
A.I.U.4 LARRAITZEKO BIDEA							
HIRI-LURZORUA	A.E. 4.1	g.10.4.1	1.426	Zuzkidura*	0	1.400	0
A.I.U.7 JAUREGI							
LURZORU URBANIZAGARRIA	P.P. 7.1	G.10 E.C.	1.834	Integratua	0	2.420	0
A.I.U.9 OLA AUZOA							
LURZORU URBANIZAGARRIA	P.P. 9.1	f.10.9.1	5.819	Integratua	-	-	0
		g.10.9.1	3.500	Integratua	0	0	0
		g.10.9.2	875	Integratua	0	1.300	0
	P.P. 9.2		800	Integratua	0	1.600	0
SAN MARTIN							
LURZORU EZ URBANIZAGARRIA	F.10 S.G.E.L.		30.301	Zuzkidura*	-	-	0
	G.10 S.G.E.C.		1.737	Zuzkidura*	0	450	0
EMAITZA OROKORRA			46.292		0	7.170	0

* Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 139. Artikulua.

Ikus daitekeenez, ekipamendu eta espazio libre publikoetarako aurreikuspenak ez dira gauzatu, ez jarduketa integratuen kasuan, non irabazi-aprobetxamenduak garatu ez izanagatik derrigorrezko lagapenak atzeratuak edota blokeatuak izan diren, ezta zuzkidura jarduketa publikoen jarduketa kasuan, non administrazioa beraren geldotasuna nabarmena den.

A3.4 AZPIEGITURA SAREAREN GARAPENA

Ikusiko dugun moduan, atal honetan heldu da indarreko plangintza garapen maila handienera, nahiz eta garrantzi handiko esku-hartze batzuk gauzatu ez diren, gai horietan eskumena duten udalaz gaindiko administrazio eta erakundeen geldotasuna medio.

Honela, hirigunetik trafikoa kanporatzeko xedea zuen Amezketako saihebidia Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik gauzatu eta 2006 urtean estreinatu zen, egindakoa jasotzera mugatu ziren A.S.en behin betiko onarpena baino lehen, beraz.

Lurzoruaren klasifikazioa	Garapen/egikaritze eremua		Azalera m ²	Jarduketa mota	Konpet.	Gauzatzea %
A.I.U.5 SAIHESBIDEA						
KOMUNIKAZIOEN S.O.	A.E. 5.1		22.559	Ejec. de dotación*	DFG	100
A.I.U.8 INSAUSTI-ZUBILLAGA						
KOMUNIKAZIOEN S.O.	A.E. 8.1		283	Ejec. de dotación*	Ayto.	0
A.I.U.9 OLA AUZOA						
LURZORU URBANIZAGARRIA	P.P. 9.1	E.10	3.338	Integratua		0
	P.P. 9.2	E.10	5.865	Integratua		0
EMAITZA OROKORRA			32.045			70,40

* Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 139. Artikulua.

Hala ere, ur zikinen kolektore orokorra eta honi lotutako *bidegorria*, Ugarteko auzo eta hirigunearen artekoa, ez dira gauzatu, nahiz eta hirigintza eta ingurugiro aldetik berebiziko garrantzia duten ekimenak izan.

Horren arrazoiak, garrantzia handienetik txikienera, (i) saneamendu eta arazketa azpiegituren arduraduna den URA Ur Agentziaren geldotasunagatik, (ii) OLA Sektorean ekimen pribatuaren geldialdiagatik (aurretik administrazio publikoen eszeptizismoaz ohartarazi badugu ere) eta (iii) A.I.U.8 INSAUSTI-ZUBILLAGA eremuko desjabetzeekiko Udalak izandako ekimen falta dira.

A4. ESKU-HARTZE HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

A4.0 ALDERDI OROKORRAK

Parte-hartze Diagnostik ondorioztatzen den moduan, plangintza orokor berriaren **helburu nagusia Amezketak bere berezko lurralde eta natura esparruan duen ahokadura birpentsatzea** da, zailtasun sozio-ekonomiko larriak dituen eredu zaharkitua berrituz eta gaur egungo gizartearen beharretara moldatuz, azken denboraldian eta egiturazko arrazoiengatik eman den **demografiaren gainbehera itzultzeko** xedearekin.

Horretarako, derrigorrezkoa da **udalerrian bere bizi-proiektua garatu** nahi duen ororentzat baldintzak sortzea, ekonomia, lana edo gizarte arrazoiengatik alde egin behar izanik gabe. Gure iritziz, beharrezkoa da egun manufaktura industrian (Aralar Paper-fabrika) oinarritutako “monolaborantza” moduko jardunean ainguratuta dagoen **eredu sozio-ekonomikoa dibertsifikatzea**, natura eta paisaia ingurugiro paregabeak eskaintzen dituen gaitasunei esker lehen eta zerbitzu sektorea bultzatuz.

Bistakoa da helburu honek hirigintza plangintzaren eskumenetatik ihes egiten duten ekimen eta erabakien beharra duela, eta batez ere, Amezketarren parte-hartze eta konpromezuarena. Halere, ezin daiteke uka etorkizuneko HAPOk udalerrinari administrazio eta herritarren ekintza eta ikasketa bateratua erraztu eta ahalbidetuko duen jarduketa-markoa emateko erronkari aurre egiten diola.

Ildo beretik, aurrerago aurkeztuko diren izaera orokor edota sektorialeko irizpideez gain, berebiziko garrantzia du antolaketa eremuen **kalifikazio orokorretan erabilera mistoak** barneratzea, baita etorkizuneko plangintzako erabilera sistematizazioari malgutasuna emateak, lurralde garapen argi eta koherente baten ereduari uko egin gabe eta udalaz gaindiko plangintza tresna desberdinekin kontraesan edo talkak baztertuz.

Amezketako hiritarrei udalerraren etorkizunarekiko engaiamendua eta apustu irmoa eskatzen zaien momentu historiko honetan, hirigintza plangintzak ahalegin honekin bat egin behar du, ezin daitekeelarik, sarritan egin den bezala, aukeratutako sozio-ekonomia eta lurralde ereduarekin koherenteak diren eta beronen egiturazko balioak, hau da, Amezketako ekologia, paisaia eta ingurumen aberastasuna, arriskuan jartzen ez dituzten ekimenen oztopo gaindiezina bilakatu.

Testuinguru honetan landuta, eta EAEko Lurzoruari eta Hirgintzari buruzko 2/2006 Legeko II. Kapituloko hirigintza oinarri orokorren garapen modura, etorkizuneko plangintza orokorrak jarraitu beharreko irizpide nagusiak honakoak dira:

1. Garapen jasangarria. *“Oraingo belaunaldien beharrak etorkizuneko belaunaldiek euren beharrei erantzuna emateko aukerak arriskuan jarri gabe asetzea”* esan nahi bait da. Garapen jasangarria, bere hiru alderdietan banatua, ekologikoa, ekonomikoa eta soziala, hirigintza plangintzaren jarduketa esparruan honako zehaztapenetara hedatzen da:

a) ingurumen eta ekologia jasangarria:

- lurzoruaren balio natural eta agrologiako babeste eta berreskuratzea, eta honen okupazio jasangarria;
- ibai sarearen babeste eta berreskuratzea, eta baliabide hidrolagikoaren ustiapen jasangarria;
- baliabide naturalen ustiapen eraginkorra, eraginkortasun energetikoaren sustapena, energia berriztagarrien erabilera eta ekonomia zirkularra (gutxitu-berrerabili-biziklatu), hondakinen ekoizpena txikiagotuz;
- garraio publiko bidezko mugikortasun jasangarria eta oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzea, motordun ibilgailuen erabilera txikiagotuz;
- paisaiaren ezaugarrien babeste eta berreskuratzea, alderdi kulturala barne hartuz eta euskararen gaineko ondorioei arreta berezia jarriz.

b) jasangarritasun ekonomikoa:

- komunitatearen ekonomi-ongizate eta -garapena sustatzea, produkzio erabilerara bideratutako lurzoruaren nahikotasuna eta egokitzapena bermatuz;
- hirigintza plangintzak administrazio publikoengan eragiten duen inpaktua neurtzea, tokikoetan bereziki, beharrezkoak diren azpiegituren ezartze eta mantentzeengatik edo ondoriozko zerbitzuen prestazio eta abiarazteengatik;
- hirigintza plangintzak proposatutako jarduketan bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa bermatzea.

c) jasangarritasun soziala:

- herritar guztien berdintasun eta kohesio soziala sustatzea, Amezketa emakumearen egoera sozio-ekonomikoari arreta berezia emanez;
- helburu orokorren jazarpenean herritarren inplikazioa sustatzea, herritarren parte-hartze eta demokrazia zuzenaren bidez.

2. Interes publikoa. Errotik baztertu behar dugu “ez dago interes orokor eta partikularren artean benetako desberdintasunik, interes orokorra interes partikularren batuketa edo multzoa den neurrian” aldarrikatzen duen ideia. Aitzitik, gure iritziz, interes orokorra ezin da interes partikularretatik sortu, horiek edo horien batuketa gainditzen dituen heinean. Ikuspegi honen baitan, interes orokorra “borondate orokorraren” adierazpen bat da, edo guztien interesaz besterik arduratzen ez dena.

Dena den, demokratikoki hautatuak izan diren eta gaiaren inguruan eskumena duten botere publikoei dagokie hirigintza plangintzaren bidezko lurzoruaren erabileraren antolaketa egiaztatuko duen interes publikoaren definizio zehatza. Botere publiko hauek baina “borondate orokorraren” osaera Amezketar guztien esku utzi ahal eta behar dute, herritarren parte-hartze tresnen eta demokrazia zuzenaren bitartez.

Tresna hauetako batzuk burutu dira jada edo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren (HAPO) formulazio akordioarekin batera onartutako herritarren parte-hartze programan aurreikusita daude, Plan Orokorraren lanketa prozesuan zehar tresna berriak ere onartu daitezkeelarik.

3. Hitzarmena. Indarreko Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan (LAG) ezarritako inguru fisikoaren eta lurralde ereduaren markoan Amezketa “lurralderako sarbide nukleo” gisa izendatzen da Aralar Parke Naturala dela eta. Baldintza hau Plan Orokorraren idazketarako hautatutako eredu sozio-ekonomikoaren funtsezko elementu bilakatzen da, arestian aipatu bezala, bere dibertsifikazioa zein lehen eta zerbitzu sektorearen sustapena dela eta.

Nahiz eta Aralarko ondare naturalaren kudeaketak hainbat mendeko historia izan, mugakide diren udaletxeekin legeak ezarritakoaz haragoko komunikazio, kontsulta eta negoziazio sakon bat gomendagarria litzateke mesfidantzak saihestu eta enkoadraketa funtzional egokia lortzeko xedez, ereduak lurralde eta sektore plangintzaren babesa duela alde batera utzita.

4. Herritarren parte-hartzea. Arestian azaldu den moduan, jasangarritasun sozialaren oinarriko atala osatzen du, herritarrak helburu komunen jazarpenean inplikatzeko forma gisa. Ez dago errepikatu beharrik garatuko den HAPOk hautatutako lurralde ereduarekiko Amezketako herritarren identifikazioak duen garrantzia, etorkizuneko erronkei aurre egiteko baliabide eta tresna bihurtzen delarik.

A4.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIAK

Ereduaren jasangarritasun orokorraren baitan, atal honen helburu espezifikokoak hurrengoak dira:

- 1) Biodibertsitatearen eta espazio naturalen babesa eta zaintza.
 - Lurralde antolamendu sektorialek babestutako espazio naturalen araudi eta mugapena jaso, Aralar Parke Naturalari dagokionez bereziki.
 - Ingurune fisikoaren konektagarritasun eta jarraitasuna bermatu, hiri espazio libreak barne, isolatze kasuak eta beronen zatiketa saihestuz.
- 2) Ibai-sarearen babesa eta berreskuratzea.
 - Amezketa errekaren ibilgua eta ibaiertzeko landaredi naturala babestu eta berreskuratzea, ertzen birsorkuntza sustatuz.
 - Azaleko drainatze sarea babestu eta mugatu, ubide nagusiak, bere ibaiadar eta goi-ibarreko errekak barne hartuz.
 - Gaur egungo baliabide hidrológicoak eta akuiferoen kargatze ziklo naturalak babestu, arro hartzaileen landare-estalkia eta lurzorua zainduz.
- 3) Ingurumen arriskuen prebentzioa.
 - Uraldi, zarata eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen araudia aplikatu eta hauen berreskuratzea sustatu.
 - Lurzoruen malda, litologia eta geruzen antolamendua balioztatu, baita honen higakortasuna eta akuiferoen ahultasuna ere.
- 4) Nekazaritza eta baso lurzoruen babes eta birsorkuntza.
 - Baso autoktono eta nekazaritza lurzorua babestu eta indartu.
 - Kudeaketa jasangarri bidez ustiapen intentsiborako egokiak diren baso-lurzorua mugatu.
 - Nekazal eta baso-lurzoruen ziklo naturalen ingurumen kalitatea zaindu, baita bere inguru ekologikoa ere.
- 5) Paisaiaren berreskuratze eta babesa.
 - Bat ez datozen elementuen zaharberritze eta paisai-integrazio jarduketak sustatu, paper-fabrika bereziki.
- 6) Herritarren sentsibilizazioa eta ingurunearen ustiapen arduratsua sustatu.
 - Bide, bidezidor eta dibulgaziorako, balioa azpimarratu eta udal mailan babesteko interes naturalistiko berezia duten guneen katalogo bat egin.

A4.2 NUKLEO LANDATARRAK

Amezketako udalerrriak “barreiatutako” eremu zabala du, zati handi batean tipologia tradizionalako baserriez eta azken urteetan eraikitako bizitegi eraikin isolatu batzuez osatua, azken hauek zorionez erreferentziazko beste eremu batzuetan baino gutxiago ugaritu direlarik.

Bere aldetik, San Martin ermitaren inguruan antolatuta dauden Altunegi auzoko baserriek “landa-gunea” osatu lezakete, 2/2006 Legeko 29. artikulua ezarritako zehaztapenetan. Plangintzak hautatutako helburu eta irizpide orokorren markoan aztertu beharko du aukera hori.

Hala ere, atal honen helburu espezifikoak honakoak dira:

7) Baserriaren tipologia tradizionalaren berreskuratze eta babesia.

- Lurzoru ez urbanizagarrian etxebizitza erabilera soila izango duten eraikin berrien eraikuntza saihestu, gai honetan indarrean dagoen legediaren babespean, 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, nagusiki.
- Hondatuak edota erabilerarik gabeko baserrien berreskuratze eta berrerabiltzea sustatu, balizko banaketa horizontala barne, horrek inolaz ere ezingo duelarik ekarri nekazal-abeltzaintzarako erabileraren uztea eta bizitegi erabilera soilera bideratzea.
- Baserriaren eraikuntza gehigarriak antolatu eta arautu, txabolak besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintzari sostengua eta inguru fisikoaren ingurumen eta paisaiaren ezinbesteko zaintza bateragarri eginez.
- Egun indarrean dagoen “gutxieneko lurzattia” (40.000 m²) txikitu daitekeen aztertu, banaketak egiteari dagokionez, eta baserriaren nekazal eta abeltzaintza jardueraren oraingo eta etorkizuneko mantentze eta berreskuratzearen gainean izan ditzakeen ondorioak aztertu.

8) Azpiegitura eta zerbitzu egokien zuzkidurak.

- Tokiko bide sarea finkatu herrigunea eta inguruko barreiatuen arteko komunikazioa hobetzeko xedez.
- Bedaioko (GI- 3711) eta San Martingo errepideak Altzai eta Urkulaparte auzoen bitartez lotzeko aukera balioztatu, ez errepide nagusiaren (GI-2133) alternatiba gisa, erakargarritasun natural handia duen eta eremu landatarra artikulatzen duen bigarren mailako ibilbide bezala baizik.
- Udalerriko bizitegi eremu guztietan argiteria, gasa eta edateko uraren hornikuntza sareak osatu eta hobetu.

A4.3 HIRI INGURUNEA

Hiri ingurunea udalerriko asentamendu sistema nagusi gisa ulertzen dugu, aranaren hondoan eta ibaiaren ibilgua jarraituz kokatzen dena eta Ugarte, Ola eta Zubillaga auzoez osatua dagoena, Amezketako herrigunea beraz gain, azken hau, Alegialdea, Herrigunea (edo erdigunea) eta Ergoene-Kotxeta auzoez osatua dagoelarik.

Hiriguneak, gainera, Aralar paper-fabrikako instalazioak barne hartzen ditu, bere garrantziagatik arreta berezia beharko duen eta testuinguruz zein eskalaz kanpo dagoen elementua.

Atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

- 9) Hierarkizatutako eta gune-anitzeko kokaleku sistemaren finkatzea.
 - Hiriguneko grabitate-zentroaren haranerantzko mugimendu jarraia irauli, Ergoene-Kotxeta auzoaren gainbehera ekidin eta beronen birsorkuntza pertsonen zirkulazio fluxu jarraia bermatuko duen ekipamenduen kokapenaren bitartez bultzatuz.
 - Ugarte eta Ergoene auzoak landalurra eta hirigunea mugatu eta asentamendu sistema errematatzen duten buru gisa garatu.
 - Herriguneko hierarkia eta erreferentzialtasuna indartu, ekipamendu zuzkidurak eta espazio publikoen hiri-kalitatea hobetuz, eta merkataritza eta ostalaritza jarduerak sustatuz.
 - Larraitz-bidea eta Alegialdea eremuen funtzioa hirigunearen hiri-pieza osagarri gisa garatu, hiriguneari pisu demografikoa eta bertan ez dauden bigarren mailako erabilerak emanaz.
 - Herrigunea haranerantz haztea eta erreka-ertzen kolmatazioa saihestu, gaur egungo asentamenduen izaera periurbanoa finkatuz.
- 10) Asentamendu sistemaren artikulazioa.
 - Erdigune eta Ergoene-Kotxeta arteko hiri komunikazioa eta irisgarritasuna bermatu, Aralar paper-fabrikako instalazioek eragindako estugunea gaituz.
 - Herrigunea eta Ugarte auzoaren arteko oinezko eta txirrindularientzako bidea gauzatzea aurreikusi eta erraztu, GI- 2133 errepideari paralelo, edo aldiz, Amezketa Ibaiari.
- 11) Hiri-paisaiaren ezaugarrien babesa.
 - Hiri-agertokia espazio publikoaren arabera antolatu, espazio libre desberdinen jarraitasuna eta konektagarritasuna aztertuz.
 - Proposatutako dentsitate eta tipologia lurraldearen ahalmenaren eta udalerraren izaeraren arabera egokitu.

- Gaur egungo paisaia industrialia hirigintza aldetik hobetu, Aralar paper-fabrikako instalazioen hiri-enkoadraketa bereziki.

A4.4 BIZITEGI LURZORUA

Udalerraren egungo egoeraren diagnosiak ikusarazi du gainbehera demografiko jarraia ez dela bizitegi eskaintza eskasaren ondorio, Amezketak egun 135 etxebizitza huts baititu eta indarreko A.S.etan aurreikusitako etxebizitzaren %10 besterik ez bait da gauzatu, hau da, planifikatutako 225 etxebizitzetatik 22, horietatik 10, gainera, aurretik eraikita zeuden etxebizitzak ordezkatu dituztelarik.

Horren harira, *Amestu Amezketa* parte-hartze prozesuak ezarri duen irizpideetako bat etxebizitza arloko herritarren etxebizitza kultura, egun etxebizitza jabetzan eskuratzean oinarritua dagoena, birdefinitzean datza, alokairua, aldi baterako edo behin betirako, bizitzeko modu bezala sustatzera pasatuz. Dena den, eskaera handitzea ez da nahikoa eta etxebizitza politikek eskaintzan ere eragina izan beharko lukete, egun hutsik dauden etxebizitzaren zati bat alokairu gisa merkaturatzeak plan orokorraren eskumenetatik kanpo dauden jarduketak eskatzen baditu ere.

Nolanahi ere, atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

12) Udalerraren bizitegi ahalmenaren berrikustea.

- bizitegi ahalmena 4/2016 Dekretuaren arabera kuantifikatu, egindako diagnostik eratorritako aldagai eta osagarri sozio-demografikoak aplikatuz.
- Indarreko lurralde ereduari zuzenketak egin, Amezketaren bere lurralde eta natura eremuarekiko enkoadraketa berdefinitzeko xedez eta LAGek udalerrirako ezarritakoaren babespean.
- Antolamenduan betegabeko ahalmena berrikusi jasagarritasun eta zilegitasun irizpideen baitan.
- Udalerriko bizitegi ahalmena birbanatu eta antolatu azkenean hautatuko den kokaleku sistemaren arabera.

13) Etxebizitza duin baterako eskubidea.

- Alokairuaren merkaturatzean etxebizitza hutsak jartzea proposatu, bere kompetentzietan, lizentzien ematea konpromezu zehatzetara baldintzatuz.
- Babestutako etxebizitzak alokairu sozialen erregimenarekin sustatu, araututako estandarrak alde batera utziz.

- Biztanleriaren zahartze tasaren igoerak dakartzan arazoei aurreratu, eremu landatarrean batez ere, biztanleriaren hirigunerako mugimendua aurreikusiz.
- 14) Etxebizitza parkearen jasagarritasuna.
- Zaharkituak, degradatuak edo irisgarritasun arazoak dituzten guneen birsorkuntza ahalbidetuko duten jarduketak sustatu.
 - Bizitegi garapena mailaz mailako moduan eta zerbitzu eta ekipamendu zuzkidurekin orekatuta programatu.
 - Bizigune eremu berrien etxebizitza tipologia eta dentsitateak kokapen, topografia eta hiri-ingurunearen ezaugarrien arabera egokitu, guztiaren gainetik balio natural eta paisajistikoak gordez.
 - Gaur egungo eta etorkizuneko etxebizitza eraikinen eraginkortasun energetikoa eta ekoizpen endogenoko energia berriztagarrietan oinarritutako instalakuntza kolektiboen proiektuak sustatu.

A4.5 JARDUERA EKONOMIKOAK

Lehen azaldu bezala, Plan Orokorraren funtsezko helburua udalerriko eredu sozio-ekonomikoa dibertsifikatzean datza, horretarako, diru kontu soiletik haratago doan garrantzia duen lehen sektorea, eta zerbitzu sektorea, tokiko ekonomian duen pisu mendrea duen eta gure iritziz formakuntza maila altueneko emakumezko eta gaztediari aukera zabalak eskaintzen dizkion turismoa barne, bultzatzea ezinbestekoa delarik.

Honen harira, azpimarratu beharra dago turismoa ez dela jarduera ekonomiko isolatutzat hartu behar, udalerriko zerbitzu sareko zati banaezin bezala baizik, eta halakotzat, Amezketako herritarren zerbitzura egon behar du. Honela, inguruko ezaugarriak kontuan hartzen dituen sektore turistiko batek sarea osatzen duten beste zerbitzuekin sinergiak sortzeko gai da, horrela lurralderako eredu ekonomiko berri bat sortuz, sektoreari arrunki lotzen zaizkion hainbat arazo ekidinez.

Beraz, atal honetako helburu zehatzak hurrengoak dira:

- 15) Basogintza eta landa-abeltzaintzaren babesa eta sustapena.
- Baserriaren egungo zein etorkizuneko nekazal-abeltzaintza ekoizpen ahalmena mantendu, landa eremua higiezinaren presiotik babestuz.
 - Landa eremuko biztanleriaren belaunaldi erreleboa sustatu, baserriaren jarduera eta bizitegi-ekoizkor funtzio mistoa zaintzeko xedearekin.

- Nekazal- eta abeltzaintza-produktuen lehen eraldatze jarduerak eta horiek udalerrian bertan, landa ingurunea eta eremu periurbanoak barne, merkaturatzea sustatu.
 - Basogintza jarduera eta lehen eraldatzea sustatu, bai egungo zerrategiei bai udalerriko ahalmen handiko energia berriztagarriei (biomasa) lotutako jarduera berriei dagokionean.
- 16) Zerbitzu sektorearen garapena.
- Komertzioa eta ostalaritza hiriguneko elementu bereizgarri bezala kontsolidatu.
 - Zerbitzu jarduerak hirigunean tokitzea sustatu, Alegialdean batez ere, erdigunearen osagarri funtzional gisa eta erabilerarik ez duten behe solairuen alternatiba moduan.
 - Lurraldearen ezaugarriekin koherentea den sektore turistikoa bat sustatu, azpiegituren (hotelak, aterpeak, kanpalekuak, ekipamenduak...) aurreikuspena eta erlazioetatutako zerbitzuen bitartez, bai herrigunean baita landa eremuan ere.
 - Hirugarren adinekoentzat bizitegi, asistentzia eta aisialdirako jarduerak sustatu, tokiko biztanleriaren zahartzeari erantzun diezaiokien sektore ekonomiko eta laboral moduan.
 - Indarreko lurralde ereduaren zuzenketari dagozkion zerbitzuak eta bigarren etxebizitzaren sustapena aurreikusi.
- 17) Industria jarduera endogenoen finkatzea.
- Aralar paper-fabrikaren industria jarduera mantendu eta bere instalazioen ingurumen eta hiri integrazioa hobetu.
 - Egungo Herri Eskolaren lurzatiaren desafekzioa eta erabilera industrialaren osagarri (bulegoak) diren irabazizko erabileren esleipena aztertu, udalerriko eremu urgainetagarrietatik kanpora balizko tokialdatzearen harira.
 - Alegiko bideko (Zubillaga) poligonoan dauden egungo jarduerak beste kokapen batetara lekualdatzea balioztatu.
 - Lapatza industrialde berria aurreikusi eta antolatu, gaur egun aurreikusia dagoen Ola Sektorearen ordeztatu.
 - Egungo Zazpitarriko zentral hidroelektrikoa finkatu eta udalerriak dauzkan baliabide hidrologiko anitzen ustiapenerako azpiegitura berrien balizko eraikuntza edo handitzea aztertu.

A4.6 EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO PUBLIKOAK

18) Ekipamendu zuzkiduren garapena eta finkatzea.

- Ekipamendu publikoen zuzkidurak hirigunearen elementu bereizgarri gisa garatu eta finkatu.
- Espezifikoki Amezketako emakume eta gazteei zuzendutako bilera-gune iraunkorren zuzkidura berrantolatu edota handitu.
- Ekipamendu publiko edota pribatuen zuzkidura handitu asentamendu sistema errematatzen duten bi poloetan, hau da, Ugarte eta Ergoene auzoetan, pertsonen eguneroko fluxua ziurtatzeko helburuarekin.
- Egungo Herri Eskola eremu urgaineztagarrietatik kanpo birkokatzeko aukera ezberdinak aztertu.
- Kirol ekipamenduen zuzkidura hedatu.
- Etxebizitza sozialak eta zuzkidura-bizitokiak barne-hartzeko udal ondarearen erabilera aztertu, gazteriaren emantzipazio beharra eta tokiko biztanleriaren zahartzeari dagozkion beharrak modu bateratuan ebazteko asmoz.
- Indarreko lurralde ereduaren zuzenketari dagokion ekipamendu zuzkidura eta bigarren bizitegiaren sustapena aurreikusi, udalerriz gaindiko edo eskualde izaerakoak barne, indarreko Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan ezarritakoaren babesean.

19) Espazio publikoen hiri-kalitatearen hobetzea.

- Espazio publiko adierazgarriak hiriguneko elementu bereizgarri gisa finkatu eta garatu.
- Hirigunean ibilgailu pribatuen trafikoa eta aparkamendua minimizatu eta, ahal den neurrian, Amezketa erreka eremu publikoan txertatu, bere hiri-kalitatearen ingurumen eta paisaia elementu bereizgarri moduan.
- Ugarte eta Ergoene harremanerako espazio publikoek hornitu, herritarren gizarte kohesioa sustatu eta asentamendu sistemako bi poloak finkatuz.
- Espazio publiko osoaren irisgarritasuna eta segurtasuna bermatu..
- Espazio publikoak bertako landarediaren eta animalien aniztasuna barne hartzen dituen eta hiri ingurunea lurralde eremu naturalarekin lotzen duen azpiegitura ekologikotzat hartu eta proiektatu.
- San Martinen kokatzen diren espazio librean sistema orokorra berrantolatu eta, hala badagokio, birkokatu.

A4.7 GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUNA

Udalerriko asentamendu sistema GI-2133 errepidea eta Amezketatik Ergoenera doan saihesbidearen bitartez artikulatzen da egun eta horietan oinarritzen da landa eremua eta barreiatu zabala lotzen dituen izaera lokaleko bide sarea.

Honi guztiari asentamendu sistema errematatzen duten bi poloak, hau da, Ugarte eta Ergoene auzoak, hirigunearen erditik elkartuko lituzkeen oinezko eta bizikletentzako ardatza gehitu behar genioke, Ugarte eta herrigunearen arteko bidegorri proiektuak gauzatu gabe jarraitzen badu ere.

Dena den, atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

20) Mugikortasun jasangarriaren sustapena.

- Ugarte eta Ergoene arteko oinezko eta txirrindularientzako ardatza behin betiko aurreikusi eta gauzatu, zeharkatzen dituen eremu bakoitzerako neurri zehatzak ezarriz.
- Proiektatua dagoen bidegorriaz kanpo, Ugarte eta erdigunearen artean errekarari paralelo izango den oinezkoentzako bide alternatibo bat gauzatzearen aukera aztertu.
- Ekipamendu eta espazio publikoen irisgarritasuna bermatu.
- Oinezkoentzako ibilbide sare lokala mantendu eta osatu.
- Eskualdeko garraibide publikoen azpiegiturak eta ibilbideak berrantolatu (*Tolosaldea bus*) segurtasuna eta eremu periurbanoen komunikazioa bermatzeko.

21) Ibilgailu pribatuaren integrazio eraginkorra.

- GI-2133 errepidean, Ugartetik, trafikoa moteltzeko neurriak ezarri, baita Kotxetarainoko saihesbidean ere.
- Gaur egungo zein proiektatutako garraio azpiegiturek biztanlerian eragiten dituzten erasanak aztertu: kutsadura, zarata, hesi efektua, etab.
- Ibilgailu pribatuen trafiko eta aparkamendua minimizatu hirigunean eta zeharkatzen duen kale nagusia oinezko eta txirrindulariei bideratu nagusiki.
- Hirigunetik kanporatutako ibilgailu pribatuen aparkamendua eta trafikoa berrantolatu Larraitz bidea eremuan, egungo disuasio-aparkalekua barne.

22) Landa eremuko bide sarearen mantenu eta garapena.

- Bedaio (GI-3711) eta San Martingo errepideak Altzai eta Urkulaparte bidez lotzeko aukera aztertu, ez errepide nagusiaren (GI-2133) alternatiba moduan, erakargarritasun natural handia duen eta eremu landatarra artikulatzen duen bigarren mailako ibilbide bezala baizik.

A4.8 AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK

23) Ur edangarriaren horniketa sarearen hobekuntza.

- Hartune puntu eta arroetako ur kalitatearen zaintza, lurzoru ez urbanizagarriko ordenazio kategorien eta baldintzatzaile gainjarrien erabileren arauketaren bidez.

24) Saneamendu sarearen hobekuntza.

- Ergoenetik udalerriko mugaraino ur fekalen hodi biltzaile orokorra gauzatzea aurreikusi eta erraztu.
- Hiri eta etxeko sareen bikoizketa bultzatu eta sustatu, bai gaur egun daudenak bai berriak, unitarioetatik banatzaileetara.

25) Jasangarritasun irizpideen aplikazioa argiteria publikoari.

- Sare berriak etekin energetikoen irizpideekin diseinatu.

A4.9 ONDAREA

26) Ondare arkeologiko eta eraikiaren kontserbazioa eta balioaren nabarmentzea.

- Euskal Herriko kultur ondare katalogoko elementuak, dagokien babes mailarekin, edo udal mailan babesteko proposatutakoak, Plan Orokorrean sartu.
- Aipatu katalogoan jasota ez dauden elementu arkeologiko eta eraikiak babesteko proposatu, garrantzi historiko berezia edo herritarren memoria kolektiboan duten oihartzunagatik.
- Udalerriko ondare natural eta inmaterialarekin batera, ondare arkeologiko eta eraikiaren balioa nabarmendu, indarreko lurralde ereduaren zuzenketarako ezinbesteko elementu gisa.

27) Ondare inmaterialaren kontserbazioa eta zaintza.

- Plangintzak Amezketan Euskararen inguruan eragin ditzakeen ondorioak aztertu, hizkuntzaren kontserbazio gune edo "harnasgune" gisa.
- Bizi eredu eta bizibide tradizionalak zaindu, hirigune zein ingurune periurbano nahiz landa inguruneko bere habitat naturalak mantenduz.

A5. BIZITEGI- KUANTIFIKAZIOA

A5.1 AURREKARIAK

Bizitegi kuantifikazioa 4/2016 Dekretua, urtarrilak 19koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi- kuantifikazioari dagokionez delakoak arautzen du.

Hala, 2018ko martxoaren 5ean, Aurrerakin agiri honen idazketa aldian, Amezketako Udalak Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko behin behineko onarpenaz berri ematen duen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren jakinarazpen bat jaso du, baita informazio publiko eta entzunaldirako tramitearen irekieraren inguruan ere (EHAA, 2018ko otsailaren 28an).

Jakinarazpen honi atxikita “gaur egun erabilgarri dagoen informazio estatistikoarekin eta hasierako onarpena jaso duen dokumentuan zehaztutako irizpide berriein bat sortzen den (etxebizitza) ahalmenaren ondoriozko emaitza” igortzen da. Emaitza jasotzen duen taula ondoren transkribatzen da:

UDAL HIRI-PLANGINTZAN AURREIKUSI BEHARKO DEN ETXEBIZITZEN AHALMEN MAXIMOAREN KALKULUA											
2018ko otsailaren 20an EAEko Lurralde Antolamendurako Gidalerroen Berrikuspenean ezarritako irizpideen arabera											
Udalerria:		AMEZKETA									
Udalerrriaren biztanleria		Biztanleria aldakuntza %	Etxe. Kop.	2018- 2026 denboraldian bizitegi beharrak (BB)						Biztanle. harrotze faktorea	Etxe. ahalmen max.
				Etxebizitza nagusia		Bigarren etxebizitza	Etxebizitza hutsak		BB totala		
1996	2016	1996-2016	2016	A1	A2	B1	C1	C2	EG	Har.	Egoi. Kop.
1.005	921	-0,22	472	-7	21	0	1	-9	6	3,00	47 (*)

(*) Beti aurreikusi daitekeen egoitza-ahalmen minimoa (bertan dauden etxebizitzaren kopuruaren %10a)

Hala ere, Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren idazketarako diagnosi fasean fidagarriagotzat ematen dugun *in situ* eskuratutako informazio eguneratua bildu da, jarraian azalduko den kalkulu espezifikokoari bide emango diona. Halaber, indarreko lurralde ereduari aplikatutako zuzenketa araberako lan hipotesi desberdinak aurkezten dira.

A5.2 KUANTIFIKAZIOA

LEZ. Indarreko lurralde-ereduaren zuzenketa.

Tolosaldeako Lurralde Plan Partziala (LPP) ez da onartua izan, Aurrerapenak Amezketarako osagarri espezifikorik aurreikusten ez badu ere.

Aitzitik, indarrean dauden Lurralde Antolamendurako Gidalerroek Tolosaldea eta Amezketako etorkizuneko lurralde ereduak zehaztuz garrantzitsuak ezartzen dituzte, ondorioz, Plan Orokorreko bizitegi kuantifikazioan eragin nabarmenak dituztelarik. Adibidez:

- Bigarren bizitegiaren garapena sustatuko da. Bigarren bizitegia egungo hiriguneetan edo horien inguruko eremuetan ezarriko dira, lurraldera sartzeko gunetzat jotzen direnetan batik bat.
- LAGek proposatutako aisialdi eremuen artean, hurrengoak Toloserriko Eremu Funtzionalen kokatzen dira: Murumendi, Aralar, Amasa Mendi-Belabieta eta Gaztelu. Aldi berean, Albiztur, Bidania-Goiatz, Amezketa eta Abaltzisketa lurraldera sartzeko gunetzat jotzen dira.

Beraz, Plan Orokorreko bizitegi-kuantifikaziorako aintzat hartutako alternatiba desberdinen artean, bigarren egoitza indarrez sustatzeko aukera jasotzen da, zehazki, 2027an udalerrian 5 etxebizitzatik 1 bigarren erabilerako izatea aurreikusten da.

A. Etxebizitza nagusiaren beharrak.

Honako Plangintzaren berrikuspenaren harira egindako diagnosiaren arabera, 2017-2027 denboraldirako aurreikusitako biztanleri aldaketa %-1,5ekoa da, hau da, 941 biztanletik 927 biztanlera jaitsiko da (2017ko apirileko errolda datuak), soilik biztanleriaren eboluzio naturala kontuan izanda eta ez eman daitezkeen migrazio posibleenak.

Bestalde, atxikitako koadroan jasotzen da bai 2017an baita 2027rako aurreikusten den proiektiorako batezbesteko familia-tamaina (BFT).

Batezbesteko familia-tamaina eta kopurua			
Kideak	2017	2027 (1)	2027 (2)
1	104	102	101
2	82	86	86
3	67	68	68
4	59	56	56
5	25	23	23
≥ 6	17	18	18
GUZTIRA	354	353	352
Batezbesteko familia-tamaina	2,6328	2,6204	2,6250

Azterketa bi kasuetan udalerraren eboluzio naturalaren arabera burutu da. (1) Kasua: Adinaren araberrako azterketa. (2) Kasua: adina eta sexuaren araberrako azterketa.

Beraz:

Osagarria	Aplikaturako formula	Etxebizitza kopurua
A1. Bertako biztanleriaren aldaketagatik	$(B_f - B_i) / BFT_t$	-5
A2. Famili tamainaren aldaketagatik	$B_i \times (1/ BFT_f - 1/ BFT_i)$	+1
A. Egoitza nagusirako beharrak	A1 + A2	-4

B. Bigarren etxebizitzaren eskaria.

Bigarren etxebizitza koefizientea (BEK) %2 inguruan egonkor mantendu da azken hamarkadetan zehar, periodoaren hautemate globala aldatzen ez duen gorabehera logikoekin, eta hortaz, 2027rako aurreikusitako (1) hipotesiak parametro berdinak mantenduko ditu, B2 osagarriaren emaitza 0 delarik. Hala eta guztiz ere, azaldu dugun moduan, bigarren bizitegia sustatzen duen indarreko lurralde eremuaren zuzenketa aurreikusten da, modu honetan 2027 urterako (2) hipotesian udalerriko 5 etxebizitzatik 1 bigarren erabilerakoa izango litzatekeelarik (BEK = 1,20). Hau da:

Osagarria	Aplikaturako formula	Etxebizitza kopurua	
		(1)	(2)
B1. Etxebizitza nagusiaren aldaketagatik	$(A1 + A2) \times (BEK_f - 1)$	0	-1
B2. BEKaren aldaketagatik	$(P_i/BFT_i) \times (BEK_f - BEK_i)$	0	+64
B. Bigarren etxebizitza eskaria	B1 + B2	0	+63

C. Etxebizitza hutsen aurreikuspena.

Herritarren parte-hartze prozesuak zehaztu du Plan Orokor berria indarrean egongo den denboraldirako politika publikoen helburuetako bat Amezketan egun ematen den etxebizitzaren kultura aldatu beharra izango dela, alokairua sustatu eta antzemandako etxebizitza huts ugariak merkaturatzera bultzatuz. Momentu honetan baina, ezinezkoa da politika horien arrakasta edota helburu horretan eragina izan dezaketen etorkizuneko agertokiak iragartzea, eta hortaz, 1000 biztanle baina gutxiagoko udalerriei dagokien tasa teknikoa hartuko da (EHK = 1,08). Hau da:

Osagarria	Aplikaturako formula	Etxebizitza kopurua	
		(1)	(2)
C1. Okupaturako etxebizitzaren aldaketagatik	$(A1 + A2 + B1 + B2) \times (EHK - 1)$	0	+5
C. Etxebizitza hutsen aurreikuspena		0	+5

BB. Bizitegi beharrak.

Amezketako Hiria Antolatzeko Plan Orokorrak izango duen iraunaldian aurreikusitako etxebizitza parkearen handitzearen balioztapena.

Osagarria	Aplikaturako formula	Etxebizitza kopurua	
		(1)	(2)
BB. Bizitegi beharrak	$A1 + A2 + B1 + B2 + C1$	-4	+64

Honako kalkuluak emandako egoitza beharrak LAGen Berrikuspenean ezarritakoekin alderatuz gero, (1) hipotesia nabarmenki berdintsua dela ondorioztatuko dugu, hau da, biek aurreikusten dute egoitza behar kasik nulua, udalerriko etengabeko gainbehera demografikoa dela eta, batik bat. Aldiz, (2) hipotesiak LAGen Berrikuspenean aurreikusten ez duen indarreko lurralde ereduaren zuzenketa bat proposatzen du.

BA. Bizitegi ahalmena.

1000 biztanletik berako udalerriei aplikatu beharreko harrotze faktorea $HAR = 3,00$ da. Bestalde, Amezketak egun 135 egoitza huts dauzka, existitzen diren egoitzen %8 kendu beharko zaiena (= 491 etxebizitza) izaera teknikoazko etxebizitza huts gisa. Hau da: $EH = 135 - (491 \times \%8) / 2 = 48$ etxebizitza.

Osagarria	Aplikaturako formula	Etxebizitza kopurua	
		(1)	(2)
BA. Bizitegi ahalmena	$(BB \times HAR) - EH$	-60	+144

A5.3 ONDORIOAK

(1) hipotesia 4/2016 Dekretuak ezarritako mugetatik kanpo gelditzen da, non "udalerririk orok haserako etxebizitza-parkearen %10aren pareko bizitegi-ahalmena proposatu ahal izango du" jasotzen den.

Beraz, gutxieneko etxebizitza-ahalmena ($491 \times \%10 =$) **49 etxebizitzetan** finkatuko da, LAGen Berrikuspenean ezarritako hasierako parkea gorantz zuzenduz.

(2) hipotesiak, lurralde ereduaren zuzenketa dagokionak, **144 etxebizitzako** gehienezko muga ezartzen du.

Edozein kasutan, gogoratu beharra dago indarreko A.S.ek gauzatu ez diren 183 etxebizitza berriren bizitegi programa antolatzen dutela. 183 etxebizitza hauetatik, 25 dira hiri lurzoruan gauzatu beharreko zuzkidura jarduketeki dagozkienak. Gainerako 158 etxebizitzak hiri lurzoru eta lurzoru hiriztagarrian garatu beharreko bizitegi berrien jarduketa integratuei dagozkie.

Hiri lurzoruko eta lurzoru hiriztagarriko bizitegi garapen berrien egoitza programa (159 etxebizitza) (2) hipotesian garatutako bizitegi-ahalmenaren arinki gainditzen duela antzeman dezakegu (144 etxebizitza). Hau da, indarreko plangintzaren bizitegi izaerako aurreikuspenen mantentzea lurralde ereduaren zuzenketetari eta bigarren etxebizitzaren sustapenari lotua ageri da ezinbestean, indarreko Lurzoruaren Antolamendurako Gidalerroek Amezketa udalerrirako ezarritakoaren baitan.

Indarreko plangintzan aurreikusitako beste 44 etxebizitzak, hiri lurzoruko zuzkidura jarduketeki dagozkienak, 4/2016 Dekretuak beraren baitan finkatu litezke, izan ere, “udal-plangintza berrikusteko prozesuetan, indarreko plangintzaren bizitegi-ahalmena honako berriskupeneko irizpideetatik eratorritakoa baino handiagoa denean (...) ahalmen handiagoa errespetatu ahal izango da, betiere hiri-lurzoruaren birgaitze, berritze edo bir-dentsifikazio jarduketetatik eratorritako indarreko plangintzaren ahalmena gainditu gabe”.

A6. ANTOLAMENDU PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK

A6.0 SARRERA

Lehen azaldu bezala, Plan Orokorraren helburu nagusia azken sei hamarkadetan Amezketa jasaten ari den biztanle gainbeherari aurre egin eta , posible bada, lehengoratzea da. Xede hau burutzeko diagnosian ezegonkortasun demografiko honen jatorria udalerriko eredu sozio-ekonomikoan dago, gaur egun arte nagusi izan dena, non nahiz eta krisi garaian ere ongizate maila ziurtatua izan, ez du biztanleria osoaren lan- sartzea ahalbidetzen, balantze migratzaile negatibo bat eraginez.

Beraz, Aurrerakin honetarako landutako antolamendurako lau alternatibak gaur egungo A.S.en aurreikuspenen finkatzeak (0 alternatiba) indarrean dagoen lurralde ereduaren zuzenketa sakonetara doa, Amezketa bere lurralde eta natura eremuetan integrazeko helburuarekin eta udalerriko eredu sozio- ekonomikoa dibertsifikatzearekin beti ere, lehen sektorea eta zerbitzuak sustatuz (3 alternatiba).

1 eta 2 alternatibak aurretik izendatutako lurralde ereduaren zuzenketarako erdibideko faseak dira, bakoitzak antolamendu guztiz bideragarri eta koherente bat proposatzen du, indarrean egongo den periodorako anbizio handiagoak edo txikiagoak diren helburuekin. Hala ere, alternatiba bakar bat ere ez da eredu itxi bat, lurralde eta sektore proposamen desberdinak konbinatzea ahalbidetzen dute planteatutako erronka desberdinei erantzun emango dioten bukaerako eredu bat aukeratuz.

Bestalde, aurkeztutako alternatiben arteko funtsezko desberdintasuna ez da oinarritzen udalerriak duen bizitegi ahalmenean, lurralde ereduaren zuzenketako azken ondorioak bakarrik (3 alternatiba) bermatzen baitu indarrean dagoen antolamenduak proposatutako eta ez gauzatutako etxebizitza kopurua. Hau da, desberdintasun nagusia etxebizitza kantitate garrantzitsu bat bigarren etxebizitzara bideratzea da eta honek antolamenduan dituen ondorioei aurre egitea.

Nolanahi ere, antolamendu orokorraren arrakastak eta planteatutako helburuen lorpenak udalerriko ingurumen eta paisaia ezaugarri aparten garrantzitsutzat jotzetik igarotzen dira, landa-abeltzaintza eta basoen ustiapenak bateragarri eginez ingurumenera lotutako turismo sektorearen sustapenarekin, ereduaren jasagarritasun ekologiko eta soziala ziurtatzeko asmoz.

A6.1 PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK LURZORU HIRITAR ETA URBANIZAGARRIAN

0 Alternatiba

Alternatiba hau indarreko Antolamendurako Arau Subsidiarioek ezarritako antolamendu orokorrari dagokio, 2007an behin- betiko onartuak, aurreko ataletan nahikoa aztertuak izan direnak. Hala ere, hauen aurreikuspenen garapen maila nabarmentzekoa da, hirigintza legediari (2/2006 Legea) eta bere onarpenetik indarrean sartu den lurralde eta arloko antolamenduari egokitze falta.

Parrafo honen azpian atxikitzen den koadroak 0 Alternatibako aurreikuspenak laburbiltzen ditu, erabilera orokorretan banatuak daudenak, aurretik gauzatutakoak edo indarreko A.S.ek babestutakoak baztertuz. Beraz, alternatiba honen parametro orokorrak hurrengoak izango dira:

0 Alternatiba									
A.I.U. eremua	Azalera m ² (l)	Erabilera Orokorra							
		Bizitegiak		Jard. Eko.		Ekip. zuzkidurak		E. libre + Ibai ibilgua	Azpieg. eta Zerb.
		Azalera	Gehitze	Azalera	Gehitze	Azalera	Gehitze		
		m ² (l)	Kop.	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)
1 Ergoene	53.977	44.645	44	-	-	4.546	-	2.115	2.671
2 Papelera*	53.274	1.214	-	49.628	-	-	-	1.027	1.405
3 Hirigunea	21.179	16.226	17	-	-	459	-	4.192	302
4 Larraitz	22.729	18.601	36	-	-	2.183	1.400	1.287	658
5 Saihesbidea	20.417	-	-	-	-	-	-	182	20.235
6 Alegialde	21.532	20.052	6	-	-	-	-	1.326	154
7 Jauregi	21.827	19.795	66	-	-	1.832	2.420	200	-
8 Insa.-Zubi.	23.721	13.399	4	4.404	-	-	-	1.541	4.377
9 Ola	69.054	-	-	58.674	16.848	-	-	1.859	8.521
10 Ugarte	12.142	9.137	10	-	-	842	-	1.104	1.059
TOTALA	319.852	143.069	183	112.706	16.848	9.862	3.820	14.833	39.382

*Tramitazioan dagoen A.A.S.S.en Aldaketa Puntuala barne hartzen du, 2016/09/29an behin-behinean onartua; ez da eraikigarritasunean gehikuntza bat ezartzen, gaur egun aurreikusitakoa gauzatzen baitago.

0 Alternatiban, gaur egun indarreko antolamendu orokorrean, aurreikusitako 183 etxebizitzetatik 25 jarduketa isolatuei edo zuzkidura jarduketei dagokiela azpimarratzea beharrezkoa da, arrazoi horregatik bizitegi ahalmenen aurreikuspena 158 etxebizitzetakoa izanik. Dena den, alternatibak bizitegi programa hau justifikatzen ez duen indarreko lurzoru eredua finkatzen du, LAGen kuantifikazioan eta Memoria honen A5 atalean argi azaltzen den bezala.

1 Alternatiba

Alternatiba honek indarreko antolamenduan aldaketa batzuk ezartzen ditu, H.A.P.O.ak ezarritako helburu eta irizpideak azpimarratu asmoz. Aldaketa hauek hurrengo antolamendu proposamen orokorretan zehazten dira:

- Ergoenen espazio libreen lursail bat antolatzen da, herritarrei harremanetarako gune bat bermatzeko eta asentamendu sistemaren burutze funtzioa indartu asmoz, eta horretarako, 18 etxebizitzetara murrizten da egun aurreikusitako bizitegi programa; gaur egungo errota erkidegoaren ekipamendurako zuzkidura erabilerara bideratzea ere aurreikusten da, eta egun 2 etxebizitzako bizitegi partzela bat dena ostatu erabilerara aldatuko da, GR-20 ibilbidearen ertzean.
- Herri Eskola Larraitz-bidea eremura mugitzea proposatzen da, bere egungo kokapenak zuzkidura izaera mantenduko duen arren, uholde arriskuarekin bateragarria izan beharko duen erabaki gabeko erabilera berria eskainiz.
- Hirigunea eremuaren mugaketa aldatzen da udalerriko ekipamendu publiko nagusiak ezarritako alde batetik eta espazio publikoaren kalitatea hobetzeko aparkalekuak ezabatuz bestetik.
- Larraitz-bidea eremua handitu egiten da, Herri Eskola berria, espazio berdeak eta jarduketara ekonomiko tertziarioak antolatzeko asmoz, erdiguneak behar dituen aparkalekuak eta trafiko ordenazioa bermatuz gainera.
- Alegialde eremuan bizitegi-zerbitzu erabilera mixto bat proposatzen da, zirkulazio noranzko bakarrarekin, trafikoa geldotzeko oinezkoak eta ibilgailuak bateratuko dituen. Ondorioz, gaur egun antolamendutik kanpo dauden etxebizitzak finkatu egingo dira ibilgailuentzat oztopo bat izateari uzten diotelako.
- Jauregi eremuko bizitegi garapena 32 etxebizitza berrietara mugatzen da, bigarren etxebizitzara bideratuak daudenak batez ere, eta GI- 2133 errepide ondoko eremuko frontea espazio libreen sistema orokor moduan sailaktuko da, aranaren kolmatazioa saihestu asmoz, eta Jauregi eta Insaustiren izaera periurbanoa kontsolidatuz.
- Insausti-Zubillaga eremuaren indarreko antolamendua finkatzen da, ondoko poligono industrialerako sarrera eremu honetan zehar bermatzeko beharrezkoak diren aurreikuspenak egiten diren arren.
- Olako eremuaren azalera murrizten da, orain Lapatza izenekoa, eta 2015eko azaroan behin- behinean onartu zen Arau Aldaketa Puntualeko antolamendua hartzen da.

- Hirigintza eremu berri bat sortzen da, Olalde izenekoa, alde batetik, izen bereko auzotik igarotzen den GI-2133 errepideko trafikoa antolatu asmoz, eta bestetik, jarduketa ekonomikoen ustiapen berriak aurreikusi asmoz, edonola nekazaritza edo abeltzaintza produktuen transformaziora, herritarren zerbitzuetara, ostalaritzara, eta abarretara bideratuak, industria jarduera astunak baztertzen direlarik.
- Ugarte eremua nabarmenki handitzen da, handipen endogenoa bermatzeko asmoz eta asentamendu sistemaren burutze funtzioa indartuz; indarrean dagoen bizitegi programa finkatzen da (10 etxebizitza) eta beste 12 etxebizitzarako handipena proposatzen da, gaur egun auzoari falta zaizkion ekipamendu publiko eta espazio berdeekin batera.

Beraz, alternatiba honen parametro orokorrak hurrengoak izango dira:

1 ALTERNATIBA									
Eremua H.J.E.	Azalera m ² (l)	Erabilera Orokorra							
		Bizitegiak		Jarduera Ekonom.		Erkidego-ekipam.		E. libre + Ibai ibilgua	Azpieg. eta Zerb.
		Azalera	Gehitze	Azalera	Gehitze	Azalera	Gehitze		
		m ² (l)	Kop.	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)
1 Ergoene	54.397	39.315	24	678	504	5.493	114	6.240	2.671
2 Papelera*	52.889	-	-	49.625	-	-	-	1.027	2.237
3 Hirigunea	26.902	19.797	17	-	-	1.609	-	5.420	76
4 Larraitz	25.319	899	-	6.240	1.500	9.548	1.500	4.049	4.583
5 Saihesbidea	20.420	-	-	-	-	-	-	160	20.260
6 Alegialde**	21.230	19.818	1	-	-	-	-	1.326	86
7 Jauregi	21.892	16.384	32	-	-	-	-	5.508	-
8 Insa.-Zubi.	24.453	13.270	4	4.404	-	-	-	2.273	4.506
9 Lapatza	50.657	-	-	35.809	12.000	702	500	10.875	3.271
10 Olalde	22.728	11.960	-	6.442	2.000	-	-	378	3.948
11 Ugarte	23.425	14.306	22	-	-	842	-	5.284	2.993
TOTALA	344.312	135.749	100	103.198	16.004	18.194	3.614	42.540	44.631
% I/O. alter	107,65	94,88	54,64	91,56	94,99	184,49	94,61	286,79	113,33

* Tramitazioan dagoen A.A.S.S.en Aldaketa Puntuala barne hartzen du, 2016/09/29an behin-behinean onartua; ez da eraikigarritasunean gehikuntza bat ezartzen, gaur egun aurreikusitakoa gauzatzen baitago.

**Bizitegi erabilera orokorra mistoa kontsideratzen da, gaur egungo eraikinen behe solairuetan herritarrei zerbitzua emango dioten jarduera ekonomikoak sustatzeko asmoz.

Ikus daitekeen moduan, aurreikusten den bizitegi programa erdira murrizten da 0 Alternatibarekin alderatzen bada, kasu honetan zuzkidura jarduketarako zuzenduta dauden 20 etxebizitza berri izanik, gaur egun antolamenduz kanpo dauden Alegialde eremuko eraikinak finkatzen direlako.

Etxebizitza berrien aurreikuspenak jasaten duen beherakada orokorraren aurka, Ugarten aurreikusitako igoera nabarmentzen da, herritarren eskaerei erantzunez auzoaren hazkunde endogenoa ziurtatu asmoz.

Bestalde, erkidegoaren ekipamenduetarako zuzkidurazko lurzoruaren hazkundera azpimarratu behar da, baita espazio librerako eta ibaiaren ibilgurako lurzoruaren hazkundera ere hiri lurzoru eta urbanizagarrian, elementu naturalak hiri bilbean integratzearen ondorioz, eta haien finkatzea zein artikulatzea helburu.

2 Alternatiba

Alternatiba honek indarrean dagoen lurzoru ereduaren zuzenketan sakontzen du, 1 Alternatibarekiko aldaera hauen txertaketekin:

- Ergoeren, espazio libreen lursailaren ordeztu, erkidegorako ekipamenduen lursail bat proposatzen da, publikoa ala pribatua, hasiera batean nagusien arreta edota ostatu zerbitzuak ematera zuzendua: gainera, erreka errekaren ezker aldearen erabilera, errota eta Kotxetako frontoiaren artekoa, Espazio Libreen Sistema Orokorra izatea aurreikusten da, bi ekipamendu hauek herritarren eta turismoaren zerbitzura egongo den ibaiertzeko parke baten bidez lotuz.
- Gaur egungo Herri Eskola Jauregi gunera lekualdatzea proposatzen da, lursail hau paper-fabrikaren eremuan txertatuz eta beronen jarduera ekonomiko osagarrien erabilera bideratzeko asmoz, nahiz eta jarduera industrial astunak baztertuak geratzen diren.
- Erdigunea eta Ergoene lotzen dituen oinezkoen eta ibilgailuen ibilbidea handitzea proposatzen da paper-fabrika pareko tartean, hiri bilbeko bi elementu hauen komunikazioa eta irisgarritasuna bermatzeko asmoz.
- Hirigunea eremurako 1 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira.
- Larraitz-bidea eremuan bizitegi programa berrezartzen da, nahiz eta kasu honetan bigarren etxebizitzara zuzenduta dauden nagusiki, eta 1 Alternatiban jasotako gainerako aldaketak finkatzen dira.
- Alegialde eremurako 1 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira.
- Hirigintza eremu berri bat sortzen da, Zabalkundera izeneko, gaur egungo Jauregi eremua barne hartzen duena. Nahiz eta aurreikusitako bizitegi programa bere osotasunean bertan behera geratzen den, Herri Eskola berria barne hartuko duen erkidegorako ekipamendu erabilera bideratzen da eremua.

- Insausti-Zubillaga eremuaren mugaketa aldatzen da, Jauregi-haundi eta Jauregi-txiki lursailak barne hartzeko, eta honela eremuak Jauregi-Zubillaga izena hartuko du; gainera, Zubillagan 8 etxebizitzako bizitegi garapen txiki bat proposatzen da gaur egungo jarduera industrialak lekuz mugitu asmoz eta lurzoru hutsak bi elementu periurbanoen harremanerako espazio libreetara bideratuko dira.
- Lapatza eremurako 1 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira, baina mugaketa oraindik gehiago murrizten da Espazio Libreen Sistema Orokorrera bideratutako azalera zatian.
- Olalde eremurako 1 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira.
- Ugarte eremurako 1 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira.

Beraz, alternatiba honen parametro orokorrak hurrengoak izango dira:

2 ALTERNATIBA									
A.I.U. eremua	Azalera m ² (l)	Erabilera Orokorra							
		Bizitegia		Jard. Eko.		Ekip. zuzkidurak		E. libre + Ibai ibilgua	Azpieg. eta Zerb.
		Azalera	Gehitze	Azalera	Gehitze	Azalera	Gehitze		
		m ² (l)	Kop.	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)
1 Ergoene	51.299	34.948	20	678	504	5.249	3.114	7.542	2.882
2 Papelera*	56.138	-	-	50.267	763	-	-763	1.243	4.628
3 Hirigunea	26.902	19.797	17	-	-	1.609	-	5.420	76
4 Larraitz	25.319	10.283	36	6.404	1.500	-	-	4.049	4.583
5 Saihesbidea	20.420	-	-	-	-	-	-	160	20.260
6 Alegialde**	21.230	19.818	1	-	-	-	-	1.326	86
7 Zabalkunde	12.193	-	-	-	-	12.044	1.500	149	-
8 Jaur.-Zubi.	28.887	19.521	12	-	-	-	-	4.860	4.506
9 Lapatza	44.462	-	-	35.809	12.000	702	500	5.251	2.700
10 Olalde	22.728	11.960	-	6.442	2.000	-	-	378	3.948
11 Ugarte	32.937	19.190	40	-	-	1.115	750	8.980	3.652
TOTAL	342.515	135.517	126	99.600	16.767	20.719	5.101	39.358	47.321
% s/alter. 0	107,09	94,72	68,85	88,37	99,52	210,09	133,53	265,34	120,16

* Tramitazioan dagoen A.A.S.S.en Aldaketa Puntuala barne hartzen du, 2016/09/29an behin-behinean onartua; ez da eraikigarritasunean gehikuntza bat ezartzen, gaur egun aurreikusitakoa gauzatzen baitago.

** Bizitegi erabilera orokorra mistoa kontsideratzen da, gaur egungo eraikinen behe solairuetan herritarrei zerbitzua emango dioten jarduera ekonomikoak sustatzeko asmoz.

Ikus daitekeenez, alternatiba honek bizitegi erabilerara bideratutako azalera gehiago murrizten du nahiz eta bizitegi programa 1 Alternatiba baina apur bat handiagoa izan. Hala ere, zuzkidura jarduketei dagozkien etxebizitza berriak 20 izaten jarraitzen dute.

Bestalde, erkidegorako ekipamendura zein espazio libreetara bideratutako lurzoruaren hazkundera nabarmentzen da, jarduera ekonomikoetara zuzenduak dauden aprobetxamendu berriek gaur egungo aurreikuspenak %100ean betetzen dituzten bitartean, lursail txikiago eta sakabanatuagoen, eta bizitegiekin bateragarriagoak diren erabileren bitartez izan arren.

3 Alternatiba

Alternatiba honek indarreko lurralde ereduaren zuzenketa prozesua burura eramaten du eta bere xedea H.A.P.Oren indarraldirako ezarritako irizpide eta helburuak erdiestea da. Aldaketa hauek 2 Alternatibari txertatzen zaizkion ondorengo aldaeren bidez gauzatzen dira:

- Ergoenen gaur egun aurreikusitako bizitegi programa bertan behera geratzen da ia osotasunean, ordezkapen edota hiri bilbearen osaketa eragiketak bakarrik finkatuz; gaur egun bizitegirako lursail bat erkidegorako ekipamenduen zuzkidura erabilerara bideratzea aurreikusten da gainera, Herri Eskola berria barne hartzeko, eta 2 Alternatibako gainontzeko proposamenak finkatzea.
- Papelera eremurako 2 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira.
- Hirigunea eremurako 2 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira, haur-eskola eta mediku-kontsultategia, epe motzean erabilpenik izango ez duena, barne dituen zuzkidura erabilerako eraikinaren eraispina proposatzen den arren, ibaia erdiguneko espazio publikoan integratu asmoz.
- Larraitz-bidea eremuaren azalera muturreko murrizketa jasaten du, aurreikusitako eta ez eraikitako aprobetxamenduak ezabatuz, Zubeldia etxearen handitzea izan ezik, aparkaleku plazak libratu eta erdiguneko trafikoa berrantolatu asmoz.
- Alegialde eremuko aurreikuspenak finkatzen dira, nahiz eta ipar muturreko mugaketa handitu egiten den.
- 2 Alternatibako Zabalkundera eremua lurzoru ez urbanizagarri bezala birsailkatzen da eta bertan aurreikusita zegoen eraikigarritasun oro ezabatzen da, nukleoaren aranean beherako hedapena gelditu asmoz, bailarako ibai ertzen betetzea saihestuz eta Jauregi eta Insausti eremuen izaera periurbanoa bermatuz.
- Jauregi- Zubillaga eremurako 2 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira.

- Lapatza eremuaren azalera nabarmen murrizten da eta aprobetxamenduak errekaren eskuinaldean metatzen dira, ezkerraldea espazio libre publikoetara bideratzen delarik.
- Olalde eremurako 2 Alternatibako aurreikuspenak finkatzen dira.
- 2 Alternatibako aurreikuspenak finkatzeaz gain, Ugarten garapen are eta ausartagoa proposatzen da, udalerriko bizitegi ahalmenaren zatirik handiena bertan metatuz, kasu honetan auzoaren hazkunde endogenora zein bigarren etxebizitzara bideratua, asentamendu sistema eta indarreko lurralde ereduaren zuzenketa finkatu asmoz; modu osagarrian, erkidegorako ekipamendura eta espazio libreria bideratutako lurzorua antolatzea aurreikusten da.

Beraz, alternatiba honen parametro orokorrak hurrengoak izango dira:

3 ALTERNATIBA									
A.I.U. eremua	Azalera m ² (l)	Erabilera Orokorra							
		Bizitegia		Jard. Eko.		Ekip. zuzkidurak		E. libre + Ibai ibilgua	Azpieg. eta Zerb.
		Azalera	Gehitze	Azalera	Gehitze	Azalera	Gehitze		
		m ² (l)	Kop.	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)
1 Ergoene	51.299	30.106	8	678	504	10.091	1.614	7.542	2.882
2 Papelera*	56.138	-	-	50.267	763	-	-763	1.243	4.628
3 Hirigunea	26.902	19.583	17	-	-	1.490	-	5.753	76
4 Larraitz	10.987	-	-	1.480	500	2.220	2.000	3.711	3.576
5 Saihesbidea	20.420	-	-	-	-	-	-	160	20.260
6 Alegialde**	22.252	20.840	1	-	-	-	-	1.326	86
7 Jaur.-Zubi.	28.887	19.521	12	-	-	-	-	4.860	4.506
8 Lapatza	39.384	-	-	24.649	8.000	-	-	12.613	2.122
9 Olalde	22.728	11.960	-	6.442	2.000	-	-	378	3.948
10 Ugarte	50.825	27.222	56	6.924	2.000	1.115	750	10.322	5.242
TOTALA	329.832	129.232	94	90.440	13.767	14.916	3.601	47.918	47.326
% s/alter. 0	103,12	90,33	51,37	80,24	81,71	151,25	94,27	323,05	120,17

* Tramitazioan dagoen A.A.S.S.en Aldaketa Puntuala barne hartzen du, 2016/09/29an behin-behinean onartua; ez da eraikigarritasunean gehikuntza bat ezartzen, gaur egun aurreikusitakoa gauzatzen baitago

** Bizitegi erabilera orokorra mistoa kontsideratzen da, gaur egungo eraikinen behe solairuetan herritarrei zerbitzua emango dioten jarduera ekonomikoak sustatzeko asmoz.

Ikus daitekeenez, alternatiba honek erdira murrizten du indarrean dagoen bizitegi programa eta Ugarte eremuan metatzen du, non gaur egungo 6 etxebizitzaren birkokatzearekin batera, hirigintza garapenaren orekarako beharrezkoak diren ekipamendu eta espazio libreak antolatuko diren. Zuzkidura jarduketei dagozkien etxebizitza berriak 20 dira orain ere.

Halaber, azpimarratzekoa da erkidegorako ekipamendura bideratutako lurzoruaren hazkundera, zuzkidurazko eraikigarritasuna nabarmen murrizten den arren. Bitartean, jarduera ekonomikoetara bideratutako aprobetxamendu berriak egun aurreikusitakoak gainditzen dituzte, lursail txikiago eta sakabanatuagoen, eta bizitegiekin bateragarriagoak diren erabileren bitartez izan arren, lehen ere azaldu den bezala.

A6.2 PROPOSAMEN ETA ALTERNATIBAK LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN

Kasu honetan, lurzoru ez urbanizagarriaren antolamendua baldintzatua dago udal barrutiaren zati handi bat Aralar Parke Naturalaren barnean egonagatik, eta ondorioz, beronen antolaketa eta kudeaketarako onartutako era askotariko udalaz gaindiko araudiak aplikatu beharko dira. Zentzu honetan, gaur egun indarrean dagoen legeria azpimarratu behar da:

- 168/1994 Dekretua, apirilak 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onesten duena.
- 169/1994 Dekretua, apirilak 26koa, Aralar aldea parke naturaltzat jotzen duena.
- 146/2004 Dekretua, uztailak 13koa, Aralarko Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzen dena.
- 84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena.
- Aralar Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP)

Dena den, udalerrriaren garapen sozio-ekonomikoarentzat oztopo bat izatetik urrun, parke naturala Plan Orokorrek sustatzen duen lurralde eredu berriaren funtsezko eragile bat bihurtu behar da. Are gehiago, Aralarko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak (EKZP) berak bere eremuan kokatutako udalerrien tokiko garapena ezartzen du helburutzat, honela azalduz (gazteleraz soilik aurkitu da):

4.2.7. Desarrollo local

4.2.7.1. Directrices y criterios de gestión

- 1. Contribuir desde el Parque, en la medida de sus posibilidades, a la diversificación de la economía de su entorno inmediato, favoreciendo el desarrollo de actividades económicas compatibles con los objetivos del Parque Natural.*
- 2. Promover la formación de la población rural de la zona para perfeccionar y complementar una mejora del manejo y de las buenas prácticas ambientales.*
- 3. Promover la formación de la población de la zona para establecer una oferta de servicios ligados al uso público: guías de montaña, espeleología, agroturismo...*

4. *Implicar a la población del entorno del Parque en la gestión del mismo, favoreciendo su integración en aquellas actividades económicas ligadas a los servicios que el Parque deba ofrecer: hostelería, servicio de guías, promotores turísticos.*

Begibistakoa da helburu hauek Amezketako HAPOarekin bateratasun handiak dituela, Parke Naturean integratua ez dagoen lurzoru ez urbanizagarriaren antolamenduak beraz azken honen alderdi desberdinetan eragina izan beharko du, indarreko plan sektorialarekin bateragarria izateaz gainera, hau da, Nekazaritza eta Basogintza LPSeekin eta EAeko Ibaiertzak eta Errekaertzak antolatzekeo Lurraldearen Arloko Planarekin bateragarriak.

Horiek horrela, eta HAPOko ordenantzen parte izango diren beste motako erabakiez gain, Aurrerakin honek lurzoru ez urbanizagarriako antolamendu alternatiba desberdinak aurkezten ditu, lurzoru urbanizatu eta urbanizagarrien proposamenen elkarrekikotasunarekin, izendatutako plan sektorialaren oinarri izango diren antolamendu kategoría hauek ezarriz:

- Babes bereziko eremua: Fauna, flora eta oreka ekologikoa babesteko aukera ematen duten lurrak dira. Baso natural eta semi-naturalak eta lehentasunezko interes komunitarioko habitatak dira zehazki kategoría honetan sailkatzen direnak.
- Nekazaritza-abeltzaintza eremua:
 - Balio estrategiko altua: Laborantzarako lur estrategikotzat kontsideratuak dauden lurrak dira. Hori dela eta, bere mantenua eta zaintza lehentasunezkoak dira eremu hauetan beste erabilerean aurrean.
 - Trantsiziozko Landa Paisaia: Nekazaritza eta abeltzaintzara zuzendutako malda ertaineko lurrek osatzen dute. Lursail hauek belardiez eta zuhaitz masa txikiez osatuta daude. Balio estrategiko altua duten lurrekin edo baso eremuekin kontaktuan daude, orokorrean, hauetako joera batera bideratuak.
- Basoa: Orokorrean baso ez osatuta dagoen lur eremua. Basoaren balioa zaindu eta sustatu nahi den lur saila.
- Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua: Ibai ibilgua eta bere babeserako ertzak osatzen duten eremua. Lur ez urbanizagarriaren kokatzen diren ibaiaren zatiak, kanpo utziz hiri lurra eta lur urbanizagarria. Ertzak ibaiaren mailaren arabera babes tarteak dute, Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzekeo Lurralde Plan Sektorialak agintzen duen moduan.
- Ingurumen hobekuntzarako eremua: Landaredi inbaditzaileak nabarmentzen diren eremuak eta lurren higadura handia behatzen den lursailak.

- **Sistema Orokorrak:** Zuzkidura erabilerara bideratutako lurzorua, besteak beste, espazio libre eta ekipamenduko kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio-azpiegiturak eta -sareak, beti ere, hiritargo osoari zerbitzu ematen diotenak.

Nabarmentzekoa da Babes bereziaren kategoriak *Erkidegorako Lehentasunezko Interesa duten Habitatak* eta bertan sartzen ez diren ondo kontserbatutako habitatak, non haritz, pago eta kantauriar haltzeen baso autoktonoak azpimarratu daitezkeen. Gainera, antolamendu kategorია hauen gainean baldintzazaile gainjarriak ezartzen dira.

Baldintzazaile gainjarriak lurraldearen ingurumenarekiko sentikortasuna duten ezaugarri partikularrak dira, eta honen antolamendurako aplikazioa okupazioaren erregulazioan eta antolamenduaren kategoría desberdinen erabileran eragiten duten mugaketan itzul daiteke. Nola hala, lurzoruaren kategorien baldintzazaile gainjarriak ingurumen arriskuen (LAG) “prebentzio” aplikazioa suposatzen dute. Beraz, HAPOko eremuak kontsideratutako baldintzazaile gainjarriak bi atal hauetan banatzen dira:

Ingurumen baliabide estrategikoak:	
	C.1. Babestutako Eremu Naturalak
	C.1.a Aralarko Parke Naturala
	C.1.b Natura 2000 sarearen Kontserbazio Bereziko Eremua
	C.2. Fauna babes eremuak
	C.3. Onura publikoko mendia
	C.4. Interes geologikoko eremuak
	C.5. Korridore ekologikoak
	C.5.a Konektagarritasun ekologikorako korridoreak
	C.5.b Tokiko konektagarritasun ekologikorako oztopoak
	C.6. Paisaia babesteko eremuak
	C.12. Ondare kulturala
Ingurumen arriskuak:	
	C.7. Uholde arriskua duten eremuak. Birgertatze aldiak
	C.7.a. Ibaiaren lehentasunezko fluxu eremua
	C.7.b. Birgertatze aldiak: 10, 100 eta 500 urte
	C.8. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak
	C.9. Higadura arriskua duten eremuak
	C.10. Kutsatuta egon daitezkeen eremuak
	c.11. Eremu akustikoak

C.6. *Paisaiaren babeserako eremuak* baldintzatzaile gainjarriaren inguruan, Amezketa udalerrria bi bailara edo ikusmen-arrotan banatuta dago, Amezketa eta Bedaio, eta biak Paisaia Berezi eta Nabarmenen Katalogoan sartuta daude.

Ez dago beraz, paisaia babesteko eremurik berezita, baizik eta herri guztiak baldintza berberak ditu. Egokia dirudi ondorioz, herrian egin behar diren hiri garapen guztietarako Paisaiaren Integrazio Azterlanak galdegiteko betekizuna ezartzea.

Lurzoru ez urbanizagarriaren antolamendu kategoriek eta baldintzatzaile gainjarriek ezarritako markoan, Aurrerakin honek San Martin ermita inguruan (Altunegi auzoa) izaera estrategikoa duten proposamen desberdinak egiten ditu, hiri lurzoruaren eta urbanizagarriaren antolaketa alternatibekin batera aurkezten direnak grafikoki.

Proposamen hauek, alde batetik, 7 hektareako azalera izango duen eremua Landa-gune moduan (2/2006 Legearen 29. artikulua) izendatzean eta, bestetik, *camping* moduko azpiegitura turistikoa bat, eremu honetan edo gaur egungo Espazio Libreen Sistema Orokorren zati batean, ezartzeko aukeran laburbildu daitezke.

Horrek guztiak eremuaren hazkunde kontrolatu baina malgu bat ahalbidetzearen helburua du, lurraldeari lotutako jarduera turistikoa baten sustapenarekin batera, eskualdeko izaera izango duena (LAG) eta udalerriko eredu sozio-ekonomikoa dibertsifikatzea sustatuko duena.

Gainera, Aurrerakinak Bedaio (GI- 3711) eta San Martin errepideak Altzai eta Urkulaparte auzoetatik barrena konektatzeko aukera aztertu du, ez GI-2133 errepidearen alternatiba gisa, proposatutako azpiegitura turistikoen osagarria den eta erakargarritasun natural handia duen udalerriko eremu landatarra artikulatu eta sustatzen duen ibilbide moduan baizik.

A6.3 ANTOLAMENDU ALTERNATIBEN LABURPEN KONPARATIBOA

Atxikitako koadroan hiri lurzoruaren eta urbanizagarriaren antolamendu alternatibetan jaso diren jarduera eta aldaerak azaltzen dira, lurzoru ez urbanizagarriko San Martin eremurako proposamenak gehituz:

Jarduera	Alternatiba						
	0	1		2		3	
	Prop.	Prop.	%	Prop.	%	Prop.	%
Hiri Lurzoruaren azalera	228.971	271.763	119%	276.348	121%	263.048	115%
Lurzoru Urbanizagarriaren azalera	90.881	72.549	80%	66.167	91%	66.784	79%
Bizitegiak							
Azalera m ² (l)	143.069	135.749	95%	135.517	95%	129.232	90%
Proposatutako etxebizitza kopurua	183	100	55%	126	69%	94	51%
Jarduera ekonomikoak							
Azalera m ² (l)	112.706	103.198	92%	99.600	88%	90.440	80%
Proposatutako eraikigarritasuna m ² (s)	16.848	16.004	95%	16.767	100%	13.767	82%
Ekipamenduak							
Azalera m ² (l)	9.862	18.194	184%	20.719	210%	14.916	151%
Proposatutako eraikigarritasuna m ² (s)	3.820	3.614	95%	5.101	134%	3.601	94%
Espazio libreak*							
Azalera m ² (l)	3.841	31.797	828%	25.307	659%	32.583	848%
Azpiegiturak eta zerbitzuak							
Azalera m ² (l)	39.382	45.290	115%	47.321	120%	47.326	120%
Lurzoru ez urbanizagarria							
San Martin Landa- gunea m ² (l)	No	69.469		69.469		No	
Espazio librean S.O. m ² (l)	30.243	30.345		No		No	
Erkidegorako ekipamenduen S.O. m ² (l)	1.705	1.705		1.705		1.705	
Kanpamentu turistikoa (camping) m ² (l)	No	No		30.345		30.345	

*Kasu honetan ibaiaren ibilguak hartzen duen azalera ez da kontuan hartzen, gaur egungo espazio libreak eta proposatutakoak zenbatuz bakarrik, herritarrei zerbitzu bat emango diotenak hain zuzen.

Indarrean dauden A.S.ek San Martin eremuan metatzen dituzte Espazio Librean S.O.ak, lurzoru ez urbanizagarrian, 1 Alternatibak finkatzen duen aurreikuspena. Aldiz, 2 eta 3 alternatibek *camping* erabilera proposatzen dute eremu horretarako, zuzkidurazkoa hau ere, egungo espazio librearen orde.

Bistakoa da gaur egungo Espazio Librean S.O.aren azalera 2/2006 Legeak (78. art.) ezartzen dituen gutxieneko estandarrak aise gainditzen dituela, kalifikatutako 30.243 m²ek 6.048 biztanle dituen herri bati zerbitzu eman ahal diotelako, gaur egungo udalerriko biztanleriaren oso goitik, baita aitortutako bizitegi ahalmenaren arabera aurreikusitakotik ere.

Hala ere, egia da ereduaren jasangarritasunak murriztu den zuzkidurazko azalera ordezkatzeko galdegiten duela, nahiz eta modu zatikatuago batean izan eta Plan Orokorra proposatutako jarduera bakoitzari lotua egon, baina beti *“funtzionaltasunez eta zerbitzuz plangintza-eremu bat baina gehiago hartzen duten”* espazio librean bidez.

2/2006 Legeko 54. artikulua definizioa subjektiboa izan daitekeen arren, zuzkidura-sarearen izaera “orokorra” antolamenduaren eremu bat baina gehiagotan kokatzen haratago doala uste dugu, eta udalerriko biztanleriaren multzoak erabilia izateari lotua dago. Hau da, bere “funtzionaltasuna eta zerbitzua” dira eremu bat baino gehiago hartu behar dituztenak, eta ez hainbeste bere azalera.

Beraz, Espazio Libreen S.O.ak lurzoru ez urbanizagarriko lursailetan, nagusiki udal jabetzakoa diren eta hiri bilbetik aldenduak dauden lursailetan metatzeko joeraren aurka, zuzkidura-sareak edozein aldaera duela ere aipatu bilbean txertatua egon behar duela uste dugu, baita horrek lursail txikiagoak eta sakabanatuagoak aurrekustera eta izendatzera behartzen badu ere.

Edonola, hemen jasotako proposamenen aurretiazko izaera gogorarazi behar dugu, unean uneko garapenaren eta doitzearen xede izan beharko dutenak, bere zehaztapenen multzoak beharrezkoa duen oreka erdietsi arte.

A6.4 ONDAREAREN KATALOGO IREKIA

Atal honetan indarreko antolamenduak babes erregimenetako batean jasotzen dituen elementuak batzen dira, bai ustezko arkeologia eremuak, babes berezikoak edo oinarrizko babesekoak, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko katalogoak eta Aurrerakin dokumentu honek espezifikoki babestuak izateko proposatzen dituenak ere.

Elementu hauen kokapena dokumentu honetako B1.05 Planoan marraztua aurki daiteke.

Ondare arkitektonikoa

a) Babes zorrotzeko erregimena:

1. Bartolome Deuna eliza. Elizkalea, 21B.
2. Udaletxea. Fernando Amezketarraren plaza, 5.
3. Artolanea/Letradonea. Bartolome deuna kalea, 38.
4. Errosarioko ama eliza. Joxean Tolosa kalea, 8.
5. Jauregiaundi baserria. Alegiko bidea kalea, 4.
6. Sagoetxe/Sarobetxea/Sautse baserria. Urkulaparte auzoa, 6.
7. Argañaraserrota. Ola auzoa, 9.
8. Ugarteko errota. Zakel auzoa, 7.

b) Oinarrizko babes erregimena:

9. Aierbenea. Errekalde kalea, 1.

10. Torrea etxea. Elizkalea, 16.
11. Juanlopitzenea. Bartolome deuna kalea, 37.
12. San Martin ermita. Altunegi auzoa kalea, 17.
13. Garagartzaenea. Elizkalea, 8.
14. Elizalde etxea. Elizkale, 19.
15. Zubin/Zubirain baserria. Zakel auzoa, 4.
16. Arritzagako meatzeak. Enirio-Aralarren.
17. Zentrala/Indarretxea. Urtzabal auzoa, 4. Konfirmatu hori dela
18. Yerebizkar/Ierabizkar/Ireregibizkar baserria. Urtzabal auzoa, 2.
19. Zuriarraintxiki baserria. Larraitz bidea auzoa, 4.
20. Etondo baserria. Egutera (Eutera) auzoa, 6.
21. Karlosenea baserria. Ola auzoa, 7.
22. Arrieta baserria. Ola auzoa, 8.
23. Bernarats baserria. Zubillaga auzoa, 10.
24. Artola baserria. Toledoaldea auzoa, 5.
25. Loidi baserria. Altunegi auzoa, 2.
26. Zabalbarrena baserria. Altunegi auzoa, 15.
27. Toledogoena baserria. Toledoaldea (Tolo) auzoa, 8.
28. Lapatza baserria. Alegiko bidea kalea, 2.
29. Tomasenea baserria. Altunegi auzoa, 19.

c) Interesdun beste elementuak:

30. 1 ZUBIA. Ireregibizkar errotaren parean.
31. 2 ZUBIA. Papelera sarreraren parean.

d) G.F.A.ko ondare katalogokoak (A.A.S.S. ez jasoak):

32. AMEZKETA ZUBIA.
33. ARALAR PAPER FABRIKA. Bartolome deuna kalea, 40.
34. LARRUNARRI PILOTALEKUA. Fernando Amezketarraren plaza, z/g.
35. LOIDIKO ZUBIA. Cercano al caserío.
36. OLAZARRA.
37. TXAGAA.
38. ZURIARRAIN GOENA BASERRIA.

Ondare arkeologikoa

a) A KLASEA:

1. Iraregi baserria. Urtzabal auzoa, 6.
2. Lizeaga baserria. Arrondo auzoa, 5.
3. Loidi baserria. Altunegi auzoa, 2.
4. Etxeberritxiki baserria. Joxean Tolosa kalea, 5.
5. Etxeberriaundi baserria. Altunegi auzoa, 6.
6. Etxaizbitarte baserria. Altunegi auzoa, 23.
7. Etxaizgoena baserria. Altunegi auzoa, 24
8. Arizmendi baserria. Altunegi auzoa, 21.
9. Zabalgoena baserria. Altunegi auzoa, 11.
10. Zabalbarrena baserria. Altunegi auzoa, 15.
11. Jauregiaundi baserria. Alegiko bidea kalea, 4.
12. Karrera baserria. Zubillaga auzoa, 1.
13. Lapatza baserria. Alegiko bidea kalea, 2.
14. Toledoagoena baserria. Toledoaldea (Tolo) auzoa, 8.
15. Toledobitarte baserria. Toledoaldea auzoa, 6.
16. Toledobarrena baserria. Toledoaldea auzoa, 7.
17. Artola baserria. Toledoaldea auzoa, 5.
18. Agirrebarrena baserria. Toledoaldea auzoa, 3.
19. Agirreagoena baserria. Toledoaldea auzoa, 4.
20. ARGAÑARAS, TORRE.
21. Ugarteundi baserria. Joxean Tolosa kalea, 12-14.
22. Zubin/Zubirain baserria. Zakel auzoa, 4.

b) B KLASEA:

23. San Martin ermita. Altunegi auzoa kalea, 17.
24. Errosarioko ama eliza. Joxean Tolosa kalea, 8.

c) C KLASEA:

25. Cueva de Urdanaize-azpi

d) D KLASEA:

26. ARANTZASTIKO GOIKOA ERROTA (Demolido)
27. ARANTZASTIKO BEKOA ERROTA (hoy caserío)

- 28. Argañaras errota. Ola auzoa, 9.
- 29. Ugarte errota. Zakel auzoa, 7.
- 30. Yerebizkar/Ierabizkar/Iraregibizkar baserria. Urtzabal auzoa, 2.

e) E KLASEA:

- 31. YERABIZKAR GOIKOA ERROTA (sin estructuras visibles)
- 32. LIZEAGA GOIKOA ERROTA(sin estructuras visibles)
- 33. LIZEAGA BEKOA ERROTA (sin estructuras visibles)

f) Sailkatu gabea (E.J.ren ondare katalogotik jasoak):

- 34. Larrondo trikuarria
- 35. Urritza trikuarria
- 36. Aralarko estazio megalitiko

g) A.A.S.S.en dokumentazio grafikoan islatuak baina ez katalogoan:

- 37. SAN BARTOLOME ELIZA
- 38. ZURIARRAIN BASERRIA.
- 39. ETXAIZ BARRENA BASERRIA Etxaizbarrena baserria. Altunegi auzoa, 7.
- 40. UGARTE JAUREGI BASERRIAUgartejauregi baserria. Joxean Tolosa kalea, 1, 5,7.
- 41. LARRONDOKO DOLMENA
- 42. URRITZAKO DOLMENA

A7. GARAPEN ETA EXEKUZIO BALDINTZAK

A7.0 SARRERA

Amezketako Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren behin betiko proiektuan zehaztuko diren antolamendu proposamenak, kasu bakoitzean egokiak eta beharrezkoak izan daitezkeen garapen, exekuzio eta programatze neurriekin osatu beharko dira, bere momentuan.

Mota horretako aurreikuspenen zehaztapen zehatza hau bezalako Aurrerakin baten zereginetik haratago doa eta behar besteko zorrotasunez aurre egin beharko zaio Planaren aipatu behin betiko proiektuan edo bera garatuz landu eta bideratu beharreko dokumentuetan; hori guztia Aurrerakin honetan aurkeztutako proposamenen edota hautabideen kalterik gabe, gai horietako batzuetan eragina dutenak.

Orain proposatutako helburua xumeagoa da orokorrean, eta testuinguru horretan kontuan hartu beharko diren zenbait gai aipatzean eta gogoratzean datza.

A7.1 HAPOAREN GARAPENERAKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN ZEHAZTAPENA

Plan Orokorraren behin betiko proiektuak eragindako eremuen egiturazko antolamendua zehaztu beharko du. Zeregin horrek dagokien kalifikazio edo zonifikazio orokorraren erregimena zehaztea barne hartzen du, besteren artean.

Era berean, finkatu gabeko hiri lurzoruaren eta lurzoru hiriztagarriaren antolamendu xehatuaren zehaztapena hurrengoetan definitu daiteke:

- Plan Orokorrean bertan, egoki jotzen bada. Hori da aipatu proiektuan antolaketa zehatza ezartzea egoki eta posible jotzen den hiri lurzoruen kasua, besteak beste.
- Aipatu behin betiko proiektua garatuz landu eta bideratu beharreko planeamendu berezian edo partzialean ere gauzatu daiteke.

A7.2 HIRIGINTZA EXEKUZIOA

Plan Orokorraren behin betiko proiektuak, edo bera garatuz landu eta bideratu beharko den planeamenduak, antolamendu proposamenen exekuziorako beharrezkoak diren hirigintza egikaritze eta kudeaketa aurreikuspenak zehaztu beharko ditu.

Hori dela eta, segidan aipatzen diren gaiak kontuan hartu beharko dira, besteen artean:

- Aurreikusitako garapenen xede izango diren eremuak jarduketa isolatuen, zuzkidurazkoen edo integratuen berezko baldintzetara uztartzeko irizpideak zehaztu beharko dira. Horrelako aurreikuspenen zehaztapena, aipatu jarduketa moten xede izango diren eremuen zedarritzea barne, eremu horien antolaketa xehatuaren zehaztapenari uztartua edo baldintzatua ulertu behar da.
- Euren garapena jarduketa integratuen berezko baldintzetara lotua datorren eremuen kasuan, dagozkien esku hartze integratuko eremuak zedarritu edo identifikatu beharko dira.
- Esparru eta hornidura publikoen antolamendu proposamenak, kasu bakoitzean egokiak izan behar daitezkeen exekuzio eta kudeaketa neurriekin osatu beharko dira. Zentzu horretan, eta besteen artean, erabilpen publiko horietara lotuak dauden lurren eskuratze neurriak zehaztu beharko dira.

A7.3 HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN PROGRAMAZIO NEURRIAK

Hiria Antolatzeke Plan Orokorraren behin betiko proiektuak egoki jotzen diren proposatutako antolaketaren garapen eta exekuzio prozesuaren programazio neurriak zehazteari ekingo dio.

A8. PROIEKTUAREN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOAK

211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, delakoak ezarritakoa jarraituz, Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren izapidetzea eta onespena ingurumen ebaluazio estrategikoaren xede izan behar dira.

Agindu hori besteren artean segidan aipatzen diren irizpideen bidez betetzea aurreikusten da:

- Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoaren hasierako agiria Aurrerakin honekin batera lantzea eta bideratzea.
- Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren hasierako onespenerako dokumentuaren edukia ingurumenaren gaineko erreferentziatzko dokumentuan zehaztutakoaren arabera finkatzea. Gainera, hasierako onespenerako dokumentu hori derrigorrezko ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenaz osatu beharko da.
- Ingurumen organoak eman behar duen Ingurumen Memoriaren eskaera.
- Ingurumen Memoria Plan Orokorraren behin betiko proiektuan lantzeko edota txertatzeko irizpideen zehaztapena.

A9. AZKEN ONDORIOA. AURRERAKINAREN LABURPEN OROKORRA

Amezketak bere historiako une erabakigarri bat bizi du. Gainbehera demografikoa etengabea izan da azken sei hamarkadetan zehar, udalerriak bere populazioaren %40 galdu duelarik. Eta ez du ematen atzerakada hau etengo edota motelduko denik, baldin eta ez badira berehalako neurri ausart eta irmoak hartzen.

Udalerriko ekonomia eta, hein handi batean, ongizatea ere Aralar Papeleraren menpeko dira ia erabat, eta beronek krisialdi garaietan ere izan duen ibilbide sendoak ez ditu ezkutatu behar manufaktura-sektorearen gain mundu mailan dauden zalantza ugariak, ez eta eskulan espezializatuago eta prestatuago baten alde, haren jatorria aintzat hartu gabe, derrigorrez egin beharko duen apustua.

Gainera, ukazina da egungo eredu sozio-ekonomikoak biztanlegoaren atal esanguratsuen lantxertaketa oztopatzen duela, batik bat emakumeena eta formakuntza maila altueneko gazteena, eta horrek eragin negatiboa du udalerrriaren saldo migratzailean, egungo gizarte garatuek hain ohiko duten metabolismo demografiko berez dagoeneko ahulduari batzera datorrena.

Horren guztiaren aurrean, Amezketak aldagai erabakigarriak ditu erronkari baikortasunez aurre egitera laguntzen dutenak, eta bi multzo handitan sailka daitezkeenak:

- batetik, hiritargoaren kultur-nortasun nabarmena eta partaidetza zentzu sakona, etorkizunari begira engaiamendu eta ekimen bilakatu behar direnak;
- bestetik, gutxiren pareko ingurune naturala, udalerrriaren garapenaren motore nagusi bihurtu behar dena, bere sorrerarena eta mendeetako bizirautearena izan zen bezalaxe, bere ezohiko baliabideekiko begirada berri baten bitartez.

Testuinguru horretan landua, Hiria Antolatze Plan Orokorrek agertoki egokia sortzeko erronka du aurrez aurre; batetik, eredu sozio-ekonomikoaren eraldaketarako eta dibertsifikaziorako, lehen eta zerbitzu sektoreen garapena sustatuz, eta bestetik, lurralde txertaketa berri baten bilaketarako, indarreko Lurraldearen Antolaketarako Gidalerroek babestua eta eskualdeko garapen estrategiarekin koherentea dena.

Edonola, aipatu agertokiak hiritargoaren konplizitatea eskuratu behar du ezinbestean, azken batean, hura baita hemen proposatzen den eraldaketa eta garapen prozesuaren benetako protagonista.

Ondorioz, Aurrerakin agiri honek jarraipena ematen dio Amezketako udalerriko plangintza orokorraren berrikuspen prozesuari, egungo egoeraren diagnostikoarekin abiarazi zena. Aipatu diagnostikoa eta *Amestu Amezketa* herritarren partaidetza prozesua oinarri hartuta, erdietsi nahi diren helburuak proposatu dira, berauen lorpena gidatu behar duten irizpideak ezarriaz gainera.

Behin helburu eta irizpide orokorrak zehaztuta, ikertutako alorrak asebetetzera zuzendutako jarduketak multzo bat aztertu da, hautabide ezberdinak tarteko, egungo egoerari erantzun anitza ematen zaiolarik.

Eraginkortasun handiagoa lortzeko, jarduketak lau antolaketa hautabideetan sailkatzeari ekin zaio, indarreko plangintza jasotzen duen 0 Alternatiba barne. Hala ere, hautabide hauek ez dira itxiztat hartu behar, eta azkenean aukeratutako ereduak irtenbide egokienak jaso ditzake, iraunkortasun txostenaren ondorioak aintzat hartuz gainera.

Honekin guztiarekin haserako diagnostikoari konponbideak eskaintzea bilatu da, nahiko askotarikoa eta malgua udalerrriaren antolaketarako eredu integrala sortzea ahalbidetzeko.

Oiartzunen, 2018ko maiatzean



Roman Egaña Salaberria



Eñaut Muñoa Artola



Hektor Espin Larreta



Xabier Macías Ganuza



Aitor Iztueta Garaikoetxea